

**2024KO MAIATZAREN 22KO BATZAR NAGUSIAREN
BATZAR-EGUNKARIA
(ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA
DE FECHA 22 DE MAYO DE 2024
(TRADUCCIÓN)**



AURKIBIDEA

Orrialdea

- Batzarra hasi da.....	5
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau “Foru Dekretu Arauemailea, zeinaren bidez «UEFA Champions League Femenina 2024» eta «UEFA Europa League 2025» txapelketetako finalei aplikatu beharreko zerga-araubidea arautzen baiten.”	5
- Ogasun eta Finantzen foru diputatu Berrojalbiz Zabala andreak hartu dau berbea	5
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	7
- Bizkaiko Talde Popularreko Gómez-Guadalupe García-Tejedor batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	8
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea	9
- EH Bildu taldeko Sarasola Lartategi batzarkide andreak hartu dau berbea	11
- Euzko Abertzaleak taldeko Pieló Muguruza batzarkide andreak hartu dau berbea	12
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	13
- Bizkaiko Talde Popularreko Gómez-Guadalupe García-Tejedor batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	14
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea	15
- EH Bildu taldeko Sarasola Lartategi batzarkide andreak hartu dau berbea	15
- Euzko Abertzaleak taldeko Pieló Muguruza batzarkide andreak hartu dau berbea	16
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau .. “Foru Enpresa-Erakunde Publikoen plazak eta lanpostuak betetzeko hautaketa prozesuak.”	17
- EH Bildu taldeko Sarasola Lartategi batzarkide andreak hartu dau berbea	17



- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	19
- Euzko Abertzaleak taldeko Bagan Urtiaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	21
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	22
- Bizkaiko Talde Popularreko Gómez-Guadalupe García-Tejedor batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	24
- EH Bildu taldeko Sarasola Lartategi batzarkide andreak hartu dau berbea	25
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	26
- Euzko Abertzaleak taldeko Bagan Urtiaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	27
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	28
- Bizkaiko Talde Popularreko Gómez-Guadalupe García-Tejedor batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	30
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau	31
“Bizkaian ospatuko diren nazioarteko ekitaldietan euskara, kultura eta gure nortasuna errespetatu eta bultzatzea.”	
- EH Bildu taldeko Goñi Lacar batzarkide andreak hartu dau berbea	31
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako Vaquero Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	33
- Bizkaiko Talde Popularreko González Diez-Andino batzarkide andreak hartu dau berbea	34
- Euskal Sozialistak taldeko Campo Prieto batzarkide andreak hartu dau berbea	36
- Euzko Abertzaleak taldeko Landa Gaubeka batzarkide andreak hartu dau berbea	38
- EH Bildu taldeko Goñi Lacar batzarkide andreak hartu dau berbea	39
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako Vaquero Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	40
- Bizkaiko Talde Popularreko González Diez-Andino batzarkide andreak hartu dau berbea	41
- Euskal Sozialistak taldeko Campo Prieto batzarkide andreak hartu dau berbea	41



- Euzko Abertzaleak taldeko Landa Gaubeka batzarkide andreak hartu dau berbea	42
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako laugarren puntua irakurri dau	44
“All-Iron zubi mugikorra eregiteko prozesua.”	
- Bizkaiko Talde Popularreko González Diez-Andino batzarkide andreak hartu dau berbea	44
- Euskal Sozialistak taldeko Jerónimo Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	46
- EH Bildu taldeko Buruaga Barcena batzarkide andreak hartu dau berbea	47
- Euzko Abertzaleak taldeko Karrion Lamikiz batzarkide jaunak hartu dau berbea	48
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako Vaquero Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	51
- Bizkaiko Talde Popularreko González Diez-Andino batzarkide andreak hartu dau berbea	52
- Euskal Sozialistak taldeko Jerónimo Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	53
- EH Bildu taldeko Buruaga Barcena batzarkide andreak hartu dau berbea	54
- Euzko Abertzaleak taldeko Karrion Lamikiz batzarkide jaunak hartu dau berbea	55
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako Vaquero Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	56
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako bosgarren puntua irakurri dau	57
“1080 euroko gutxienezko pentsioak.”	
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako Vaquero Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	58
- EH Bildu taldeko Lopez Vazquez batzarkide jaunak hartu dau berbea	59
- Bizkaiko Talde Popularreko González Diez-Andino batzarkide andreak hartu dau berbea	60
- Euskal Sozialistak taldeko Zurro Tobajas batzarkide jaunak hartu dau berbea	62
- Euzko Abertzaleak taldeko Álvarez Gandiaga batzarkide andreak hartu dau berbea	64
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako Vaquero Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	66



- EH Bildu taldeko Lopez Vazquez batzarkide jaunak hartu dau berbea	67
- Euskal Sozialistak taldeko Zurro Tobajas batzarkide jaunak hartu dau berbea	68
- Euzko Abertzaleak taldeko Álvarez Gandiaga batzarkide andreak hartu dau berbea	69
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako seigarren puntua irakurri dau.	70
“Autonomoentzako neurriak”	
- Bizkaiko Talde Popularreko Gómez-Guadalupe García-Tejedor batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	70
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	72
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea	74
- EH Bildu taldeko Aranburu Agirre batzarkide jaunak hartu dau berbea	75
- Euzko Abertzaleak taldeko Arregi Osoro batzarkide jaunak hartu dau berbea	77
- Bizkaiko Talde Popularreko Gómez-Guadalupe García-Tejedor batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	79
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea	80
- EH Bildu taldeko Aranburu Agirre batzarkide jaunak hartu dau berbea	81
- Euzko Abertzaleak taldeko Arregi Osoro batzarkide jaunak hartu dau berbea	82
- Batzarra amaitu da.....	83



2022ko maiatzaren 22ko batzarra goizeko 09:00etan hasi da.

Se inicia la sesión del 22 de mayo de 2023 a las 09:00 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Buenos días, señoras y señores, señora Diputada General, diputados y diputadas, junteros y junteras, personas que nos acompañan desde las tribunas en este momento, así como a los miembros de los medios de comunicación, y quienes siguen esta Junta General vía streaming. A todos y todas, buenos días y gracias, por seguir una vez más la actividad del Parlamento de Bizkaia.

Para empezar a analizar el orden del día, el primer punto es:

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak: Buenos días.

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:
Iniciativa Originaria: Decreto foral norma de urgencia (R.E.12/E/2024/0000917)
Autor: Diputación Foral de Bizkaia
Asunto: Decreto Foral Normativo por el que se regula el Régimen fiscal aplicable a las finales de la UEFA Champions League Femenina 2024 y de la UEFA Europa League 2025.
Documento Principal:
(R.E.12/E/2024/0000917)
Boletines: Admisión a trámite (2A)
Expediente: (12/A/04/0001035)

1.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:
Jatorrizko ekimena: Presako foru arau-dekretua (12/E/2024/0000917SE)
Egilea: Bizkaiko Foru Aldundia
Gaia: Foru Dekretu Arauemailea, zeinaren bidez «UEFA Champions League Femenina 2024» eta «UEFA Europa League 2025» txapelketetako finalei aplikatu beharreko zerga-arabidea arautzen baiten
Dokumentu Nagusia: (12/E/2024/0000917SE)
Aldizkariak: Izapidetzeko onartzea (2A)
Espedientea: (12/A/04/0001035)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Secretaria.

Para empezar con el debate, tiene la palabra la representante de la Diputación, señora Berrojalbiz Zabala, para presentar el proyecto.

La Sra. **BERROJALBIZ ZABALA** andreak: Gracias señora Presidenta. Señora Diputada General, junteros y junteras, señoras y señores, buenos días.

Comparezco antes estas Juntas Generales para presentar el Decreto Foral Normativo 3/2024, de 2 de mayo, con motivo de su convalidación, si así lo disponen. Por dicho Decreto, se regula el Régimen fiscal aplicable a las finales de la «UEFA Champions League



Femenina 2024» y de la «UEFA Europa League 2025», aprobado en Consejo de Gobierno de la Diputación de Bizkaia el pasado 2 de mayo de 2024.

¿Por qué?

Ondo dakizuenez, Bilboko San Mames Estadioak Women 's Champions League UEFAko finala hartuko dau lehenengoz. Emakumezkoen 2024ko UEFA Champions Leagueko finalaren eszenatokia izango da, eta zapatuan, maiatzaren 25ean, jokatuko da, baina baita 2025eko UEFA Europa Leaguekoa be. 2025eko maiatzean izango da.

2020ko abuztuan, UEFAk Bilbo eta Donostia uriek osotutako hautagaitza aukeratu ondoren Women 's Champions League 2020 UEFAko azken fasea bertan izateko, San Mamesen final lauren bi eta 2020ko UEFA Women 's Champions League txapelketako finalerdi bat jokatu ziran. Kirol ekitaldi horrek berariazko zerga araubide bat ezartzea eskatu eban, Espainiako Gobernuak hartutako nazinoarteko konpromisoak beteteko. Konpromiso horreek araudi autonomoko zerga itunduei eta araudi komuneko zerga itunduei eragiten eutseen, eta foru erakundeek une bakotxean Estaduan indarrean dagozan arau substantibo eta formal berberak izan behar dabez. Une haretan, 9/2020 Foru Dekretu Arauemailearen bidez gauzatu zan.

Orain, era berean, Estaduaren kirol-konpromiso horreek beteteko egin behar dan zerga-erregulazioak bere baitan hartzen dauz bai foru-erakundeek Estaduan indarrean dagozan araudi substantibo eta formal berberak une bakotxean mantendu behar dabezan zergak, kasurako Balio Erantsiaren ganeko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren ganeko Zerga, establezimentu iraunkorrik barik jarduten daben zergadunentzat, bai araudi autonomoko zerga itunduak, Ekonomia Itunean aurreikusitakoaren arabera.

Holan, lehenengo eta behin, Espainiako Gobernuak UEFAgaz harturiko konpromisoak beteteko behar diran arauak ezartzen dira, lehen esan dodan moduan, aitatutako nazinoarteko kirol-lehiaketak garatzeko, eta jagokon zerga-araubidea arautzen da, Bizkaiko Lurralde Historikoko erakunde eskudunok araugintza-autonomia daukagun zergei jagokenez, Ekonomia Itunean aurreikusitakoaren arabera.

Araugintzarako gaitasunik ez daukien zergei jagokenez, gaineratu behar da talde parlamentario sozialistak zuzenketa bat egin eutsala lege-proiektuari, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko eta lehortearen ondorioak arintzeko neurriak hartzeko. Badakizue abenduaren 27an onartu zan 8/2023 Errege Lege Dekretutik datorren lege-proiektua dala.

Lege-proiektu hori, dakizuenez, gaur egun Kongresuan dago tramitean, ekitaldi horretarako zerga-arau bereziak arautzeko, eta holan dino berbaz berba: “urian eta San Mames estadioan”, emakumeen UEFA Champions League eta UEFA Europa League 2025 partiden amaierako partidetarako. Horren edukia, Bizkaian araugintzarako gaitasunik ez daukien zergei jagokenez, hain zuzen be horixe arautzen dabe lege-proiektu horri egindako zuzenketek. Lehen esan deutsuedanez BEZa eta establezimendu iraunkorrik ez daukien ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga gero hemen Bizkaian trasposizinoa egingo da, egokitzeko Foru Dekretu Arauemaile baten bitartez, Estaduko Lege hori indarrean sartzen danean. Izan be, esan deutsuedan moduan, tramitean dago, Ogasuneko Batzorde bat deitzeko zain.

Foru Dekretu Arauemoile horretara itzuliz, Kontzertu Ekonomikoaren arabera araugintzarako ahalmena daukien zergak arautzen dituala esan deutsuet. Eta Foru Dekretu Arauemoile horrek 10 artikulua eta 3 azken xedapen ditu. Lehenengo artikulua arabera, esan izan dan moduan, Foru Dekretu Arauemaile honen bidez arautzen da finalei aplikau beharreko erregimen fiskala, hau da, UEFA Champions League 2024 eta UEFA Europa League 2025 finalei apliketako, Bizkaiko Lurralde Historikoko erakunde eskudunek Itunaren araberrako araugintza-autonomia daukien zergetan.



Gainerako artikuluetan, honako honeek arautzen dira: onartzen diran neurrien aplikazio-eremu personala, nazinoarteko kirol-ekitaldiari lotutako errenten salbuespena, Persona Fisikoen Errentaren ganeko Zergan, Soziedadeen ganeko Zergan, Ez-egoiliarren Errentaren ganeko Zergan establezimentu iraunkorraren bitartekaritzagaz jarduten daben zergadunentzat, eta tokiko tributuetan. Ogasuneko zuzendari nagusiari gaitasuna emotea, halaber, talde funtzinonal espezializaua osatu daian zerga-betebehar formalen kudeaketan eta egiaztapenean, eta jagokozan administrazio-likidazioak egin daizan, bai eta euron indarraldia be, eta kirol-ekitaldi horreetarako lehenetsuneko mezenasgo-jardueraren aitortpena egin daian, aldi baterako. Era berean, esan deusuedan lez, 3 azken xedapen daukaz. 3 azken xedapen horreek indarrean sartzea, araugintzarako gaikuntza eta Batzar Nagusiotara bialtzea jasoten dabe.

Estos son, por tanto, los impuestos, los actos que regulan este Decreto Foral Normativo, los trámites necesarios para poder llevar adelante los eventos que vamos a disfrutar en Bizkaia, y para poder contar con los eventos que nos ofrecen una oportunidad única de abrir Bizkaia al mundo.

Esan deusuedan moduan, Bizkaia barriro be ekitaldi estrategiko baten eszenatokia izango da, Bizkaiko nazinoartekotze-estrategia bultzatzeko aukera parebakoa, eta, beraz, Foru Dekretu Arauemoile honek bere hondar aletxua emoten dau, fiskalidadearen ikuspegitik.

Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Berrojalbiz Zabala.

A continuación pasamos al turno de los grupos. Tiene la palabra la portavoz del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, la señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias señora Presidenta. Buenos días.

Berrojalbiz Zabala andreak Foru Dekretu Arauemoile bat aurkeztu deusku Ganbera honetan eztabaidatzeko eta onartzeko. Dekretu horren edukia UEFAREN neurriara egindako araubide fiskala ezarri daben aurreko Dekretuen berbera da. Aurreratu gura dot, aurreko urteetan lez, gure botoa ez dala izango irabazi-asmorik bako erakundea izanagaitik be korporazio multinazionala baino ez dan entidadeari alfonbra fiskala jartzearen aldekoa.

Zer dakarzue gaur hona? Dokumentu bat aurkeztu dozue, UEFak, bere langileek, taldeek, jokalariek, emakumezkoen Txapeldunen Ligako finalean eta Europa Leagueko finalean parte hartuko dabenean, egingo daben jardueragaitik zergarik ez ordaintzeko, ezta lortzen dabean irabaziakaitik be. Ez dabe Soziedadeen gaineko Zergarik ordainduko, ez Errentaren gaineko Zergarik, ez jagokozan tokiko zergak be. Erabagi dozue euren jardueraren ondoriozko onura guztiak salbuetsita ixtea, eta tratu hori berezia dala uste dogu, gainerako bizkaitarrok ez daukaguna. Eta, garrantzitsuagoa dana, mesedezko tratua, justizia fiskalmoduan ulertzen ez dana. Horrek ez dau laguntzen diru-bilketa progresiboa edo bidezkoa izan daiten, eta, gainera, baliabideak kentzen dauz zerbitzu publikoak hobetzera bideratzeko.

Eta zelan eragingo dau horrek Bizkaian? Oso gatxa izango da hori jakitea, Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztu dauen eragin ekonomikoaren txostena ikusita. Guk ulertzen dogu jarraitu beharreko prozedura dala txostenean adierazotea dekretuan jasotako neurri



fiskalek aurrekontu-karga dakarren ala ez. Horraino dana ondo, lege ezarritakoa bete dozue. Baina, serioa iruditzen jatzue, hau serioa iruditzen jatzue? Ez dozue jaso barik geratuko danaren kalkulurik egiteko asmorik? Esate baterako, ez dozue neurtuko Bizkaia mapan jartzeak Bizkaiko herritarrentzat daukan kostua? Ezin da izan Foru Gobernuak bultzatzen dauen eredu fiskal eta ekonomikoa eskumen fiskala beherantza daroan eredia izatea, zergak saihestea libre itxita.

Zenbat diru jarri dau honezkero Foru Aldundiak bi makroekitaldi horreek antolatzeke? 2020an 750.000 euro izan ziran Bilbao Ekintzarentzat, ekitaldi bakar bat antolatzeke. Honeek bietarako zenbat? Zergaitik ez dozue horren barri emoten? Hori be txostenaren barruan jaso beharko litzateke.

Foru Dekretu honek ez dauka guk babesteko moduko lerro bakar bat be, eta, benetan, adarjotea iruditzen jaku Aldundiak atxakiatzat jarrea Espainiako Erresuma dala UEFAgaz konpromisoa hartu dauena ekitaldia egiteko alfonbra fiskala ipinteko, eta ezin dana da jentea engainau. Lehenengo eta behin, nik dakidala, Aldundi honek eskumen osoa dauka PFEZaren eta Soziedadeen ganeko Zergaren gainean. Eta, ez ete daukie ezer, ezer, ezer esateko? Herri honen autogobernuari eta eskumenei eraso egiten jakela uste dozuenean gora-goraka hasten zarie, Etxebizitza Legeagaz lez, eta orain, ez sozue ezer esango?

Bigarren, zergaitik ezkututzen dozue 2014an Bilboko Udalak aurkeztu ebala UEFArako hautagaitza, jakinda zerga-beherapenak baldintza sine qua non zirala Bilbo Txapeldunen Ligako finalen egoitza izateko? Era berean, ezin dozue ostondu hautagaitza horrek, gainera, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesa izan ebala. Izan be, UEFAri esan zeuntsien euren esanetara jartzen zariela, Foru Dekretu Arauemoile honegaz egiten zabiziena.

Gobernu honetan, uste dogu zuen lehentasuna dala makro-ekitaldien turismoa bultzatzea, baina ezin da Bizkaiko jentearen eskubideen kontura. Gitxienez, espero dot oraingoan arduratu izana egun horreetan behar egingo daben personek lan baldintza duinak eukiteaz, edo barrero be gure gazteek borondatez edo baldintza txarretan lan egiten itxiko dozue, aurrekoetan moduan? Baldintza horreek be UEFAk jartzen dauz? Horretan be ez dozue ezer esango?

Elkarrekin Podemosek ez dau Dekretu hori onartuko, uste dogulako zerga-salbuespen horreek ekidaderik eza eta injustizia soziala eragiten dabela. Eta, amaitzeko, eta Foru Dekretu Arauemoile honen formari jagokenez, argitu mesedez legezkotasun-txostena. 7. puntuan, orain dala gitxi onartutako Energia Trantsizinoari eta Klima Aldaketari buruzko Legeagazko arau-egokitzapena aitutzen da, eta ez dozue horri buruzko dokumenturik aurkeztu.

Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora De Madariaga Martín.

A continuación, tiene la palabra el portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

El Sr. **GÓMEZ-GUADALUPE GARCÍA-TEJEDOR** jaunak: Garcias señora Presidenta. Egun on guztioi.

Gaur Bilbon egingo diran UEFAko ekitaldien fiskalidadeari buruzko Foru Dekretu Arauemailea bozkatuko dogu. Eta, zentzun horretan, guk argi itxi gura dogu positiboa be positiboa dala San Mames emakumeen UEFA Champions Leagueko finalaren agertoki izatea



2024ko maiatzaren 25ean, zapatuan, eta, jakina, 2025eko UEFA Europa League-ren egoitza izatea. Mugarria da, beharbada berandu datorrena, lehenago heldzea gustauko jakulako, baina badator, eta, jakina, gutziz positiboa da Bilborentzat eta Bizkaiarentzat, lurralde moduan.

Eta mugarri hori jazo daiten, logikoa da erakundeek, administrazio publikoek, UEFAguz konpromiso batzuk hartu izana, eta horreetako bat, jakina, zerga-araudia egokitzea da, eta hori da gaur bozkatzen doguna. Danok dakigu UEFAn baldintza horreek eskatzen dituala lurraldean, txapelketak egingo diran lurraldeetan, eta, horregaitik, gaur, Batzar Nagusi honeetan, arautzeko autonomia daukagun tributuak egokituko doguz, besteak beste, Soziedadeen ganeko Zergea, Persona Fisikoen Errentaren ganeko Zergea, Ez-egoiliarren Errentaren ganeko Zergea eta tokiko zergak. Eta konpromiso hori, esan dodan moduan, aurtengo maiatzaren 2an onartutako Foru Dekretu Arauemoile honen bidez beteten da.

Harritu egiten gaitu zelan heldu garan bozkatzera, hain denpora tarte txikiagaz, San Mamesen jokatu dan emakumezkoen finaletik egun bi eskasera gagozala. Eta, beharbada, gustauko jakun Bizkaiko Foru Aldundiak alde zurretik azalpen bat egitea, zehatzago aztertzeko txapelketa horreek egiteko hitzarmena, txapelketa horreek izan leikien eragin ekonomikoari buruzko azterlanak eta torneoen antolamendua egituratzeko moduari buruzko informazio gehiago.

Baina, Batzarretako Talde Popularretik aldeko botoa emongo dogu, hori bai. Alde bozkatuko dogu, uste dogulako UEFAn bere egoitza San Mamesen ezartzeak nazinoartean posizionamendua emoten deuskula; uste dogulako horrek turismo-sustapena emoten deuskula; uste dogulako kirola sustatzea positiboa dala gizartearentzat, eta, jakina, ezin da ezkutau txapelketa horreek gure lurraldean egiteak izango dauen eragin ekonomikoa oso garrantzitsua izango dala.

Eztabaida hau prestetan nabilela irakurri neban, 2021ean, nazinoarteko txapelketa baten egoitza izateko aukerea galdu genduan, Bilbok izango eban eragin ekonomikoa 16.000.000 eurotik gorakoa izango zala uste zala. Nire ustez, gure erantzukizunaren barruan, erakutsi beharra daukagula UEFAn txapelketak ondoetorriak dirala Bilbon eta Bizkaia osoan. Eta, jakina, ondo etorriak dirala jokalaria guztiak, talde tekniko guztiak, zale guztiak, eta turista guztiak, eta Bizkaian itzuli gura daben Lurraldea aurkitu behar dabela.

Gure ustez, Dekretu hau ez babestea ardurabakokeria litzateke, ze ez gaitez an engainau, UEFAn txapelketak egiteko jartzen dauen baldintzetako bat da. Foru Dekretu Arauemoile hau babestuko ez bagendu, laguntzeko prest egongo ez bagina, jakina, Bilbo ez litzateke txapelketa horreen egoitza izango. Horregaitik, eta esan dodan moduan, Batzarretako Talde Popularrak Foru Dekretu Arauemoile honen aldeko botoa emongo dogu.

Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA** / **LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

Tiene la palabra el portavoz del Grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, mahaikideak, batzarkidea, Ahaldu Nagusia eta foru diputaduak. Buenos días.



Garai nahasiak bizi doguz klase politikoaren sinisgarritasunerako, eta ez dago ezer txarragorik gure jardunen ganera susmoak botatea baino. Horregaitik, apaltasunez eta denporearen arabera, ahal dodan argitasunagaz azaltzen ahaleginduko naz, eta ez defendiduteko zehazki Foru Dekretu Arauemailea, ezpada apur bat egia eta erreala dena, zelan funtzionetan dauen kontuan hartuta, alde biko nazinoarteko Hitzarmenen sintesi bat. Esango neuke gehienetan beteten dirala, kirolek edo kulturatik eta abarretatik datozen errentetan jasoten dan zerga-tratamenduan zergapetze bikotxa saihesteko. Zergaitik? Ba hasieran entzun dodazalako halakoak: neurri egindako zerga-erregimena lako adierazpenak, batzuk salbuetsita, baina beste batzuk ez, baliabideak kentzen dira. Tira, hasteko ez jat gustau, ez jat gustau. Kritikea, bai, baina tonua altxatzea beste zeozer dan eta beste modu batera doan gauza baten, holan, printzipioz, ez.

Herrialde bik zergapetze bikotxa saihesteko Hitzarmen bat daukienean, herrialde bik, Espainiako Erresumak eta Konfederazino Helvetikoak, adibidez, Hitzarmen honetako xedapenetera jo behar da egiaztetako herrialde bateko egoiliarrek lortutako errentak besteak kargau leikezan, eta zein baldintzatan. Oro har, ELGaren hitzarmen bat dago, ohikoa honezkero, 17. artikuluan, eta, herrialde iturriak, ekitaldia bertan egingo baita, beste herrialdeko kirolariek eta klubek lortutako errentak grabau ahal izango dauz. Jakina, horrek ez dau esan gura zerga bete egingo danik. Hori beteko da jatorrizko herrialdeko arauak xede jakin horretarako xedapen egokiak jasotzen badauz. Eta herrialde iturriko arau horretan egin da hemen esan dan hori ia ad hoc. Ez, egin egin behar zan, egin behar da ikusteko karga horri eutsiko deutson ala ez.

Gogoratu zergapetze bikotxagaitiko hitzarmenek ez dabela betebeharrak zehatzik sortzen, zergapetzeko ahala baino ez dabe onartzen. Orain dala urte batzuk arte, idatzi bako adostasun bat egon da, eta, horren arabera, Europako lehiaketen testuinguruan, mota horretako ekitaldiak edo partida solteak egiten ziran herrialdeetan ez ziran holango errentak zergapetzen, eta hori 90eko hamarkadatik da, hau da, ez da joan dan astekoa.

Zer jazoten da holan egiten ixteagaz? Ba, logikoa danez, arriskua egoala une jakin baten herrialderen batek esateko, tira, honaino heldu etorri gara eta nik bai zergapetuko dodaz. Eta hortik dator eskubide horreek daukiezan erakundeek, fundazioek edo erakundeek, kasu honetan UEFAn, adibidez, egoitza izatea eskatzen dan une beretik, egia da, era berean, Bilbok egoitza izatea eskatu ebala, herrialdeei eskatzen deustie, barriro dinot, ekitaldia egiten dan lekuan, ekitaldi horretarako neurri legegileak hartzea, ad hoc kasuren baten.

Horraino, uste dot bagoazela apur bat. Jakina, egoitza horreek aprobetxau egiten dabe tokiko ekonomietan izan leikian eragina, eta zeozelako konpentsazioa emoten dau, seguru asko. Ziur nago zeharkako diru-sarrera publiko gehiago izango dirala beste ezer baino. Ez dabe aldatzen, baina aukera aprobetxetan dabe, kontua ez da amore emotea beste alde batetik jasoko dalako, ez, baina hor dago, hori jazoko da, jakina. Hara, Sevillan jokatu barri dan Kopako finala aitatzen badeutsuet, primeran ulertuko dogu danok, eragin ekonomikoari jagokonez.

Era berean jakin behar da neurri horretako zerga baten aplikazino praktikoak karga administratibo handiak ekarriko leukezala. Hara era askotako arazoak eukiko geunkez, errenten kalifikazino-gatazkea, gainezarpen-kasuak, kuantifikazino-arazoak, diru-sarrerren lokalizazino, azken baten, batzuetan urria dan diru-bilketarako, batzuetan urria dan diru-bilketarako, dana ez dalako munduko futbol txapelketa bat edo Eurokopa bat.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Parkatu, Álvarez Castrejón jauna, parkatu. Joan amaitzen mesedez.



El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Parkatu, minututxu bat behar dot.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Igaro da minutua, minutu bat pasau zara.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Ez dot ikusi txartel gorria. Gero jarraituko dot minutu bi.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Tiene la palabra la portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, señora Sarasola Lartategi.

La Sra. **SARASOLA LARTATEGI** andreak: Gracias señora Presidenta. Buenos días.

Hablar del decreto foral normativo que la Diputación pretende aprobar hoy, es hablar de la exención de las rentas derivadas de la celebración en Bilbao de la Champions League femenina de la UEFA 2024 y de las finales de la UEFA Europa League.

Lo primero que tenemos que decir es que no entendemos por qué han tardado tanto en traer el tema a esta cámara. El primer partido de estas finales, es decir, la final de la máxima competición femenina, se disputará este sábado, por lo que es un tema muy previsible (ya que hace tiempo que está en la agenda pública) y se podría incluso decir que han traído el tema in extremis. Y esto tiene su importancia, porque condiciona la tramitación de la norma para su aprobación. Así, lo han traído como decreto foral normativo de urgencia y no como Norma Foral, lo que limita a los grupos junteros representados en esta Cámara la posibilidad de realizar aportaciones a la norma. Por lo tanto, sólo por esto, entenderán que nos dificultan apoyar la iniciativa que han presentado.

Pero, además, ¿qué es lo que nos proponen? En definitiva, la propuesta es que los beneficios derivados de la organización de estos torneos a los que España se comprometió con la UEFA queden exentos de tributación en Bizkaia, tanto la UEFA como otras entidades dependientes de la misma, así como su personal, siempre y cuando no hayan sido residentes anteriormente.

De todo ello se deduce lo siguiente: Estamos aprobando esta norma para cumplir con los compromisos adquiridos por España con la UEFA, es decir, para volver a depender de las decisiones de España. Como decía la portavoz de Elkarrekin Bizkaia, nosotras también vemos que no han hecho ningún esfuerzo para tomar nuestras propias decisiones sobre lo que nos compete y defenderla.

Además lo que estamos aceptando es que estas rentas queden **TOTALMENTE** exentas, es decir, la Hacienda de Bizkaia no ganará nada como consecuencia de la organización de estos partidos en Bizkaia. Y recordemos que la atracción de este tipo de eventos sí que tiene un coste de dinero público.

Y si se quiere profundizar en el impacto en cifras de este acuerdo, también coincidimos con la portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, porque no vemos nada claro. El informe económico presentado por la Diputación no dice nada claro, es más, lo que indica es



que “estas medidas fiscales no suponen una carga presupuestaria”. Eso no nos parece serio. ¡Cómo pueden afirmar que el hecho de que Hacienda no perciba nada de estas rentas no tendrá ningún impacto presupuestario! Esto no es posible, tanto es así que en el informe económico del decreto aprobado por España para adoptar esta decisión sí se reconoce que se va a producir una pérdida recaudatoria que no se puede cuantificar, mientras que la Hacienda vizcaína dice que no, que no va a haber impacto económico. Esto nos lleva a pensar que la Diputación y Hacienda están abordando esta decisión con mucha ligereza.

Pero claro, sin ningún otro esfuerzo, es muy fácil decir que no va a haber impacto económico en los presupuestos de los vizcaínos y vizcaínas ya está. En definitiva, no sabemos cuánto vamos a dejar de recaudar, no está cuantificado, y en vez de reconocerlo, es más fácil decir que no va a haber impacto económico.

En cambio, a nosotras, para llegar a la misma conclusión incluso, es decir, para dejar exentos estos impuestos, se nos habría ocurrido otra manera más cuidadosa, que se les podría haber ocurrido a ustedes también si hubiesen abordado el asunto con diligencia: obligar a estas instituciones y personas a hacer declaraciones, es decir, a cumplir con sus obligaciones formales, para poder, al menos, cuantificar estas rentas exentas. De hecho, este sí es un dato importante que nos gustaría conocer: ¿quedarán también exentos del cumplimiento de estas obligaciones formales o cumplirán con ellas? Eso nos parece irresponsable.

En resumen, lo que vamos a decidir es dejar exentas en Bizkaia unas rentas con domicilio social en Suiza por las que cualquiera sabe cuánto tributarán, en beneficio de la UEFA, por los compromisos de terceros, y todo con prisas y a la ligera.

Y por eso votaremos en contra.

Para finalizar, queremos solicitar la tramitación de estas medidas como Norma Foral. Gracias. Nada más.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Sarasola Lartategi.

Tiene la palabra la portavoz del grupo Euzko Abertzaleak, señora Pieló Muguruza.

La Sra. **PIELÓ MUGURUZA** andreak: Gracias señora presidenta, buenos días.

Foru Aldundiak Ganbera honetara ekarri deusku maiatzaren 2ko 3/2024 Foru Dekretu Arauemoilea berresteko, San Mamesen jokatuko diran emakumezkoen finalerako, 2024ko maiatzaren 25ean UEFA Europa League eta 2025eko maiatzean UEFA Champions League, aplikau beharreko araubide fiskala arautzen dauena.

Ez da Bilbo UEFako partidak hartzeko egoitza lez aukeratzen dan lehenengo aldia, eta, beraz, 2020an emon zan Foru Dekretu Arauemoilea. 9/2020, abuztuaren 25ekoa, UEFA Women 's Champions League 2020ko finalari aplikagarria. Emakumezkoen UEFA Champions Leagueko finala maiatzaren 25ean, zapatuan, jokatuco danez, eta segurtasun juridikoaren printzipioa bermatze aldera, Foru Dekretu Arauemoile hau emotea justifiketan dau, ezohiko eta preminazko egoera dalako.

Bertan, Estaduak eta UEFak nazinoarteko kirol-lehiaketak egiteko hartutako konpromisoei erantzuteko aplikau beharreko zerga-araubidea arautzen da.



Nazinoarteko kirol-ekitaldiei lotutako errenten salbuespena aurreikusten da Persona Fisikoen Errentaren ganeko Zergan, Soziedadeen ganeko Zergan, Ez-egoiliarren Errentaren ganeko Zergan, establezimentu iraunkorraren bitartekaritzagaz jarduten daberen zergadunentzat, eta tokiko tributuetan. Neurri fiskal horreek 2025eko gabonilaren 31n amaituko dira.

Foru Aldundiak Dekretu hori emon behar dau, aparteko eta prisazko beharizana dagoalako, hartutako konpromisoak beteteko, eta horretarako gaitasuna dauka, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoaren arabera. Horregaitik guztiagaitik, eta segurtasun juridikoa bermatze aldera, Euzko Abertzaleak taldeak Foru Dekretu Arauemaile honen aldeko botoa emongo dau.

De Madariaga andrea, Espainiako Gobernuak ezartzen dituan baldintzak dira, Espainiako Gobernuaren eta UEFAREN arteko akordioa dalako, zure talde politikoak parte hartzen dauen gobernuarena. Beraz, ez da gure zerga-eredua, zure taldeak parte hartzen dauen Gobernuaren eredua baino.

Sarasola andrea, Batzarrotan onespene osoa lortu gura zan, baina araugintzarako gaitasunik ez daukagun arloetako aldaketak Kongresuan dagoz oraindino, eta ez ditu onartu. Eta, oraingoz egongo ez zizala ikusita, nahiago izan da, araugintzarako gaitasuna daukagun puntuetan behintzat, onartzea erabagi da. Eta gogorarazoten deusut bete behar dogun akordio bat dagoala, Espainiako Gobernuaren eta UEFAREN arteko akordio bat, eta eragin oso positiboa eta oso garrantzitsua izango dauela Bizkaiarentzat, Bizkaia munduan jarten gaituelako, eta internalizaziorako estrategia argia dalako. Beraz, Foru Dekretu Arauemoile honetatik harago begiratu behar da.

Nada más, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Pieló Muguruza.

Pasamos al turno de réplica. Tiene la palabra la portavoz del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias señora presidenta. Buenos días.

Gauza batzuk argitzearren, Pielo andrea, nire taldea ez da Gobernu honen parte, ondo egongo litzatekeen arren, eta bizkaitarrei seguruenez hobeto joango litxakie, eta Espainiako Estaduko Gobernuan be ez gagoz parte hartzen, uste dot danok argi daukagula. Beraz, jabetuko zara ez daukagula zerikusirik erabagi horretan.

Nire ustez, inpaktu ekonomikoaz berba egiten dogunean, ezin dogu tranparik egin eta gauza bi alde batera itxi. Ezin dogu ahaztu UEFAREN egoitza fiskala zein dan, hori ezin dogu alde batera itxi, Suitza da. Eta ezin dogu alde batera itxi hitzarmen hori nik zerga-iheserako estrategia ona deituko neuken horretan formalizau izan dala, araudia erabilten dalako zergak ordaintzeari uko egin ahal izateko. Orduan, deitu deiegun gauzei beren izenez, ez da ezer gertatzen. Inork ez dau esan ez dala legea bete, baina legea betetzearen eta fiskalki bidezkoak izatearen artean, legezketasuna betetzearen eta hori etikoa izatearen artean badago alde, eta hori da mahai gainean jarri doguna. Eta horregaitik ez dogu hori babestuko, uste dogulako ingeniarietza fiskala gobernu baten errubrikarekin egitea dala, eta ez gagoz horregaz ados.



Eragin ekonomikoaz berba egiten dogunean berbaz gabiliz, Alderdi Popularreko bozeroaleak esan dau, gitxi gorabehera 16.000.000 inguruko eragina egon zala kalkuletan zala. Guk kalkulau genduan zer ekarriko eban zergak ordaintzeak, eta egia da ez zala asko, baina 23.000.000 inguru ziran. Baina, ganera, ezin dogu alde batera itxi, UEFAk 2016 eta 2017ko ekitaldia antolatu ebanean, datu ekonomikoak dituan azkenetako bat izanik, bere irabaziak 3.000 milioi eurotik gorakoak izan zirala. Horrtaz gabiliz berbaz, eta, uste dot garrantzitsua dala kontuan hartzea, legezketasuna bete arren, hori bidezkoa, etikoa eta bidezkoa dala defendidutera gatozanean, ez dalako, ez dalako holan.

Eta, gainera, uste dot Soziedadeen ganeko Zergan eta Errentaren gaineko Zergan eskumenak daukaguzanez, apur bat kritikoagoak izan behar dogula eta, batez be, bizkaitarren eskubideak defendidu behar doguzala, gure ustez egokia ez dan eta, ganera, komenigarria ez dan eta gure lurraldeko personen mesederako ez dan zerga-jokaereari jagokonez.

Gure aldetik, besterik ez. Esan dodan moduan, ezezko botoa emongo dogu.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora De Madariaga Martín.

Tiene la palabra el portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

El Sr. **GÓMEZ-GUADALUPE GARCÍA-TEJEDOR** jaunak: Gracias señora Presidenta.

Nik uste dot hemen, lehenengo eta behin, galdera bat egin behar deusagula geure buruari. Zer gertatuko litzateke Bizkaia arau bat onartzeko prest ez balego, kasu honetan Foru Dekretu Arauemaile bat, gaur bozkatuko danaren modukoa? Ez ginatke ezeren egoitza izango, eta jakin behar dogu zein dan errealidadea, UEFA bezalako txapelketa garrantzitsuen egoitzak ezartzeko hautagai-kopuru handia dagoala, eta hor izan behar dogu lehiakorrak, kokatu, eta, zalantza barik, egokitu, UEFAREN baldintzak beteko dituan hautagaitza aurkeztu ahal izateko.

Ezkerreko alderdietako ordezkarietara entzunda, Bildukoei eta Elkarrekin Podemosekoei batez be, argi itxi dabe. Zuekaitik balitz, Bilbo eta San Mames ez lirateke ezeren egoitza izango, baina ez lirateke ezeren benetako egoitza izango. Eta uste dot zuzenak izan behar dogula eta autortu behar dogula txapelketa garrantzitsu bi horreen egoitza izateak daukan eragina. Eragin ekonomikoa, zuzena eta zeharkakoa, hainbat uritako hautagaitzak gura dabena.

Baina, inpaktu ekonomikoaz harago, Bizkaiak nazinoartean posizionamendu itzela hartzen dau, eta hori ezin dogu alperrik galdu, posizionamendu turistikoaz eta beste arlo batzuetakoez gainera, gure Lurraldearentzat eta herritar askorentzat edo guztientzat.

Gure taldeetik uste dogu Foru Dekretu Arauemaile hau bozkatzea erantzukizunez jokatzeko dala. Besterik ez. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor.



Tiene la palabra el portavoz del grupo Socialistas Vascos, el señor Álvarez Castrejón.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Neure buruari autortuko deusat ahalik eta arinen ibilteko gaitasuna.

Ni apal-apal ahalegindu naz azaltzen zelan funtzionatzen daben gauzek, baina agintariak, tokikoak, probintziakoak, autonomikoak edo nazinonalek, ondo baino hobeto dakie zein dan bete beharreko izapidea. Hau da, Bilbok ohiuka eskatu ebanean egoitza izatea, parkatu baina ez nabil asmetan, Juan María Aburto alkateak Bilbo egoitzaren logoaren aurkezpenean esan ebanez, “Guk ohiuka eskatzen dogu, guk gura dogu”, argi egoan eskari hori nora zuzenduta egoan. Zergaitik? Bilbon aldarri bat dagoalako, Bilbok egoitza izan gura eban, jakina baietz, eta harrotasun handiz, gainera. Hortik hurrengo, esan daigun, Espainiako Futbol Federazioaren bitartez egin eban aurrera, izan be, UEFAgaz alkartuta, horrek helarazoten deutso Espainiako Gobernuari Bilbok egoitza izateko daukan guraria. Eta, egin beharreko izapideak eginda, une horretatik aurrera administrazioa hasten da martxan:, Espainiako Erresuma, proposamena egin dauen administrazioa dan aldetik, UEFA eta abar.

Zergaitik? Ba antolatzaileak babesa behar dauelako, gobernuen bermea, ez da sartzan Europako herrialdeetan egon daiteken gauzatze-piramidean, ez ditu administrazio guztiak zeharkatuko, hori da sinplifikazioa. Espainiako Erresumak ez dau ekitaldi hau antolatu. Baina, tira, ekitaldi interesgarria zan, eta ekitaldi interesgarria izaten jarraitzen dau, hau da, nik ezin dot ulertu.

Eta baldintzei jagokenez, antolatzaileak jarten dituan baldintzei jagokenez, begiratu egin beharko litzateke, hau da, zerga-ihesa da. Gainera, zelan tratetan da zerga-ihesi hori alde biko hitzarmen batean? Zer zerga-ihesi ikusten dozue hor?

Atzera bota geinkean ala ez; atzera botatekotan ez genduan eskatuko. Zertarako eskatuko dogu, Hitzarmenaren substratua ezagututa. Serioak izan gaitzean, serioak izango gara, ezin da izan hemen danak balio dau eta edozer gauza esan daiteke. Titular txar bat baino ez dogu lortuko, “UEFA zergak lapurtzera edo bizkaitarrei ogia lapurtzera dator Bizkaira”, zentzunbakokeria da, hori zentzunbakokeria da.

Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor.

Tiene la palabra la portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, señora Sarasola Lartategi.

La Sra. **SARASOLA LARTATEGI** andreak: Gracias señora Presidenta.

La verdad es que no voy a decir muchas cosas nuevas, así que no voy a alargarme mucho, pero creo que merece la pena darle alguna vuelta. Aquí plantean este debate sobre una premisa, en nuestra opinión, una falsa premisa sobre el debate como no puede ser esta lógica, dicen, para internacionalizar Bizkaia y Bilbao, hay que traer este tipo de eventos, sí o sí, y además traer ese tipo de eventos en cualquier condición, sí o sí.

Nosotros sabemos que es un dilema, no lo negamos, sabemos que no es una decisión fácil y más si hablamos de fomentar las prácticas deportivas femeninas. Es cierto que



se trata de un dilema, pero como eso es cierto, también lo es que para atraer este tipo de eventos hay que mostrar una actitud diferente. En su primera intervención el portavoz del Partido Popular decía que sí o sí lo de la UEFA decía, que la UEFA establecía una serie de requisitos por los que sí o sí hay que pasar, y con los que sí o sí hay que transigir. Pero en realidad, hay que saber distinguir entre lo que es un requisito y lo que es un chantaje, y decimos que, efectivamente, pensamos que la Administración que tiene la posibilidad de atraer este tipo de eventos, tiene fuerza y capacidad, si de verdad quiere, para no someterse a los chantajes de una entidad como la UEFA. En definitiva, aquí estamos hablando de la negociación entre dos partes, las dos partes tienen intereses, las dos partes pueden salir ganando. Pero la actitud, para sacar algo de verdad, y para ganar algo de verdad, no puede ser acatar los chantajes que plantean. Porque además, con lo que estamos decidiendo, con lo que decidirán, pensamos que transmitimos un mensaje perjudicial a la sociedad, y es que a unos les ponemos la alfombra roja para que no paguen nada, mientras a otros les pedimos esfuerzos increíbles en relación a su capacidad monetaria.

Por todo ello, pensamos que estas decisiones deberían tomarse con otra seriedad y con una actitud diferente. Y por mi parte, nada más, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Sarasola Lartategi.

Para terminar el debate, tiene la palabra la portavoz del grupo Euzko Abertzaleak, señora Pieló Muguruza.

La Sra. **PIELÓ MUGURUZA** andreak: Gracias señora Presidenta. Buenos días.

Nire lehenengo berbaldian adierazo dodanez, emakumezkoen UEFA Champions Leagueren finala maiatzaren 25ean, zapatuan, jokatuko danez, eta segurtasun juridikoaren printzipioa bermatze aldera, justifikau egiten da Foru Dekretu Arauemoile hau emotea, ezohiko eta preminazko egoerea dalako. Era berean, holan beteten dira nazinoarteko kirol-lehiaketetarako hartutako konpromisoak.

Bilboko San Mames Finalaren egoitza gisa aukeratu izanak onura ekarriko deusie Bizkaiko biztanle guztiei; izan be, zeharka, zergak bilduko dira, bai kirol ordezkarietako bisitariak, bai familiakoek eta zaleek eta gainerakoek ostatu-zerbitzuetan, jatetxeetan, erosketetan, zerbitzuetan, garraioetan, museoetan, turismoan eta abarretan egiten daben gastuaren bitartez, eta, gainera, Bizkaia munduan ezagutarazoten dau.

De Madariaga andrea, zure taldea Espainiako Gobernuan egoan 2020an akordioa sinatu zanean, orduan bai. Eta akordio horrek eskatzen dauen gauza bera eskatzen eban, beraz, nik horri koherentzia deitzen deusat.

Mahai gainean jarri behar dana da final horreek Bilbon jokatzea gura dogun ala ez, eta Foru Dekretu Arauemoile honen kontra bozkutzen dabenak horixe adierazoten ari dira, Bilbon ekitaldiok jokatzearen kontra dagozala. Euzko Abertzaleak taldearentzat baiezko borobila da, eta hemendik eskerrak emon gura deusaguz Aldundiari egiten dauan behar guztiagaitik eta gure babes osoa izango dau.

Horregaitik guztiagaitik, Euzko Abertzaleak taldeak Foru Dekretu Arauemailearen aldeko botoa emongo dau.

Nada más, gracias.



La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Pieló Muguruza.

Y a continuación, sometemos a votación el Decreto Foral Normativo para su convalidación. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. En total se han emitido 48 votos. Ha habido 32 votos a favor, 16 en contra, no ha habido abstenciones. Queda, por tanto, validado el Decreto Foral Normativo.

Y a continuación, a petición del representante del grupo Euskal Herria Bildu, como reconoce el artículo 143.3, sometemos a votación si el Decreto Foral Normativo se tramita o no como proyecto de Norma Foral. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. En total se han emitido 50 votos, 17 votos a favor, 33 votos en contra, no ha habido abstenciones. Por tanto, no se tramitará como proyecto de Norma Foral.

Pasamos al segundo punto del orden del día.

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:
Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación (R.E.12/E/2024/0000845)
Autor: Sarasola Lartategi, Arantza (EHB)
Asunto: Procesos selectivos para la provisión de plazas y puestos de trabajo de las Entidades Públicas Empresariales Forales.
Documento Principal: (R.E.12/E/2024/0000845)
Boletines: Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas (19A)
Expediente: (12/B/20/0001013)

2.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:
Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa (12/E/2024/0000845SE)
Egilea: Sarasola Lartategi, Arantza (EHB)
Gaia: Foru Enpresa-Erakunde Publikoen plazak eta lanpostuak betetzeko hautaketa prozesuak
Dokumentu Nagusia: (12/E/2024/0000845SE)
Aldizkariak: Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea (19A)
Espediente: (12/B/20/0001013)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Tiene el turno la juntera que ha presentado la iniciativa Por tanto, tiene la palabra la señora Sarasola Lartategi.

La Sra. **SARASOLA LARTATEGI** andreak: Gracias de nuevo, señora presidenta, y cambiando un poco de tercio.

Esta moción que presentamos hoy no tiene ningún misterio especial. Lo que proponemos es muy de sentido común: en la provisión de puestos públicos dar las mismas oportunidades a todas las personas. Tan simple como eso.

Pero, desgraciadamente – y espero equivocarme – sospecho que siendo algo tan simple y razonable no va a prosperar en esta cámara. No hay más que ver la enmienda que han presentado los grupos PNV y PSE para seguir haciendo lo mismo, para no cambiar nada, para seguir haciendo lo de siempre. Es decir, una enmienda para poder seguir realizando



oscuros procesos de selección en estas entidades integradas en el Sector Público, cuya financiación es pública foral en su totalidad.

Y esto debería darnos que pensar. Los grupos que estamos aquí estamos para hacer propuestas que sean buenas para Bizkaia, y en ese punto, es legítimo que haya posiciones o enfoques diferentes, cada uno desde nuestro fundamento ideológico. Pero los grupos aquí representados también tenemos la responsabilidad de fiscalizar la actuación de la Diputación. Ante las prácticas irregulares, erróneas, etc. o oscuras de la Diputación todos tenemos la responsabilidad y la obligación de fiscalizarla. Y por lo tanto, en este caso, si los grupos que sustentan el gobierno dan la espalda a esta moción que propone algo tan razonable y apoyan la actuación de la Diputación, lo que se entenderá es que no solamente se niegan a que se lleve a cabo esa labor fiscalizadora, sino que además están a favor de esas prácticas oscuras, irregulares, equivocadas.

Sí, en este asunto, en este asunto de los procesos selectivos del Sector Público Empresarial Foral, existen prácticas del Gobierno Foral que deben ser objeto de control – fiscalización-corrección. Prácticas muy graves, y todos/as sabemos de qué estamos hablando.

Existe, y no porque lo digamos nosotras o porque sea vox populi, sino porque los hechos no se pueden ocultar. Y tanto es así, que cuando la gente sencilla se atreve a denunciar este tipo de prácticas y se dirige al Ararteko, éste no puede defender ni silenciar el carácter oscuro y fraudulento de estos procesos de selección.

Y ahora sí que iré al grano. En el Pleno de Control el Diputado dijo muchas cosas, dio muchas explicaciones, pero ni una sola suficiente. Empecemos, una a una, por examinar y desmontar las argumentaciones del Diputado. Esgrimió dos argumentos principales:

- Primero – el referente a la eficiencia. El señor Diputado aludió a la eficiencia para justificar de alguna manera el poner estos procesos de selección en manos de consultoras externas como Campo y Ochandiano.

Hau da, diputaduren tesia da sektore publikoan lanpostuak betetea eraginkorra dala bakarrik Campo & Ochandianok egiten badau.

Ba hori guzur hutsa izateaz ganera, nahiko kezagarria be bada, batez be Herri Administrazio Saileko arduradun nagusiaren ahotik. Izan be, enpleo publikoaren araudiak berak bere egitura antolatzekeo tresna moltso oso bat ezartzen dau, eta, hain zuzen be, Enplegu Publikoaren Legeak aurreikusten dauzan tresna horreek barik, enpleo publikoaren araudi osoa, hau da, erakunde publiko horreetarako erabilten dozuen funtzionamentuagaz, kudeatzeko oso zailak diran egoeren aurrean azkar eta eraginkortasunez planifikatzeko, aurreikusteko eta jardun ahal izateko. Izan be, enpleo publikoaren araudiak, adibidez, lanpostuen zerrenda deitzen dan gauza bat ezartzen dau, euskal administrazio publikoek beren barne-egiturak errazionalizatu eta antolatzekeo, beren langile-beharrak zehazteko, horreek betetekeo eskatzen diran betekizunak definidutekeo eta lanpostu bakotxa eraginkortasun- eta antolamendu-arrazionaltasunaren erispideen arabera sailkatzekeo tresna baino ez diranak.

Era berean, urtero aurrekontu-plantillak zehazteko betebeharra ezartzen dau. Izan be, egin egiten da. Horregaz batera, aurreikusi daitekezan egoeren aurrean hutsik geratzen diran plazak betetekeo lan-eskaintza publikoak ezartzen dauz, erretiroak kasurako. Baina aurreikustekoak ez diran egoeretarako be, lan-poltsa esaten jakon tresna bat ezartzen dau.

Por lo tanto, no es en absoluto cierto que el procedimiento y los instrumentos que establece la normativa de Función Pública no sean eficaces. Todo lo contrario, en un adecuado cumplimiento de la Ley de Función Pública, existen procedimientos previstos para las necesidades de personal previsibles y existe la herramienta de las bolsas de trabajo para



situaciones no previstas: las bolsas de trabajo son la garantía para ello, y disculpen, pero en nuestro caso, refiriéndonos a Bizkaia, la Diputación y el IFAS disponen de estas bolsas de trabajo, pero Garbiker, Azpiegiturak, Basalan, LANTIK, disponen de bolsas de trabajo para cubrir estos puestos de trabajo que deben ser cubiertos de forma inmediata? NO (o al menos no públicas, quizás las tengan en algún circuito cerrado, pero por favor no lo llamemos eficiencia, eso es otra cosa).

Segunda - El Diputado dijo: «El Ararteko no dijo ni una sola vez que existieran irregularidades en el proceso selectivo»

Arartekoak bere web orrian eta arautegiaren arabera bere egiteko nagusiaz egiten dauen aurkezpenaren zati bat irakurriko dot, “*Arartekoaren zeregin nagusia herritarrei erantzutea da, Administrazioaren jarduera oker edo irregularrei buruz planteetan dituen kexa, eskari edo kontsultei jagokenez, eta kexa horreek izapidetzea, eragindako Administrazioari bere jardunbideari buruzko azalpena eta informazioa eskatzen jakon prozedura baten arabera. Ordenamendu juridikoan ezarritakoaren arabera, kexaren xede dan jarduera okerra edo irregularra izan dala erabagiten bada, Arartekoak gomendio bat emoten deusko administrazio arduradunari, jarduketa okerra aldatzeko eskatuz. Ebazpen horreek webgune honetan argitaratzen dira*”.

Es decir, el Ararteko emite recomendaciones, únicamente recomendaciones, pero las emite cuando detecta irregularidades y/o actuaciones incorrectas, para lo que emite resoluciones.

Se me ha ido el tiempo. En el segundo turno profundizaré más. Nada más. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Sarasola Lartategi.

A continuación, el grupo Socialistas Vascos y los grupos Nacionalistas Vascos presentaron la enmienda, por lo que tiene la palabra el portavoz del grupo Socialistas Vascos, señor Otermin Eraso.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Señora Presidenta, señoras y señore, buenos días.

Gure eretxiz, gaur darabilgun gaia lanpostuak horniduteko hautaketa-prozesuen gardentasuna da, bai gure Aldundian, bai foru-sektore publikoa osotzen daben erakundeetan. Eztabaida juridiko baten sartu geintekoz, edo eztabaida politiko baten, Arartekoaren prisazko txostenean esaten edo esaten ez dan horretan oinarrituta. Uste dot kasu bietan aukera bat alperrik galduko geunkela zalantzak argitzeko eta hautaketa-prozesu horreei jagoken guztia hobetzen lagunduko daben erispideak ezartzen laguntzeko.

Izan be, funtzinoak beteteen eta baliabide publikoak erabiltean gardentasuna funtsezkoa da herritarrek erakundeakaz daukien konfiantza indartzeko eta, horregaz, gobernu edegia sustatzeko. Alde horretatik, daborduko onartu dogu Bizkaiko Gardentasunari buruzko 1/2016 Foru Araua, arau hori bermatzeko printzipio estandarrek ezarten dituana. Tartean, bi, funtsean: 1. Publizidade aktiboa. Bizkaiko Foru Aldundiak eta foru-sektore publikoko erakundeek informazio argia eskaini behar deusie publikoari. Informazio hori gardentasunaren atarian argitaratzen da. Eta 2, langileak hautatzea. Bitarteko funtzionarioentzako hautaketa-prozesuak bardintasun-, merezimentu-, gaitasun-, publizidade- eta bizkortasun-printzipioen arabera arautzen dira. Halan, 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduak



hainbat printzipio ezartzen dauz, adibidez deialdien publizitatea, eta lan-boltsak integretako baldintzak.

Beraz, enpleo publikoaren gardentasuna funtsezko printzipioa da langileak hautatzeko eta kudeatzeko prozesuetan ekidatea eta konfiantza bermatzeko, eta, horregaitik, hautaketa-prozesuek Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legean ezarritako printzipio gidariak bete behar dabez, besteak beste, publizitatea, deialdiak eta oinarriak irisgarriak izatea bermatzen dauena, eta gardentasuna, parte-hartzaileek ariketak eta galderak ezagutzeko, alegazioak aurkezteko eta ebazpen errazoituak lortzeko aukera euki daien.

Era berean, hautaketa-organoetako kideen inparzialtasuna eta profesinontasuna bermatu behar dira, bai eta hautaketa-prozesuen eta bete beharreko eginkizunen arteko egokitasuna be. Hau da, Administrazio Publikoko hautaketa-prozesuek bardintasun-, merezimentu-, gaitasun-, gardentasun- eta segurtasun juridikoaren printzipioak bete behar dabez. Hau da, legeak ezin dauz personak modu desbardinean tratau, justifikazino oinarritu, errazoitu eta zentzunezkorik barik. Enpleadu publikoak hautatzeko, haren merezimentu akademikoak edo profesinonak balorau behar dira, bai eta zerbitzu publikorako daukiezan gaitasunak be. Administrazio publikoek aldian-aldian jakin behar dabez beren jarduerari buruzko datu garrantzitsuak, eta erraztu egin behar dabe informazino publikorako sarbidea, eta persona orok izan behar dau bere egintzen eta ez-egiteen ondorio juridikoen barri zehatza eta aurreratua.

Espainiako Konstituzinoak printzipio horreek bermatzen dauz, eta legeriaren ardatza Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuan dago. Garai gogorak bizi doguz, ziurbakotasun globaleko, zalantzazko eta errezelozko garaiak, eta badirudi gure azpian dana mobiduten dala. Politika ez dago unerik onenean, eta kontu handiz begiratzen jake erakundeetako ordezkarien jarduera guztiei. Dagoeneko kasu eta salaketa askoren ondorioz herritarrak etsita eta aspertuta dagoz, sarritan errazoiaz.

Halan be, eta horregaitik hain zuzen be, uste dogu, inoiz baino gehiago, politika beharrezkoa dala, politika horretatik bakarrik antolatu ahal izango diralako herritarren arazoentzako urtenbideak. Baina distantzia sortzen da erabagiak behar dan besteko parte-hartzerik barik eta gardentasunik barik hartzen diranean. Beharrezkoa da gure Administrazioa herritarrei zabaltzen jarraitzea, eta informazinoa, publikoa izateaz ganera, eskuragarri egotea, edozein personak Aldundia zelan kudeatzen dan eta erabagi jakin batzuk zergaitik hartzen diran jakiteko eskubidea erabili ahal izan daian.

Bizkaia bardintasunezkoa, modernoa, gardena, solidarioa eta lehiakorra eregi gura badogu, gardentasunetik eta parte-hartzeagaz baino ezin da egin. Gizarte inklusibo baten alde burrukatzen gara, ze hemen ez dago inor sobran. Gardentasuna, eredugarritasuna, austeridatea, irisgarritasuna, osotasuna, objektibotasuna eta zintzotasuna dira ekintza politiko oro gidatu behar daben printzipioak. Izan be, oinarri horreekaz goberneteak baliabide publikoen kudeaketan eraginkortasun handiagoa lortzen laguntzen dau, eta herritarren arazoak azkar eta eraginkortasunez konpontzen.

Krisi-urteotan neurri handi baten galdu dan herritarren konfiantza berreskuratzeko, zintzotasunez eta gardentasunez jokatu behar da beti, emondako berba zorrotz errespetatuz, promesak gobernu onagaz betez, eta joko garbiaren arauai eta etika politikoaren oinarrizko printzipioei jarraituz. Horregaitik, hain zuzen be, enpleo publikoa arautzen daben legeek bermatu beharreko printzipio batzuk ezartzen dabez: deialdietan publizitatea, aukera-bardintasuna, gaitasuna eta merezimentua, eta hautaketa-prozesu horreek gauzatzeko prozedurak.

Hori guztia dala-ta, Euzko Abertzaleak taldeagaz batera, aitatuko dodan zuzenketa-eskea aurkeztu dogu, bilkuren eguneroko ondorioetarako: Bat. Bizkaiko Batzar



Nagusiek eskaria egiten deutsee foru sektore publikoa osatzen daberen erakundeei, euren hautaketa-prozesuetan abenduaren 1eko 11/2022 Legean xedatutakoa egokitzen jarraitu daien, eta ahalik eta egokien gauzatu daien, zerbitzu publikoa modu eraginkorrean emoteko, beti be prozesu horreetan parte hartzen daberen personeren interesa eta eskubideak zainduz. Eta bi. Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egiten deutsee Bizkaiko Foru Aldundiari, foru sektore publikoa osatzen daberen erakundeakaz lankidetzan jardun daian jardunbide egokien erespide batzuk prestetan, lanpostuak behin betiko edo aldi baterako horniduteko personeren eta lan-poltsen hautaketa-prozesuetan jarraitu beharrekoak, baliabide propioakaz edo kanpokoakaz, bardintasun-, merezimentu-, gaitasun- eta publizidade-printzipioak beteten dirala bermatzen jarraitzeko, eta kudeaketan ahalik eta eraginkortasun, efizientzia eta gardentasunik handienagaz.

Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Otermin Eraso.

Tiene la palabra el portavoz del grupo Euzko Abertzaleak, señor Bagan Urriaga.

El Sr. **BAGAN URTIAGA** jaunak: Señora Presidenta, señora Diputada General, buenos días.

En la moción derivada de interpelación presentada por el grupo Euskal Herria Bildu acerca del procedimiento de provisión de puestos de trabajo en el sector público foral, nos han traído 2 propuestas concretas, y desde nuestro grupo hemos presentado una enmienda junto con el Partido Socialista.

Euskal Herria Bilduren mozinoan proponiduten da foru sektore publikoa osatzen daberen erakundeek langileak hautatzeko Aldundiak erabilten dituan prozedura berberak erabilteko egiturazko plazak beteteko, eta modu berean izentatzeko prozesu horreetan parte hartzen daberen ebaluau behar dituen epaimahaiak, organuak, eta aldi baterako lanpostu horreek beteteko lan poltsen funtzionamendurako sistema bat be proponiduten da.

Mozino horrerri gure taldetik zuzenketa bat aurkeztu deusagu Talde Sozialistagaz batera, esan dodan moduan. Lehenengoan esaten dogu sektore publikoko erakundeek indarrean dagoen araudiak ezarritakora egokitzen jarraitu behar dabela. Une honetan, indarrean dagoan araudia 11/2022 Legea da, eta ez zan halan kasu horreek aztertu ziranean, eta gauzaten joan daitezala, legedi horren edukia ahalik eta ondoen eta egokien gauzaten joan daitezala, zerbitzu horreek ahalik eta eraginkorren emoten dirala bermatzeko, beti be, jakina, prozesuotan parte hartzen daberen personeren interesak eta eskubideak kontuan hartuta. Hau da, jarraitu daiela mekanismo egokienak ezartzen 11/2022 Lege horretan agertzen diran printzipioak errespetetako eta bermatzeko, hau da, Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legea, 70. artikuluan agintzen dana. Printzipio horreek, besteak beste, honako honeek dira: deialdiaren, oinarrien eta hautaketa-prozesuen publizidadea, bitarteko telematikoaren eta beste batzuen bidez; lehia askea; hautaketa-prozesuen gardentasuna, eta gardentasuna epaimahai horreetan erabagiten daberen organuetan, epaimahaietan. Honako baldintza honeek bete beharko dabez: profesinonaltasuna, diskrezionalitate teknikoa, inparzialtasuna, independentzia. Eta beste printzipio garrantzitsu bat be badago, prozesu horreek izapidetzeko arintasuna, hori bai, printzipioak bermatuz eta objektibotasuna kontuan hartuz. Horreek dira printzipio nagusiak, baina badira beste batzuk.

Eta, bigarren, gure zuzenketaren bigarren zatiak proponiduten dauena da Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetzan jardutea foru-sektore publiko horregaz, hautaketa-prozesu



eta lan-poltsa horreen kudeaketan errespetau behar diran jardunbide egokien erispideak ezarriz, bai langile finkoentzat, bai aldi baterako langileentzat, bai kanpoko zein barruko organuakaz. Eta guztia hainbat konstituzino-printzipioren barruan: bardintasuna, meritua, gaitasuna, publizidadea eta gardentasuna, baina baita efizientzia eta eraginkortasuna be.

Hori da markoa, hori da proposamena, eta uste dot azken zati horretan dagoala, nire ustez, gure aukerea, gure proposamena, Euskal Herria Bilduk aurkeztu dauena baino hobea egiten dauena, eta hori hobeto kokatzen da indarrean dagoan araudian. Izan be, indarrean dagoan araudiak agintzen dau hautaketa-prozesuek printzipio batzuk bermatu behar dabezala eta errespetau behar dabezala: bardintasuna, merezimentua eta gaitasuna, publizidadea eta gardentasuna, printzipio konstituzinonak.

Baina, era berean, Konstituzinoaren 103. artikulua arabera, Administrazioak objektibotasunez babestu behar ditu interes orokorrak, eta hierarkia-, eraginkortasun-, deszentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioen arabera jarduten dau, legeari eta zuzenbideari men eginez. Beraz, bardintasuna, merezimentua eta gaitasuna, publizidadea eta gardentasuna, bai; arintasuna, efizientzia eta eraginkortasuna be bai. Eta horixe hartu dau kontuan podere legegileak lan publikora heltzeko moduak arautu dauzanean, legegileak berak, podere legegileak, ez dauelako prozedura bakar bat ezarri subjektu publikoaren arabera. Indarrean dagoan araudiak planteetan dauz Funtzino Publikoan sartzeko hainbat modu. Eta hori podere legegileak gura izan dau, eta kontzienteki egin dau, sektore publiko horren barruan hainbat gauza kontuan hartu behar diralako: egiturak, izaera eta giza baliabideak, subjektu publiko horreei atxikitako langileok administrazio-podereak gauzatzen dabezan edo zerbitzuak emoten dabezan.

Ezaugarri asko hartu behar dira kontuan, eta horixe da podere legegileak kontuan hartu dauena, eta subjektu publiko esaten deutsegunen arteko desbardintasanak. Eta horri gehitzen badeutsagu Herri Administrazioek euren eskumenak erabiliz autoantolaketa dauen ahalmena, ba, jakina, gure proposamena egokiagoa dala uste dogu, eta indarrean dagoan araudian zuek planteetan dozuena baino hobeto kokatzen dala. Baina ez dedila zalantzarik izan. Bardintasuna, merezimentua eta gaitasuna, gardentasuna eta publizidadea, bai, eraginkortasuna eta efizientzia be bai.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Bagan Urtiaga.

Tiene la palabra la portavoz del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias señora Presidenta.

Ni Carlos Gilen esaldi batez hasiko naz. Italiako Europako Unibertsidade Institutuan Politika eta Gizarte Zientzietako doktore interesgarria da, eta meritokraziari buruzko tesi bat dauka, irakurtea merezidu dauena. Ingelesez dago, *Cracking meritocracy from the Starting Gate* dauka izenburua, gitxi gorabehera "Urteerako atletik meritokrazia apurtuz". Carlos Gilek honako hau esan dau: "Langile klasetik bazatoz, talentua eukiteak eta gogor lan egiteak ez deusuz bermatzen elitetik datorren baten emaitza berberak, nahizta ha be ahaleginu edo zotzik albora mobidu ez". Eta beste haube badino: "Ahalegin berak sari bera ez eukiteak, jaiotzeko subertea izan dozun gizarte-klasearen arabera, ez dau esan gura ahaleginak baliorik ez daukanik, ze badauka, ezpada meritokrazia iruzurra dala".

Beraz, idea horretatik abiatuta, beharrezkoa baino beharrezkoagoa da erabagi politikoak hartzea desbardintasan sozialen arrakala murrizteko, aukera-bardintasanaren



balantza barriro orekatzeko, eta sari ekonomikoak, erantzukizunen esleipena eta gure gizarteko karguen esleipena meritu indibidualen arabera esleitzen dirala bermatzeko, eta ez zure familiaren, zein personagaz daukazu harremana edo zorroan daroazun txartela zein kolore politikokoa dan.

Eta hori holan izango dala bermatzeko, ezinbestekoa da hautaketa-prozesu osoa objektiboa eta gardena izatea. Nire ustez, horretan ados gagoz, eta, gure ustez, hori beste edozein lan-eskaintza publikori apliketan jakozan baldintzak betez baino ez da bermatzen. Jakina, legeak ez dau behartzen hori holan izatera, Bagan jaunak esan dauen moduan, sektore publikoko enpresentzat, baina argi dago ez behartzeko funtsezko arazoak zuk esan dozunagaz zerikusia daukala; zuk esan dozu podere legegileak kontzienteki egin dauela, jakina kontzienteki egin dauela. Zerikusi handiagoa dauka, berez, Aldundiari lotutako gizarte instrumentalak lagunak eta aliadu politikoak saritzeko tresna bihurtu gura dituenen interes partikularrakaz, zerbitzu publikoari zuzendutako tresna izan beharrean. Eta hori Interneten sartzen dan edonork ikusi leiken errealidadea da.

Guk askotan proposatu dogu, gure aldetik, zoritxarrez, bape arrakasta barik, erakunde horreetako batzuk Bizkaiko Foru Aldundian bertan barriro sartzea, behar dan kontrola euki daien.

Baina behin honetara ezker, nik uste dot beharrezkoa dala foru sektore publikoa osatzen daben erakundeak Gobernuaren giltza izan ez daitezkan klientelismoan, entxufismoan eta nepotismoan. Eta, OCDEk esaten dauen moduan, zintzotasun publikorako eskuliburuan, “Ustelkeria modu desbardinak baino ez dira, funts publikoak personak aberasteko erabilten diranean, familia-loturen, afiliazio politikoen edo gizarte-izaeraren arabera”.

Horregaitik, Elkarrekin Podemosek proposamenaren egilearen mozinoa babestuko dau, dagoan moduan. Eta argitu gura dot, nire taldetik, ez dogula begi onez ikusten Gobernuari eusten deusien taldeek proposatu daben zuzenketea. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek egiten daben proposamena, orain arte egin dan moduan jarraitzea da, hautaketa prozesuek erispidetzat hartu behar dituen eraginkortasun eta efizientzia erispideak argudiatuz. Baina eraginkortasunak eta efizientziak erakutsi dabena da Konstituzinoan jasotako bardintasun, gaitasun, merezimentu eta publizidade printzipioen gaitetik jarri dirala, kasu askotan, ez kasuren baten.

Eraginkortasunaren eta efizientiaren gai horri buruz Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasuneko diputaduak joan dan Osoko Bilkuran itaunari emondako erantzunean berba egin eban. Nik horren ganean ohar bat egin gura dot, ze ni bat nator zuen gogoetaren zati bategaz. Guk ulertu geinke, baita partekatu be, OPEetan jarraitzen dan hautaketa-prozesua motela izan daitekeela, hau errealidade bat da, eta daukazan fase guztiek arazoak sortu leikiezala kudeaketan, eta zailtasunak lanaren garapenean, baita Foru Aldundiko sailetan be. Eta, gaur egun, Administrazio Publiko bizkorak behar doguz eta, gainera, bizi garen garaietara egokituak. Gu bat gatoz horregaz, eta, egia esan, uste dogu sistemea berraztertu egin behar dala eta barrizta egin behar dala, eta ez, zuzenketa dinozuenek, ostikada bat aurrera, jardunbide egokien dokumentu bat egin eta orain arte lez jarraitu. Hori ezin da izan.

Ez da egia zuen eskaeran dinozuenak: Eraginkortasunaren eta efizientiaren atxakiak aurretik eroan dau hautaketa-prozesuak bardintasunaren, merezimentuaren, gaitasunaren eta publizidadearen printzipioak bermatzea. Eta argi eta garbi dago ez dagoala gardentasunik kudeaketan, hori eztabaidazina da. Sistema barritu egin behar da, baina horrek azterketa eta eztabaida sakona eskatzen dau. Gure ustez, hautaketa-prozesua azkartzeak ezin dau inola be zalantzan jarri oinarritzko printzipio horreek beteten dirala, eta gu ziur gagoz, gainera, trebetasun eta gaitasun onenak daukiezan personak kontrateteak oso ondorio onak daukazala, hobekuntza politikoakaz datoz, zerbitzuak hobetzen dabez, ustelkeria murrizten da,



klientelismo- eta nepotismo-aukerak murrizten dauz, eta, batez be, erakunde publiko zintzoak eta herritarrentzat fidagarriak sortzen dauz, eta hori gaur egun oso beharrezkoa da.

Nada más, y muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko zuri, De Madariaga Martín andrea.

Grupo Popular Vizcaíno taldearen ordezkaria, Gómez-Guadalupe García-Tejedor jauna, zeurea da berbea.

El Sr. **GÓMEZ-GUADALUPE GARCÍA-TEJEDOR** jaunak: Eskerrik asko y buenos días otra vez.

Gaur, Bilduko Batzarkide-Taldeak itaunetik eratorritako mozino bat ekarri deusku, eskatzen dauena Bizkaiko foru sektore publikoa osatzen daberen erakundeek euren plazak beteteko Foru Aldundiaren prozedura bera jarraitzea, foru merkataritza soziedadeetako hautaketa prozesuak Foru Aldundiak berak izentautako epaimahaiek zuzentzea, deialdietan modu berean jokatzea, eta lan poltsen sistema bera izatea.

Interpelaziotik eratorritako mozino honen inguruan daukagun jarrera azaldu aurretik, beharrezkoa da Bilduk dakarskun eta gaur hemen jorrotzen dogun gaia testuinguruan jartea. Egia da, eta objektiboa ganera, zuzenbide pribaduko erakunde publikoek ez dituela eskakizun juridiko berberak herri-administrazioek daukiezan kontratazino-prozesuetan, kasu honetan Bizkaiko Foru Aldundiak daukan moduan. Izan be, ordenamentu juridikoan kontratazino-araubide oso desbardinak dira, ze kasu baten funtzionario-izaerako harreman juridikoei buruz berba egiten gabiliz, eta, beste kasu baten, lan-harreman juridikoei buruz. Biak desbardinak dira ordenamentu juridikoan, eta holan islatzen da sektore publikoko legedi juridikoan, baita Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testuetan be, eta, jakina, Euskal Funtzino Publikoaren Legean.

Halan be, erakundeon kontratazino-prozesuak, kasu honetan Bizkaiko Foru Aldundiarenak, Administrazio Publikoa ez izan arren, publizitatearen, gardentasunaren, aukera-bardintasunaren, merezimentuaren eta gaitasunaren printzipio konstituzinonalen eta legalen menpe dagoz. Eta, jakina, Konstituzinoak eskatzen dauzan printzipioak dira, legeak bete egin behar dira eta, nolana be, jarraitu egin behar da. Eta, esan deusuedan moduan, enpresa-erakunde publikoen zerbitzura dagozan lan-kontratadun langileak kontratatuko prozeduretarako existiduten dira, hori objektiboa da.

Baina ez dogu ulertzen itaunetik eratorritako mozino baten bidetik zelan eskatzen dan de facto aldatzea ezarritako lege-araubidea, argi eta garbi bereizten dauena zein dan Herri Administrazioaren araubidea zentzun itxian, eta zein dan Herri Administrazioen menpeko ente publikoen araubidea, eta halako parekatze bat proponiduten dauen.

Jakina, talde honetakook uste dogu ezin dogula galdu antolamendu juridikoak kontratu-mota baxotxerako kontratazino-prozesuaren araubidea ondo baino hobeto bereizten dauen ikuspegia. Eta egia da, horregaitik, kontratazino-prozedura desbardina dala kasu batzuetan eta besteetan.

Eta ahalmenen barruan, erakunde horreetan, eta, jakina, beti be printzipio orokorrak eta konstituzinonalak betez, enplegu publikora sartzeko merezimentu, gaitasun eta bardintasunaren printzipioak kasurako, beste faktore eta printzipio batzuk be badagoz, beharrezkoak diranak aurrera eramateko eta foru-erakunde publikoek behar dan moduan jardun



daien, Gobernuko taldeek aurkeztutako zuzenketan aitatzten diranak aidibidez, eraginkortasuna eta efizientzia aitatu ditue. Eta, jakina, beharrezkoak dira, kasu askotan lez, azkartasuna, Enplegu Publikoaren Eskaintza bat izapidetzeak daroan denporaren aurrean, edo malgutasuna.

Jakina, batzuetan, kasu batzuetan, foru-erakunde publikoek kontratazino-prozesuetan daukien gardentasunak huts egiten dau, edo, kasu askotan, karnetaren entxufismoa aitatzten da. Gauza bat da printzipio orokor horreek bete ez izana, baina beste gauza bat da, eta hori egitate objektiboa da, printzipio orokorrek aplikau beharrezkoak dirala, indarrean dagozala, legeak eskatzen dauzalako, eta konstituzino-testuak berak be eskatzen dauzalako.

Baina, esan dogun moduan, itaunaren ondoriozko mozino honek, de facto, halako erakundeetarako ezarritako lege-araubidearen nolabaiteko aldaketa ekarri gura dau. Ezin dana da, noski, arbitrariotasuna erabili kontratazino publikoan, edozein arlotan. Baina horrek, gure taldearen eretziz, ez dau esan gura dana parekatu behar dogunik, kontratazino-prozesu guztiak parekatu behar doguzanik, Bizkaiko Foru Aldundiaren menpeko erakunde publikoen kasuan.

Hori dala eta, Talde Popularrak ez dau itaunetik eratorritako mozino hori babestuko. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

Pasamos al turno de réplica. Tiene la palabra la portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, señora Sarasola Lartategi.

La Sra. **SARASOLA LARTATEGI** andreak: Gracias.

Amaieratik hasita, ez dakit zehatz-mehatz zelan itzuli dan aurkeztu dogun mozinoa, baina Alderdi Popularreko bozeroaleak esan dau, mozinoa aurkeztu dogunean, gure taldeak hautaketa-prozesuak modu jakin baten egitea eskatzen dauela. Ez dakit testuan exijentzia jarriko dauen, ala ez. Eta egia esan, guk ez dogu eskatzen, guk proponidu egiten dogu. Egia da oso modu sutsuan egiten dogula, gai honek kezkatzen gaitualako, justizia soziala dagoalako tartean, eta persona guztientzako aukera-bardintasuna, eta horregaitik oso modu sutsuan egiten dogu proposamena.

Alderdi Sozialistako bozeroalearen, Otermin jaunaren, berbaldiari jagokonez, esan behar deusut guztiz ados nagoala sarrera horregaz. Izan be, momentu baten uste neban babestu egingo zenduela, mozinoaren alde egingo zenduela, ez dodalako ulertu zelan heldu zeintekezan, zuk egin dozun sarrera horretatik, Euzko Alderdi Jeltzaleagaz adostu dozuen proposamenera.

Euzko Abertzaleak taldeko bozeroaleari jagokonez, perorata juridikoa egin deuskuzu. Guk ukatu egiten dogu, guztiz. Izan be, zuk proposatu dozuzan handienak, lehenengo, egin dozun irakurketa juridikoa, eta, bigarrenik, azaldu dodan moduan, arintasunaren edo eraginkortasunaren gaia, edo Herri Administrazinoan langileak hautatzeko sistema ustez eraginkorra ez izatea, Aldundian eta GUFEn egiten dan moduan.

Irakurketa juridikoari jagokonez, esan dozu Funtzino Publikoaren araudiak planteetan dituan printzipioek, besteak beste, hautaketa-prozesuei arintasuna emoteko beharra jasoten dabela. Gertatzen dena da printzipio hori, esaten dauela, “Hautaketa prozesuetan arintasuna, objektibotasuna alde batera itxi barik, eta horreek betearazteak behar dituen berme guztiak errespetauta”. Eta gehiago dino: “Horretarako, beharrezkoa da hautaketa-organoen



independentzia eta diskrezionalidade teknikoa". Eta Lan Publikoaren Legeak, hautaketa-epaimahaiak dirala-ta, hauxe dio: "Epaimahaiak deialdi-agindu bakotxean izentauko dira, justifikautako salbuespenik ezean, eta horren arabera, hautaketa-probak garatzea eta kalifiketea egokituko jake". Bere esanetan, "Kide kopuru bakoitia izango dira, karrerako funtzionarioak", errazoi simple bategatik, izan be, funtzionarioak bakarrik dagoz inparzialtasun eta objektibotasun egoera horretan.

Gainera, lan publikoaren araudiak zera dino: "Hau sektore publikoko erakunde guztiei apliketako da modu osogarrian". Osogarri gisa apliketakoak esan gura dau, aplikauko ez bada, oso ondo azaldu beharko dala zein dan agindu hau ez apliketako asmoa daukien erakunde publikoei apliketea ezinezko egiten dauen errazoa edo justifikazinoa.

Beraz, eztabaida juridikoa egiten badogu, arau horreek guztiak, baita hautaketa-epaimahaien osaera be, enpresa publikoetan be erabatet eta zuzenean apliketakoak dirala pentsetan jarraitzen dogu. Baina, barriro dinot, ukatu egiten dogu eraginkortasunik eza Aldundian eta GUFEn apliketan diran hautaketa-prozesu publikoetan. Zuek dinozue, "deialdi bat ateraten danetik plaza bete arte ez da denpora asko igaroten". Bai, baina plaza bat hutsik geratzen danetik deialdia egin, Lan Publikoaren Eskaintza argitaratu, deialdia egin, probak egin, pertsonak aukera daukie, epaimahaiaren erabakien kontra administrazio-bidean errekurrizeko bermeak daukiez, eta hori ezin da egin Campo & Ochandianok esku hartzen dauenean. Hori guztia jazoten dan artean, beti dago lanpostu hori beteten dauen persona bat, hutsik geratu dan lanpostu hori, eta zerbitzu publikoa emoten jarraitzen da. Izan be, barriro dinot, eta ez dakit entzuten ez jakun, barriro dinot, lan-poltsa bat dago ingurunean sortzen diran eta tartean sortzen diran jazoera horreek estaltzeko. Beraz, ez dago bape eraginkortasunik edo arintasun-faltarik lan publikoaren araudia ez apliketea justifiketan dauenik, ezta erakunde publikoetan eta izaera instrumentaleko erakunde horreetan be.

Y por mi parte, nada más. Yo creo que hemos explicado muy bien qué es lo que buscamos con la moción, el debate puede ser jurídico o político; en el jurídico yo creo que hemos dado infinidad de razones para echarlo todo para atrás, y por favor, tomemos esta decisión en función del significado político que tenga, es una cuestión muy importante y no podemos fallar a los vizcaínos y vizcaínas en un tema tan delicado. Sinceramente, les pido que apoyen esta moción.

Nada más, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Sarasola Lartategi andrea.

A continuación, tiene la palabra el portavoz del grupo Euskal Sozialistak, señor Otermin Eraso.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Gaur, nire berbaldian, Sarasola andreak bere berbaldiaren hasieran egin deuskun planteamentuan ez jaustea gura izan dot, eta ziurtzat jotea irregulartasun batzuk dagozala, sistema gaiztoa dala, eta hemen gagozan guztiok, edo gobernu-taldearen alde gagozanok, behintzat, gauzek holan jarraitzearen konplizeak garela. Zeozer ez dabilela ondo ziurtzat emotea da, eta Arartekoak bere txostenean esaten dauana baino proba handiagorik eta fede handiagorik barik, ze harek ez dau irregulartasunik adierazoten, bakarrik ondorio-zatian zenbait hobekuntza egitea gomendatu. Esaten da, danok esperientzia daukagu... esanda, hasarrera daroen eztabaidan sartzea baino ez da, eta, esatea, "Gauza bera egiten jarraituko dozue, zuei, gobernu-taldearen alde zagozenoi, ustelkeria, txantxulloa, militantzia-txartelak, dana ezkutetea interesetan jatzuelako".



Eta hori herritarrei ezin jake esan. Ez da zintzoa, eta ez da bidezkoa. Lehenengo eta behin, egia da lehenengo Lege bat dagoala, 1989koa, Funtzino Publikoaren Estatutua, hain zuzen be, 6/1989 Legea, denporeagaz aldatu behar izan diran hainbat baldintza ezartzen dituna, eta horregaitik sortu zan 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Sektoreko kontratazino publikoaren lege barriari buruzkoa. Beraz, hainbat hobekuntza dagoz.

Arartekoak egin dauen txostena aurreko legearen aurrekarietan oinarritzen da, ez lege horretan, hondino ez egoalako. Beraz, esaten doguna da, lege barri bat dagoanez, hobetu egingo dogu, danoi interesetan jakulako gardentasuna egotea, segurtasun juridikoa egotea, eta ziurtasuna egotea. Hautaketa-prozesu baten parte hartu dauenak jakin daizala baldintzak, ebaluazinoa, eta zergaitik egin dan ebazpen bat Herri Administrazioan sartzeko ariketeari jagokonez. Hori da lortu gura genduana, horregaitik esaten genduan gaur aukera bat genduala, edo alperreko eztabaida politikoa sartuko ginala, edo prozesu judizial edo juridiko baten nahastauko ginala, eta prozesu horretan argudio gehiago edo gitxiago euki geinkez, azkenean herritarrentzat ez dalako esanguratsua.

Zer esan gura dogu? Aukera bat daukagu guztion artean jarraibide onak atarateko lege barrian oinarrituta, eta, batez be, hori foru-sektore publiko osoan sartzeko be, erispideak adosteko eta egokitzeko hori holan izan daiten, hautaketa-prozesu batean parte hartzen dauen orok segurtasun juridikoa eta gardentasuna euki daian, eta herritarrak egin eta baloretan danaren arabera egon daitezcan, horixe eskatzen eta egiaztetan zan.

Meritokraziari eta beste gauza horreei jagokenez, tira, edozertarako balio daben baloiak dira. Administrazio Publikorako lehenengo lehiaketa-prozesua 225. urtean egin zan, Kristoren aurretik, Txinan. Han enperadore bat egon zan, bere inperioa 36 departamentutan banatu ebana, eta hautaketa prozesu bat egin eban, onenak jartzeko, 36 estadu horreek gobernetan. Espainian Felipe II.a izan zan 1588an nolabaiteko zorrotasuna eskatzen hasi zana zenbait irakasle koroatik kontratatuko orduan, batez be Alcalá de Henaresko Unibersidade barrian, etab.

Baina Administrazio Publikoaren finkotasuna 1919. urtean eskuratu zan Maura Dekretuaren bidez. Dekretu horri esker, funtzionarioari egonkortasuna emoten deusien prozedurak dagoz; izan be, ordura arte, bere betebeharra amaitu ondoren, kaleratu egiten ebezan, kargutik kendu, edo beren funtzinotik kendu. 1919tik aurrera, 1919tik gaur arte, Funtzino Publikoan zenbat gauza egon diran, zer prozedura, zer gauza bizi izan doguzan zehaztu behar dogu.

Zer gura dogu guk, Alderdi Sozialista garan aldetik? Txarto dagoana aldatzea, ondo dagoana indartzea, baina inork ez daiala zalantzan jarri guk holako Ganbera baten babesten doguna bere interesen kontra doanik, edo esan ezin diran gauzen alde. Gu beti gara itun eta akordio argi, simple eta erabagigarrien aldekoak.

Besterik ez eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Otermin Eraso.

Tiene la palabra el portavoz del grupo Euzko Abertzaleak, señor Bagan Urtiaga.

El Sr. **BAGAN URTIAGA** jaunak: Buenos días de nuevo.



Bigarren hitzaldi honetan, zehaztaper batzuk egin gura dodaz aurrekoetan ikutu diran gai batzuei buruz. Ez nator bat zugaz, Sarasola andrea, inola be ez, Arartekoaren txostenean irregulartasunak aitatzen dirala. Izentau gura dozuenean irregulartasun berba erabilten dozue, eta hemen ez da irregulartasunik lotzen ez publizidade-prozesuakaz, ez hautaketa-organoen funtzionamentuagaz. Prozesuak bere garaian indarrean egoan araudiaren arabera egin ziran, eta hori ez da egungoa, eta hemendik aurrera egingo diran prozesuak, jakina, indarrean dagoan araudiaren arabera izango dira, ezin bestela izan.

Era berean, ez nator bat Izaguirre jaunaren esku-hartzetik atera dozun ondorio horregaz. Uste dot ez daukala Campo & Ochandiano aitatu, eta are gitxiago atera dozun ondorioa atera. Guk, Arartekoaren txosten horren proposamen hori hobetzeko proposamen moduan ulertzen dogu. Eta, logikoa danez, kontuan hartuko da. Baina guk, eta lehen indarrean egoan araudia hobetzeko proposamen moduan be ulertu geinke, gaur egungoak proposamen horreetako batzuk jasoten ditualako.

Bigarren, pentsetan jarraitzen dogu gure proposamena, mozinoari egindako zuzenketea, egokiagoa dala, zuzenagoa, konstituzinoko printzipio guztiak orekatzen ditualako. Argudio juridikoak aitatu dozuz, eta guztiz ados nago, eta guztiz ados nago bete behar diranakaz, objektibotasunari lotutako arintasunagaz eta era guztietako bermeakazi. Eta araudiak badino epaitegiak holan eta holan izentau beharko dirala, ba, logikoki, izentauko doguz, gu hemen araudia beteteko eta helburu onenera heltzeko gagoz eta.

Baina ez nago ados esaten dozunean juridikoki prozedura batzuk eta besteak bardinak izango dirala eraginkortasunean eta arintasunean. Orduan, zergaitik ez dau legegileak erispide bakar bat ezarri, zergaitik ez dau behartzen? Zuek, orain, bat-batean, argitasuna hartu dozue, eta “ez, hau guztiontzat” dinozue? Legegilea da aukera emoten dauena, Herri Administrazioak eta podere esleitzzaileak bereizten dituan Sektore Publikoko Kontratuen Legearen moduan, eta ez badira funtzionamentu-arau berberak. Nire ustez, akatsa da identifiketea bardintasuna, meritua eta gaitasuna, publizitatea eta gardentasuna administrazio publikoek marketan daben prozedureagaz. Eta, nire ustez, ez dauka zentzunik herri-administrazio guztietan uniformitatea bultzatzeak, ze Aldundiak, bere sektoreak, udalek eta bere sektoreek... galdetu deutsezue zuen alkateei zelan kontratetan daben erakunde horreetan? Ados dagoz? Bai, ados dagoz sistema horreek bateratzeagaz? Jakin gura neuke.

Hirugarren, Aldundiaren konpromisoa. Jakina, indarrean dagoen araudia beteteko konpromisoa. Araudira egokitutako erispideak, jardunbide egokien erispideak, bardintasuna, merezimentua eta gaitasuna bermatzeko jarduera-protokoloak, aukera-bardintasuna eta arintasuna eta eraginkortasuna ezartzeko konpromisoa. Baina nik azkenean ez dakit zergaitik zalantza. Eta, era batera edo bestera, eztabaida hau modu zuzenak ez erabiltean zentru gura bazan, nik seriotasuna eskatzen deusuet, hor dagoz bideak, administrazio-baliabideak, errecurso judicialak, errubakotasun-presuntzinoagaz, e, hori be konstituzino-printzipioa da-ta, besteak bezela.

Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Bagan Urtiaga.

Tiene la palabra la portavoz del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias señora Presidenta.



Labur egingo dot. Nire ustez, garrantzitsuena, edo gaur eztabaida honetatik ateratea garrantzitsua izango litzatekeena, edo atera beharko geunkena, gitxienez hemen gagozan alderdi guztion konpromisoa da, gardentasunagaz eta erakunde publiko, oso eta garbi baten eraikuntzeagaz eta defentsagaz. Nik esan neike, Pielo andreak lehen esan dauen moduan, honen kontra bozkatzan dauenak gobernu klientelista, nepotista eta entxufatzailea gura dauela, baina ez dot egingo, uste dodalako hemendik beste modu batera urten behar dogula.

Baina ez jat egokia iruditzen dana ukatzea be, ezer onik ez dakarrelako. Ezin dogu errealidadea ukatu benetan aurrera egin gura badogu, ezin da ukatu, gainera, adibide askok erakusten dabelako Aldundiko erakunde instrumentalek ez dituela bete higie demokratikoa banderatzat euki beharko leuken erakunde baten oinarritzko printzipioak. Eta ebidentzia bat da.

Gardentasunaz berba egingo dot, adibide bakarra jarriko dot. Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean, Bizkaia Gardena sartzen badozue, Otermin jaunak lehen aitatu dauan Arauaren arabera (Bizkaiko Gardentasunaren 1/2016 Araua), 6.1.d) artikuluan, ondasun eta jardueren aitortpenaren informazioa publiko egitera behartzen dau, beste persona askoren artean, erakunde autonomoetako, enpresa-erakunde publikoetako eta foru-sektore publikoko erakundeetako zuzendari eta gerenteena, besteak beste. Ondo.

Informazio horretarako sarbidea emoten dauen estekan klik egin eta danetan topau dodan mezua irakurri deusuet, “lo sentimos, pero la página que busca no está disponible, o no lo ha estado nunca”.

Hemendik hasita, hemendik hasita. Beste adierazle batzuek be bardintasunaren, merezimentuaren, gaitasunaren eta publizidadearen printzipio horreek errespetetan ete diran jakiten laguntzen deuskue. Oso datu interesgarria da plantilletan daukagun aldi baterako pertsonen kopurua ikustea. Adierazle hori oso interesgarria da, baina ez dot nik bakarrik esaten, nazinoarteko erakundeek be esaten dabe, esaten dau “aldi baterako kontratuak edo aldi baterako igoerak erabilteak merituen sistema ahultzen dau”. Eta hainbat erakunde daukaguz hondino, kasurako Basalan, Garbiker, BEAZ, IFAS, aldi baterako langile askogaz.

Beste adierazle interesgarri bat da, besterik barik, eta denpora badaukazue eta gura badozue, plantillen datuak hauteskunde-zerrendetakoakaz kurutzatzen badozue. Ez daigun errealidadea ukatu, ez daigun ukatu, ez dogulako ezer eregiko; gaur, daborduko tasauta dagoan, funtzionetan dauen eta oinarritzko printzipio horreek betetea bermatzen dauen prozedura apliketako aukerea daukagu.

Eta barriro errepikatuko dot proposamena, eztabaida nasai eta sakon bati ekin deiogun, zelan egokitu, eraginkortasunaz, efizientiaz eta bizkortasunaz berba egin gura badogu. Beraz, eztabaida edegi daigun eta ikusi daigun zelan egokitzen doguzan hautaketa-prozesu horreek modernoagoa izan behar dauen erakunde publiko baten beharretara, edegi daigun. Baina, nire ustez, elementu bi bermatu behar dira bai edo bai, hau da, hautaketa-prozesua bermatzailea, objektiboa eta gardena izatea, eta ez da kasu guztietan holan izan, eta salaketa jarri dauen persona baten adibide bat dago eta Arartekoak esan dau: zer?

Baina adibide praktiko asko dagoz. Azken hilebeteko egunkarian irakurri besterik ez da egin behar, hau da, ez dogu errealidadea ukatu behar. Eta gitxienez funtzionarioek eta langileen ordezkariak eta eragile sindikalek osotutako epaimahaia be bai, hori dalako prozesu hori garbia eta gardena dala bermatzeko modu bakarra. Ez dot uste hain gaxa danik akordio batera heltzea.

Espero dot legegintzaldi honetan zehar benetan aurreratzea gai honetan, eta ez daigun ahaztu, Legeak kanpoan ixten gaituanez, edo nahiko kanpoan ixten gaituanez, bete beharreko elementu batzuk ez dirala beteten.



Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora De Madariaga Martín.

Para terminar el debate, tiene la palabra el portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

El Sr. **GÓMEZ-GUADALUPE GARCÍA TEJEDOR** jaunak: Gracias señora Presidenta.

Gure aldetik labur-labur. Jakina, behar publikoa lortzea dakarren deialdi guztien publizidadean zorrotzak izan behar dogula uste dogu. Gardentasuna prozesu mota guztietan egon behar dan maxima bat izan behar da, eta, jakina, bardintasun, merito eta gaitasun printzipio konstituzinonalak eta legalak jarraitu, errespetau eta aplikau behar dira, eta asko dago egiteko alde horretatik, eta amaiera emon behar jake opakutasun mota guztiei, egon daitekezan entxufismo guztiei eta, jakina, prozesu irregularraren susmo guztiei.

Halako prozesuetan gardentasuna indartu behar dogu, herritarrek konfiantza euki daien gure erakundeetan, jakina. Eta talde hau konprometuta dago hori saihesteko beharrezkoa dan edozein aurrerapenegaz. Baina, jakina, ezin dogu babestu juridikoki hutsune handia daukan mozino bat, guztiz desbardinak diran araubide bi parekatzen ditualako, administrazino publikoen kontratazino-araubidea eta erakunde publikoena, hain zuzen be.

Eztabaida honek ez deutso aplikau beharreko legediari erantzuten. Legegileak, sektore publikoko araubide juridikoaren araudian, enpleo publikoari jagokonez apliketakoak diran lege-testuetan, ondo baino hobeto bereizten badauz zein diran erakunde edo administrazino publiko bakotxaren araubideak, zein diran horreetako bakotxaren prozesuak, zeozergaitik da. Eta legegileak erakunde edo administrazino publiko batentzat betekizun desbardinak ezartzen dauzan arau-testu bat lortu badau, jakina, faktore askori erantzuten deutse, eta faktore horreek kontuan hartu dira testu horreek aurrera eroateko eta administrazino publiko guztiek eta haren erakunde publikoek aplikau daiezan.

Azken baten, beharrezkoa da deialdietan publizidadea, gardentasuna eta, jakina, printzipio orokorrak exijidutea, opakotasun eta entxufismoari amaiera emon ahal izateko. Baina, jakina, talde honek ez dau babestuko mozinoa, zuzenbide pribaduko erakunde publikoentzat erregimen barri bat inposatzen edo proponiduten ahaleginduko dala uste dogulako.

Besterik ez. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

Terminado el debate, sometemos a votación la moción. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido 50 votos en total, de los que 17 han sido a favor, 33 en contra y no ha habido abstenciones. Por tanto, no se aprueba la moción.

Tercer punto del orden del día.



La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación (R.E.12/E/2024/0000856)

Autor: Goñi Lacar, Raquel (EHB)

Asunto: Respeto e impulso del euskera, la cultura y nuestra identidad en los actos internacionales que se celebrarán en Bizkaia.

Documento Principal:

(R.E.12/E/2024/0000856)

Boletines: Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas (20A)

Expediente: (12/B/20/0001023)

3.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa (12/E/2024/0000856SE)

Egilea: Goñi Lacar, Raquel (EHB)

Gaia: Bizkaian ospatuko diren nazioarteko ekitaldietan euskara, kultura eta gure nortasuna errespetatu eta bultzatzea

Dokumentu Nagusia: (12/E/2024/0000856SE)

Aldizkariak: Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea (20A)

Espedientea: (12/B/20/0001023)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Tiene la palabra la juntera que ha presentado la iniciativa, la señora Goñi Lacar.

La Sra. **GOÑI LACAR** andreak: Buenos días.

El mes pasado, formulamos una pregunta a la Diputada de Cultura y Deporte, sra. Arrizabalaga Arruza, sobre las medidas para impulsar y respetar nuestra lengua, cultura e identidad en la final de la Liga de Campeonas Femenina de la UEFA.

Ella nos facilitó datos sobre este evento, entre los que se citaba, entre otros, la comunicación externa. “Los mensajes dirigidos a receptores indeterminados, que se difunden por medios automatizados, servicios telefónicos de información, megafonía o similares, así como los documentos y actuaciones en soporte escrito, se redactan en las dos lenguas oficiales”. Pero basta con salir a la calle para ver que la publicidad del partido está redactada en la mayoría de los casos en un único idioma, o en formato bilingüe pero solo en inglés y en castellano. El euskera no está presente, y desgraciadamente tampoco lo esperamos. Y os mostraré ejemplos:

Aquí tienen la marquesina que hay en la Gran Vía, han convertido la marquesina en banquillo o banco del campo de fútbol. También tienen aquí una especie de en la estación de tren. Igualmente hay estos banderines que han llegado hasta Errekalde en inglés que en castellano. La mayoría de las veces pone Bilbao-Final... y algunos diréis: bueno en euskera sería Bilbo-Finala, muy similar, se entiende... y por qué no priorizamos el euskera?

Al menos yo no he encontrado ningún texto en euskera. Y por otro lado está la publicidad que ponen los patrocinadores. Aquí sí que dependemos de las decisiones de estas empresas, y les pondré otros tres ejemplos: los de los sponsor, aquí tienen un anuncio de la estación de tren: *Victoria y Gloria son nombres de mujer, Victoria and glory are women's names*. El balón se presentó ayer, el balón también en inglés. Y, cómo no, también el tranvía, en el tranvía hace propaganda Pepsi, igual, igual con eso, no podemos valorar si la Diputación ha organizado nada, porque no lo hemos visto anunciado.

Y me atenderé a la ley porque la ley tampoco es muy firme. En concreto, el Decreto Foral 63/2019, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se establecen los criterios para el uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, sus organismos autónomos y el sector público foral, contiene un artículo 21 en el que se



legalizan los actos y actos públicos y en el punto 5 se dice que *en los actos organizados por terceras personas se garantizará la presencia y el uso del euskera en todos los aspectos comunicativos del acto o acción*, y ahí puede estar la clave. La ley dice que hay que garantizar la presencia del euskera. Pero no dice al mismo nivel, o alguna frase parecida, y mucho menos, dar un lugar preferente a la lengua minoritaria, el euskera.

Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral.

Artículo 21. Actos y eventos públicos.

Punto 5. Asimismo, en aquellos actos públicos y eventos que se desarrollen en el Territorio Histórico de Bizkaia y que, aun siendo organizados por terceros, cuenten con la colaboración o la participación, directa o indirecta, de las entidades obligadas por este Decreto Foral, se garantizará la presencia y el uso del euskera en todos los aspectos comunicativos del acto o evento (publicidad, información y atención al público, megafonía, comentarista, páginas web, redes sociales, cartelería, señalética, etc.).

Y ahí puede estar la clave. La ley dice que hay que “garantizar la presencia del euskera”, pero no dice que deba ser en el mismo nivel ni nada similar, y mucho menos dar un lugar preferente a la lengua minoritaria, en este caso al euskera.

La ley no nos ampara o no nos da herramientas para priorizar e impulsar nuestra lengua, cultura y costumbres en estos eventos internacionales de dimensiones gigantescas. Desde EH Bildu creemos que no estamos protegidas legalmente. Estamos en manos de la voluntad de los organizadores, de la sensibilidad, o de una simple decisión, y eso no se puede permitir. Menos aún cuando entre el Ayuntamiento de Bilbao y esta Diputación vamos a gastar más de tres millones setecientos mil (3.700.000) euros de la ciudadanía vizcaína. Por ello, traemos a este parlamento la presente proposición no de norma.

Hay que decir que, en este caso, el acuerdo que ha firmado la Diputación es meramente económico, y que el acuerdo para traer la final, en el fondo, lo firmó la Federación Española de Fútbol con la UEFA. Este acuerdo lo recibimos ya hecho, y desde EH Bildu creemos que hemos tenido que aceptarlo sin más alternativas.

En la pregunta que formulamos, pusimos algunos ejemplos que daban cuenta de nuestra indefensión, y los volveré a recordar.

Unai Rementeria, anterior Diputado General, destacó el protagonismo del euskera al hacer balance de los premios MTV: «Pedimos a los organizadores que hicieran un ESFUERZO con el euskera y con nuestra identidad, y cumplieron con lo solicitado».

Como la Diputación no es organizadora, se pide a los promotores que hagan gestos en cuanto al tratamiento del euskera y de la cultura vasca, pero como decía la anterior diputada de Cultura, Deporte y Euskera, Lorea Bilbao: «Hay que reconocer que, en muchas cosas, nosotras no podemos garantizar».

Por eso insisto en que hemos traído esta moción para evitar la indefensión. Y quiero añadir a estos ejemplos el anuncio que aparece en la página web de la Federación Española: “*egizu bat Championserako boluntarioakaz*”, en castellano, claro. “*UEFA Champions Leaguerako 280 boluntario behar dira. Onerako baloratuko da*”, nunca está prescrito, en ningún sitio hemos mencionado el euskera, “*onerako baloratuko gaztelania, euskara eta ingelesa jakitea*”. Insisto, “*onerako baloratuko da*”.



Necesitamos políticas valientes para proteger nuestra lengua y nuestra cultura. Los ejemplos de Catalunya o Flandes los tenemos bastante cerca, y nos pueden ser útiles. La garantía que tienen de sus instituciones para la protección de la lengua contra la presión asimilacionista de la lengua mayoritaria. Ayudan a prevenir la infiltración y protegen los derechos de las minorías. No perdamos estos ejemplos.

Gracias. Continuaré en el segundo turno.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Goñi Lacar.

Tiene la palabra el portavoz del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señor Vaquero Moreno.

El Sr. **VAQUERO MORENO** jaunak: Gracias señora Presidenta. Buenos días.

Eusko Jaurlaritzaren webgunean azaltzen dan lez, Euskadik bere ikurrak aukeratu dauz, eta euskera ezinbesteko elementua da euskal ondarean, euskal herriari nortasuna emonez. Euskera bizirik dagoan hizkuntza da, Europako zaharrena eta historiari handiena daukana, mundu osoan 750.000 personak baino gehiagok berba egiten dabe.

Elkarrekin Podemosen ustez, euskera ondarea da, euskal kulturaren eta haren adierazpen askearen ondarea eta funtsezko zatia. Baita eskubide eta aukera gisa be, komunitade inklusiboa sortzeko eta gura diran gizarte-aldaketak sustatzeko. Euskeraren erabileraren aldeko apustua egiten dogu, bai eremu pribaduan, bai eremu publikoan, edozein personaren oinarritzko eskubideen eta Euskadiko ondare immaterialaren parte dala ulertuta, eta, beraz, funtsezkoa da erabilera erraztea eta sustatzea, horretarako behar diran neurriak jarritz.

Begira, guk argi daukagu personok gure identitatea sortzen dogula besteek sozialki zelan hautematen gaituen kontuan hartuta, eta baita beste batzukaz identifiketako moduan be, komunitade baten parte eta integratuta sentiduz. Talde jakin bateko kideakaz batzen gaituen ezaugarrien arabera, litekeena da talde horregaz identifiketea, ezaugarriotan zeozer handiagoaren parte izateko proba gisa ikusten dogulako. Eta horixe da, hain zuzen be, Goñi Lacar andreak aurkeztu dauen mozinoagaz eskatu dauena.

Como saben, yo no hablo euskera. Así, aunque soy ‘belarriprest’, no sé hablar euskera con fluidez, y eso me limita en mis relaciones, en mi trabajo, en mi vida personal.

Por ello, en mi opinión son necesarias todas las medidas que se promuevan para impulsar el uso de la lengua vasca en todos los ámbitos. Es decir, que la gente sepa que en este país el euskera no sólo permite conocer una cultura especial, sino también integrarse en una sociedad más plural.

Bunburyk bere atzerriko abestian kantetan ebana esatea gustetan jatan arren, “Ez aberririk, ez banderarik, ez errazarik, ez baldintzarik, ez mugarik, atzerritarra naz”, sinboloak beharrezkoak dirala uste dot, emozinora eta pertenezkiara eroaten zaituelako, beti be kontuan izanda sinbolo horreek ez dirala baztertzaila bihurtuko.

Beraz, gure aldetik mozino honen puntu biak babestu baino ezin dogu egin, nahi-ta autortu behar dodan euskeraren aurkako erasoarena, justifikazino-zatian, apur bat



larregizkoa egiten jakula, batez be kontuan hartuta lau dirala gai honegaz zarata egin gura dabenak.

Podemosen beti defendidu izan dogu oraindino pausu asko geratzen jakuzala autortzeko, euskerearen ezagutza eta erabilerea handitzeko eta sendotzeko gure eguneroko bizitzako, lanbideko edo erakundeetako arlo guztietan, eta persona guztien hizkuntza-eskubideak errespetauak izan daitezcan. Oinarrizkoa da abian jartzen dan edozein hizkuntza-politikak herritarren zati bat inoiz ez baztertea, eta herrialde honetan koofizialak diran hizkuntzak aukera-bardintasunean bizitzea.

Horregaitik, erakundeok aukera bardintasun hori sustatzeko eskaintzen jakuzan aukerak aprobetxau behar doguz, bereziki hizkuntza gitxituena, eta hainbat eremutan baztertua izateko arrisku handiena dauena, eta hori euskera da. Hizkuntza-arrakala oindino be badago, ez ikusiarena egitea edo minimizetea ardurabakokeria litzateke. Euskera gure hizkuntza da, gure aberastasuna da, harro sentiduteko moduko aktibo kultural identitarioa da, eta ez da inoiz erabili behar zatiketarako tresna politiko gisa, ezpada gure Herriaren eta gure jentearen aberastasun gisa, komuniketako, kultura truketako eta alkar ulertzeko bide gisa.

Beraz, gure hizkuntza benetan normalizetako, oso garrantzitsua da erakundeek behar diran neurriak hartzea. Elkarrekin Podemosen oso argi daukagu bultzadaren alde lan egin behar dala, eta ez dogula erabileran eta ezarpenean atzerapausurik onartu behar. Eta, zentzun horretan, hain proiektino publikoa daukien espazioetan, adibidez kulturean eta kirolean, egoera ezin hobea aurkitzen dogu helburu horretarako. Eta, horregaitik, mozino deribadu honetan proponiduten diran neurriak babesten doguz, UEFA Champions Leagueko finalak, nazinoarteko proiektinoa dauen kirol-ekitaldiak dirala eta.

Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Vaquero Moreno.

Tiene la palabra la portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, señora González Diez-Andino.

La Sra. **GONZÁLEZ DIEZ-ANDINO** andreak: Eskerrik asko mahaiburu andrea. Egun on guztioi.

EH Bilduko Batzar Nagusietako ordezkariak gaur Osoko Bilkura honetara ekarri dauen mozinoa irakurrita, argi geratu jat zein zan egoerea, baina bere berbaldia entzunda, berretsita geratu jat. Mozinoa eta bere defentsa, Lacar andrea, larregizko eta testuingurutik aterata dagozan egoeretan oinarritzen dira, eta onetik aterata be, esango neuke. Kontuz kontuz lotutako alderdi eta egoerak defendidutean edo zuzentzean katramilatu zarala Pentsarazoten deust, ze kexa egitea nazinoarteko ekitaldi baten publizidadea egitearren, ingelesez markau, seinaletearrean, gauzak bere onetik atera eta puztu gura izatea da, benetako heldulekurrik barik biktimizetako.

Mozino honetan, lehenengo eta behin, eskaria justifiketako “Euskerea, kulturea eta gure nortasuna errespetau eta bultzatzeko aprobetxau beharko litzateke” esaten dozu, kirol ekitaldi handi horreei buruz. Zure mozinoak ez dino UEFA Woman Champions Leagueko eta UEFA Europe Leagueko finaletan uri anfitrioiaren (Bilbo) irudi ona bultzatzeko aprobetxau beharko litzatekezanik, ezta Bizkaia probintzia zoragarriaren irudia bultzatzeko be. Ez dozu esan merkataritzaren profesinonaltasuna edo ostalaritzaren maila ona bultzatzeko aprobetxau behar danik. Ez dozu esan Lurraldean zehar dagozan museo ikusgarriak eskaintzeko



aprobetxau beharko litzatekenik, eta ez dozu berba egin bisitetako moduko hamaika paraje ikusgarriri buruz.

Mozinoak ez dau aitatzen UEFAko finalak garraio publikoa indartzeko aprobetxetea, edo final horreek ospatzen diran bitartean egoiliarren bizitza arruntaren funtzionamentua babesteko protokoloak egitea, ez. Mozino horrek ez dau eskatzen ekitaldi handiak hobeto aprobetxetea, mundu osoan milioika ikusle egongo diralako pantailen bidez, gure Lurraldeko publizitatea bider 100, 1000 eginez, eta gu ezagutzera, proiektu barri bati ekitera, zergaitik ez, gugaz instalatzera etorteko beharra sortzea. Ez, horretaz ez dau ezer esaten.

Ez dozuez gure ontasun eta nolakotasun apartak saltzen, baizik eta gure, zuen, gure lurrari buruzko ikuspegi itxi, lerratu eta are interesatuan zentrau zara. Guk, Alderdi Popularrak, nazinoarteko Bilbo erakutsi gura deusagu munduari, eta ez Bilbo nazional independentista. Guk Bizkaia danontzat defendiduten dogu, gitxi batzuen Bizkaiaren aurrean, eta hori da, hain zuzen be, mueta honetako mozinoen bidez bilatzen dozuena.

Eta, hasieran esan badot holako ekimenak aurkezteko alegiazko egoeretan, edo larregizkoetan, edo interesautakoetan oinarritu zariela, oraindino justifikazino hurrengo esaldia irakurtea falta jakulako da, justifikazino horrek 6 esaldi daukaz guztira, eta 2 diran modukoak dira. Edozelan be, bat ez gatozen esaldia honako hau da, komatxoak zabaltzen dodaz "kontuan izanda euskerearen kontrako eraso bizi dogula". Baina nondik ateraten dozue holako baieztapena, jaun-andreok? Euskera, irakaskuntzako hizkuntza hezkuntzan, euskera ikasgai moduan, euskera ezinbesteko betekizuna enpleo publikoaren eskaintza ia guztietan, euskera komunikazino ofizial eta pribaduetan, euskera karteldegi guztietan, metroan, kaleetan, mapetan, euskera ekitaldi eta sari guztietan.

Euskera presente dago euskaldun guztien eguneroko bizitzan hizkuntza koofiziala dan aldetik, baina egia da ez dagoala errealidadean gura dozuen beste, hau da, oindino euskaldunen gehiengoak nahiago dau gaztelaniaz berba egin, nahi-ta bi hizkuntzak ezagutu. Eta hori ezin dozuen kontrolau eta horrek artegatzen zaitue. Horregaitik, hemen be osoko bilkura bakotzeko ikusten dogu, eta zuetako gehienok irratian edo telebistan egiten dozuezan esku-hartzeetan, aukeratutako hizkuntza gaztelania da kasuen %90ean, nahiz eta hizkuntza biak menperatzen dozuezan, baina zuek gaztelania aukeratzen dozue. Eta atzo bertan, Europako hauteskundeetako zerrendako kide batek, Etxebarrieta andreak, Europako hauteskundeetako eztabaida baten parte hartu eban Batzarretxean, eta arratsalde on eta eskerrik asko izan ezik, gaztelaniaz egin ebazan bere berbaldi guztiak, berak aukeratuta.

Eta neure buruari galdetzen deusat: zergaitik obsesinatzen zarie mundu guztia behartzen, zuek sustatzen dozuena egiten, zuek behartzen dozuena ez esatearren, ereduagaz prediketean ez dozuenean? Barriro dinot hizkuntza erasotua eta txarto trataua saltzea asmakizun bat besterik ez dala, edo oroitzen txar bat, gaur egun euskal kulturak eta identidadeak ez daukielako Juana de Arcoren beharrik mozino honegaz. Euskal kultura eta identitatea egunerokotasunean behar dan lez txertatuta dagoz, eta gainerako komunitate eta herrialdeek oso ondo ezagutzen eta miresten dabez, ondo baino hobeto dakielako zelakoak garen hemen, abegikorrak, lagunez, kanpoko jaiez, nazinoarteko jai handiez eta gure auzoetako jai txikiez gozetea gustetan jakunak. Badakie gure tradizioak, dantzak, esaerak, kultura idatzia, mintzatua eta baita kantaua be sustatzen eta gozatzen doguzala. Euskalduna berezko marka da, tira daukana, eta harro egoteko modukoa. Ez etorri herri biktimen postu mingarriakaz, ez garalako holakoak. Geureagaz harro gagozan Lurralde Historikoa gara, eta errespetu handia deutseguna besteenari.

Lehen esan deusut, eta barriro dinotsut, arrakastaren, bizikidetzaren eta zoriontasunaren oinarria dalako. Guk Bizkaia danontzat defendiduten dogu, kasu honetan nazinoarteko Bilbo anfitrioi dala. Beraz, ez dogu ulertzen, ez gatoz bat, eta ez dogu zure mozinoak puntuak onartzeko ezelako beharrik ikusten, irakurleari nahasmena baino ez



deutsielako sortzen, ze danok dakigu, euskal ezaugarriak guziak ez gaituela defendiduteko behar, bere kabuz distira egiten dauelako.

Eskerririk asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora González Díez-Andino.

Tiene la palabra la portavoz del grupo Euskal Sozialistak, señora Campo Prieto.

La Sra. **CAMPO PRIETO** andreak: Gracias señora presidenta. Buenos días.

Aurreko parte-hartzaileek esan daben moduan, EH Bilduk itaunetik eratorritako mozino bat dakar, gure Lurraldean nazinoartean eragina izango daben ekitaldiak eta euskerea, kultura eta nortasuna sustatzeko aukerea dala-ta. UEFAko, datorren zapatuan jokatu dan Women Champions Leagueko finala, eta 2025ean jokatu dan Europa Leagueko finala ditu ardatz. Mozinoan, Aldundiari euskerea, kultura eta identitatea bultzatzeko neurriak hartzeko eskatzea proponiduten da, baita etorkizunean egingo diran ekitaldien kontratuetan kulturaren eta kirolean euskerea errespetetako eta sustatzeko klausulak sartzea be.

En primer lugar, queremos destacar que el evento futbolístico femenino más importante de Europa tendrá lugar en Bizkaia, concretamente en Bilbao, una oportunidad inmejorable para reivindicar nuevamente la igualdad entre mujeres y hombres. La lucha por la igualdad en el deporte nos parece un evento inspirador.

Lehenengo eta behin, azpimirratu nahi dugu Europako emakumeen futbol ekitaldirik garrantzitsuena Bizkaian izango dela, Bilbon hain zuzen. Aukera ezin hobea berriro ere emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna aldarrikatzeko. Kirolean berdintasunaren aldeko borrokarako ekitaldi inspiratzailea iruditzen zaigu.

Emakumeek jokatzen daben futbolaren sustapena eta ikusgarritasuna ezinbestekoak dira euren hazbidean, egiteko modu patriarkalak eta zaharkituak aldatzeko, kirolean berdintasuna lortzeko bidean oztopoak hausten jarraitzeko, eta ekitaldi honek dakarren aukera futbolearen olgaur gura daben neskei baliabide eta laguntza gehiago emateko.

Hori esanda, gu bat gatz ekitaldi horreek oihartzun handia izango dabela eta aukera parebakoa izango dala gure lurraldea sustatzeko, bai Bilbora hurreratuko diran milaka lagunek, bai nazinoartean ikusle izango diranek, zer garen, gure kultura-aberastasuna eta gure nortasuna osotzen daben balioak, berdintasuna eta aniztasuna ikusi daiezan, Bizkaiko gizartearen ezaugarri diran balioen eta ezaugarrien moltsoa definitzen deuskuen funtsezko balioak diran aldetik.

Sozialistak bat gatz ekitaldi horiek oihartzun handia izango dutela eta aukera paregabea izango dela gure Lurraldea sustatzeko. Bilbora hurbilduko diren pertsonen eta nazioartean ikusle izango direnen zergaren gure kultura, aberastasuna eta gure nortasuna osatzen duten balioak ikus ditzake; berdintasunak eta aniztasunak definitzen gaituzte funtsezko balio gisa. Eta bat gatz, halaber, euskarak definitzen gaituela, eta gure nortasunaren eta kultura aberastasunaren parte dela. Beraz, Bizkaian egiten den edozein ekitaldian egon behar duela.

Compartimos que el euskara nos define y que es parte de nuestra identidad y de nuestra riqueza cultural. Por lo tanto, tiene que estar presente en cualquier evento que se



desarrolle en Bizkaia. Y, por supuesto, la oportunidad que ofrece a Bilbao y a Bizkaia ser escenario de los próximos eventos deportivos, tiene que ser compatible con la promoción del euskara, y es obligación de las instituciones aprovechar la visibilidad que estos dan para fomentar la cultura, el deporte y la lengua como elementos fundamentales, de cohesión de oportunidades, y de derechos para las ciudadanas y los ciudadanos.

Aukera horrek bateragarria izan behar du euskararen sustapenarekin, eta erakundeen betebeharra, eta ekitaldi horiek kultura, kirola eta euskara sustatzeko ematen duten ikusgarritasuna aprobetxatzea herritarrentzako kohesioa, aukera eta eskubideen funtsezko elementu gisa.

Beraz, ados gagoz EH Bilduk dakarskun mozinoaren oinarriagaz. Halanda be, ez dogu babestuko, ez dogu babestuko, ez gatozelako bat proposamenaren zati bategaz, eta ez gatoz bat proposamenaren justifikaziotik eta motibaziotik ondorioztatzen danagaz be. Kontroleko Osokoan, mozino hau eragin dauen itaunean EH Bilduko ordezkariak 2018ko Osokoan lortutako akordio batera eroan gaitu. Uste dogu orduan sortu zan eztabaida bat errepikatzen gabilzala.

Bost urte igaro dira eta Aldundiak hartutako konpromiso ha indarrean dagoala uste dogu, eta holan erakusten dabe orokorrean ezarri diran politikek, baita kirol-ekitaldien ugaritasunean be, alde batetik Lurraldearentzako itzulera ekonomikoa eragin dabenak eta, bestetik, Bizkaiaren potentzialtasuna, Lurralde modernoarena, bere hizkuntzeagaz, kultureagaz eta berezitasunagaz ikusarazo dabenak.

Euskeraren presentzia sustatzeko konpromisoa, Aldundian ezeze Bilboko Udalean be agirikoa da, gaur hizpide doguzan ekitaldiak antolatzeaz arduratzen dan erakundeetan, plangintzaz arduratzen da, uri anfritioi moduan, eta UEFAgaz eta gainerako erakundeakaz koordinata. Eta badakigu oso konplejua dala horrelango ekitaldiak antolatzea eta ezarritako eta gura diran helburuak betetea. Baina badaukaguz eskubideak eta euskeraren presentzia zeharka bermatzeko balio daben araudiak eta hizkuntza-politikak, eta ezerk ez deusku pentsarazten beteko ez diranik.

Mozinoa babestea, zeozelan, ekitaldiotan ez dala euskeraren erabilera eta presentzia bermatzen onartzea litzateke, eta ez dirala aprobetxetan kultura eta kirola sustatzeko eta babesteko eskaintzen dabezan aukera horreek.

Eta zuen balorazioak guztiz errespetatuz, ez gatoz bat zure esku-hartzean eta gaurko interpelazioaren zein mozinoaren justifikazioan eta motibazioan susmetan diran zenbait eretxigaz, ezta euskeraren egoerari eta aitutzen dozuezan hizkuntza-eskubideen urraketari buruzko baieztapen batzukaz be.

Sí compartimos, sin embargo, la necesidad de seguir reflexionando sobre cómo afrontar los retos que tiene el euskera, sobre cómo fomentar su uso natural, y asegurar su transmisión desde una perspectiva de cohesión e inclusión.

Euskarak dituen erronkei nola aurre egin, euskararen erabilera naturala nola sustatu, eta transmisioa nola ziurtatu hausnartzen jarraitzeko behararekin bat gatoz, kohesioaren eta inklusioaren ikuspegitik betiere. Horri buruz hitz egiteko prest egongo gara beti, orain arte egin dugun bezala.

Nire aldetik, momentuz, besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Campo Prieto.



Tiene la palabra la portavoz del grupo Eusko Abertzaleak, señora Landa Gaubeka.

La Sra. **LANDA GAUBEKA** andreak: Gracias señora Presidenta. Señoras y señores diputados forales, junteros y junteras, buenos días.

Estamos totalmente de acuerdo con las bases que se plantean en esta moción, pero no con el punto de vista que se da al tema. Por eso, nuestro voto será negativo.

Señora Goñi Lacar, el cartel citado no está en bilingüe, está íntegramente en inglés. Ahí ha hecho un poco de trampa, el logotipo está sólo en inglés, está claro que le gustaría que estuviera en inglés y en euskera, pero no está en nuestra mano, o no ha estado en nuestra mano.

Ahora trataré de volver a explicar nuestra postura. Con motivo de la final de la Liga del Campeonato UEFA femenino que se celebrará el 25 de mayo en San Mamés, la señora Arrizabalaga Arruza dijo en la Asamblea del mes pasado que creemos en una Bizkaia abierta, conectada con el mundo, y en un territorio que aprovecha las oportunidades que ofrece. Seguimos abiertos a la difusión e impulso de eventos que atraigan talento e inversiones a nuestro territorio. Y no sólo eso, tenga por seguro, señora Goñi Lacar, la oportunidad que nos brinda ese evento de mostrar por todo el mundo y poner en valor la importancia y la difusión de nuestra lengua, nuestra cultura, nuestra identidad.

En los últimos años en Bizkaia se han realizado actuaciones a nivel internacional. No hay que olvidar que en este caso colaboran diferentes instituciones, y cuales son las responsabilidades que recaen sobre cada una. Como explicó la diputada foral Arrizabalaga Arruza, estas son las obligaciones de cada una.

Emakumezkoen final hau egiteko uri anfitrioiaren akordioak UEFAk, 2023/2024 UEFA Women 's Champion League-ren eskubideen jaubeak, Espainiako Futbol Federazioak eta uri anfitrioiak, hau da, Bilboko Udalak, finala antolatzen zelan laguntzen daben jasoten dau. Beste alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak, 2023ko azaroaren 23an, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Bilboko Udalaren eta Bilbao Ekintza ETren artean 2023/2024ko UEFA Champions League-ren finalaren antolakuntzari buruzko lankidetzaren hitzarmena sinatzea onartu eban.

En virtud del presente convenio, Bilbao Ekintza actúa como entidad instrumental dirigiendo la final de la UEFA Womens Champions League 2023/2024, en contacto con la RFEF y la UEFA. Bilbao Ekintza LEP, como sector público, en el ejercicio de sus facultades, y siendo imprescindible sobre la base de lo que regulan las políticas lingüísticas, ha solicitado que todas las comunicaciones internas y externas se realicen, al menos, en euskera y castellano. En este sentido, ha solicitado que todas las comunicaciones que se realicen en el ámbito externo por parte de la RFEF y la UEFA se realicen en euskera y castellano.

A nivel interno, en el ámbito del sector público, las instituciones vascas, al menos, hemos realizado todas las comunicaciones en euskera y castellano. Por lo tanto, en relación con la final de la UEFA Womens Champions League 2023/2024, en cumplimiento de la legislación vigente en materia de uso del euskera, la publicidad, publicaciones, carteles, notas y similares, de carácter informativo o divulgativo, cualquiera que sea su soporte, se difundirán en las 2 lenguas oficiales de Euskadi.

Somos conscientes de que es tarea nuestra la implicación de los agentes internacionales en la defensa de la lengua y la cultura, que también es nuestra labor, y en ello estamos trabajando intensamente.



Sin más, luego seguiré. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Landa Gaubeka.

Pasamos al turno de réplica. Tiene la palabra la portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, señora Goñi Lacar.

La Sra. **GOÑI LACAR** andreak: Empiezo con la diputada Vaquero de Elkarrekin Bizkaia. Atrévase por lo menos a leer más veces en euskera, como hago yo, te animo a leer.

Aurkeztu genduan mozinoari buruzko azalpenean, esan zenduan zarata iruditzen jatzula euskeraren aurkako eraso bat dagoala esatea. Jakina, Herri Administrazioan langileak egonkortzeko prozesu asko atzera botatea, edo prozesu batzuk bertan behera ixtea, ez jaku iruditzen zarata danik, oso gauza larria da.

González Diez-Andino andreari jagokonez, zugandik ez neban besterik espero. Nahiago neuke euskera leku guztietan balego, nahiago neuke leku guztietan balego, gure obsesinorako kontau dozun eszenatoki ideal horretan, nahiago neuke.

Eta PSOEko batzarkide dan PSOEko andrearen aldetik, euskerea leku guztietan dagoala dinozu, baina benetan ez da holan eta gero eta leku gitxiagotan dago.

Me gustaría empezar con las palabras de Idurre Eskisabel, presidenta de Euskalgintza Kontseilua, escritas en un artículo de opinión publicado en Berria:

“Para garantizar la normalización y la revitalización del euskera, el impulso de la ciudadanía debe convertirse en una política lingüística sólida: en políticas públicas eficaces, potentes y, sobre todo, sin complejos, tanto en lo que se refiere a la normativa como a los recursos que se destinan a ella. Es decir, hay que actuar de la misma manera que en el resto de áreas consideradas prioritarias y estratégicas para la construcción de país”.

Y traigo aquí las palabras de la diputada del PNV: “no está en nuestras manos, no ha estado en nuestras manos”. Y eso es lo preocupante.

Erakundeok berariazko ekimen eta akordio politikoak garatu behar doguz, hizkuntza-egonkortasunari eta -aniztasunari laguntzeko, baita jagokuzan final horreetan eta etorri daitekezan etorkizuneko ekitaldietan be. Izan be, hizkuntza gitxituak, gure kasuan euskera, danok dakigunez gure aberastasun eta aniztasun kulturalaren adierazgarri dira, eta bizkaitar guztion diruagaz diruz laguntzen doguzan ekitaldi handi honeek gure kultura eta hizkuntza erakusteko eta defendatzeko erakusleiho bikaina izan behar dabe.

Desde el desconocimiento, nos hacemos varias preguntas. En las hipotéticas iniciativas que llevará a cabo la Diputación ¿se ha tenido en cuenta que en la final habrá muchos aficionados venidos de fuera? Es decir, ¿se ha previsto alguna iniciativa en las actividades, para mostrar o explicar nuestra lengua y nuestra cultura a la gente proveniente del extranjero? Estas son las preguntas que lanzamos. porque las iniciativas que se llevan a cabo muchas veces sólo se hacen desde una perspectiva interna, y al tratarse de un evento internacional también habría que tener en cuenta este otro aspecto. Cuando los extranjeros que vienen regresan a sus países deberían tener claro que aquí nuestra lengua también es el euskera, y que nuestra base es la cultura vasca. Y eso es también nuestro trabajo.



Hemos dejado claro que no disponemos de recursos suficientes para respetar los derechos de los vascoparlantes y proteger nuestra lengua y nuestra cultura sin asimilaciones, porque muchas de las variables no están a nuestro alcance. Será difícil afrontar la situación totalmente, si no cambiamos los instrumentos que tenemos entre manos. Necesitaríamos nuevas herramientas para avanzar, y el camino es ponerlas en marcha. Queda un año para la final de la UEFA Europa League, esperemos que el Athletic esté en esa final, y entre tanto pongámonos a trabajar para garantizar que nuestra lengua, nuestra cultura y nuestra identidad se respeten, se difundan y se impulsen.

Y siguiendo nuestra obsesión de la señora González, obsesión mayoritaria en esta Cámara, y la obsesión de las mayorías de los vizcaínos y vizcaínas, voy a hacer una propuesta a esta empresa VISA. Ha dicho que Victoria y Gloria son nombres de mujer, pues yo le propongo que Ekiñe (Esfuerzo), Nahia (Voluntad, Deseo, Ambición) y Viktoria, con 'k' por supuesto, son nombres de mujer. Y con eso acabo.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Goñi Lacar.

Tiene la palabra el portavoz del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señor Vaquero Moreno.

El Sr. **VAQUERO MORENO** jaunak: Muchas gracias.

Saiatzen jarraituko dot, Goñi andrea, irakurten, idazten, pentsetan, berba egiten, saiatzen jarraituko dot.

Nik erantzun hau apur bat aprobetxau gura dot González andreak egin dauen moduan egiteko, baina kontrako zentzuan. Hau da, Elkarrekin Podemoseko alderdiaren ikuspuntutik, ekitaldi handiak egiten diran bitartean ez da beharrezkoa bakarrik euskereak, identidadeak eta euskal kulturak presentzia izatea. Guk uste dogu hori betebeharra izan behar dala Bizkaian holako ekitaldi bat antolatu gura dauen edonorentzat. Izan be, kasu honetan gertatzen dan moduan, antolatzailea Bizkaiko Foru Aldundia bera ez bada be, babesleetako bat da, eta, beraz, diru publikoa jarri dogu ekitaldiaren esku.

Gure ustez, dirulaguntzak jasoteko edo Herri Administrazioagaz hitzarmenak sinatzeko egiten dan lez, hizkuntza-politika bete behar da; halako kasuetan, gertaera handietan, ezin dira salbuespena izan. Nire taldea ez da, hain zuzen be, holango ekitaldien defendatzaile porrokatua, nire kideak lehen be esan dauanez, baina, indarrean dagoan legedia bete behar dabe, behintzat, bai hizkuntza arloan, bai lan arloan. Eta bigarren hori be ez da jazoten batzuetan.

Adibide bat jarriko deusuet: San Mamesen, estadio osoan zehar dagozan tabernen barruan, normalean Unibersidadean ikasten daben neska-mutilek lan egiten dabe, eta, tarteka, holako lanpostuakaz, halako ekitaldietan behar egiteko deitzen deusie. Badakizue zenbat balio dauen garagardao katxiak, litro bat garagardaoak? Alkoholik bako garagardaoak? Ze badakizue ezin dala alkoholik edan, batzuetan izan ezik, edo dirua badaukazu VIP gunera joateko. Garagardao katxi batek 10 euro balio dau, edalontzia aparte, jasangarritasunaren kontuagaitik.

Badakizue zenbat ordaintzen deusien ordua zuei zerbitzaten deusueen neska-mutilei? 8,65 euro. Hori bai, adeitasunez eta euskeraz zerbiduko deusue, ziur euskeraz. Hau da, lanordu bat merkeagoa da garagardao litro bat baino. Berba egingo dogu honetaz guztiaz, seguru, Ekonomi Sustapen Sailari egingo deusadan beste itaun baten.



Beste alde batetik, eta amaitzeko, ekitaldi horreetako batzuek daukien itzuleraz galdetzen dogunean, EAJk beti erantzuten dau Bizkaia mapan ipinten dabela, eta egia da. Ba, jarriko danez, behintzat ez gagiezala zezen edo orrazi bategaz lotu. Eta horretarako, gure kultura eta hizkuntza ezagutarazo behar doguz, gu geu izatea egiten dabenak.

Azken baten, esan dogun moduan, mozinoaren alde egingo dogu, baina, batez be, mozinoan eskatzen dana beteten dala zainduko dogu, eta, horregaz batera, generako arauak beteteari be adi egongo gara.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Vaquero Moreno.

Tiene la palabra la portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, señora González Diez-Andino.

La Sra. **GONZÁLEZ DIEZ-ANDINO** andreak: Eskerrik asko mahaiburu andrea.

Ez dpt barriro esku hartzeko asmorik euki, baina hain interesauta ikusten zaituet esan dodala, ez, ez zaituet gogoagaz itxiko. Egia da gobernu taldeagaz bat natorrela ahaleginak egiten dirala, eta asko, eta dirua inbertiduten dala, asko be bai, eta euskera sustatzeko ekintzak, piloa, egiten dirala. Halantxe da, izen be hori une oro egiten da, ordu guztietan, erakunde guztietatik, Alderdi Sozialistako eta Euzko Alderdi Jeltzaleko ordezkariak defendidu daben moduan. Beraz, ez naz ni, ezta Alderdi Popularra be, euskeraren errealidadea ukatu gura dauena, zuek zarie zentzun horretan hizkuntzaren errealidadea behartu gura dozuenak, kexetako atxakia eukiteko. Izan be, Ganbera honetan argi geratu da, mozinoa onartzen ez bada, daborduko egiten dalako dala.

Oindino be esaten dot zuen neurritz kanpoko obsesino-jarrereagaz, hizkuntzari min baino ez deutsezuela egiten, ez dozue hizkuntza maitatzen eta gozetan irakasten, uko egiten baino, inposaketa eta betebeharrak bategaitik. Horregaitik berba egin da hemen, arazoa erabilteko modu naturala aukeratzean dagoala, jakiteko aukeratzean baino gehiago. Beraz, nik uste dot argi dagoala danok gagozala euskaldun ezaugarriak nagusi izatearen alde harro egoteko orduan, hori garelako, baina guk hori maite izanda defendiduten dogu, eta zuek inposatuz.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora González Diez-Andino.

Tiene la palabra la portavoz del grupo Euskal Sozialistak, señora Campo Prieto.

La Sra. **CAMPO PRIETO** andreak: Gracias de nuevo.

Barriro esango dot guztiz bat gatozala Aldundiak eta generako erakundeek euskerearen, gure kultur aberastasunaren eta Bizkaiko gizarte eta, beraz, euskal gizarte lez daukagun nortasunaren presentzia bultzatu eta ikusarazo behar dauela. Identidadea dinogunean,



euskal sozialistok pluraltasunaz berba egiten dogu, aniztasunaz. Memoria arabilgu, nondik gatozen, tradizioak, ezaugarriak, partekatutako identidadeak, errespetua eta tolerantzia. Gizarte bizi bat daukagu gogoan, sentimentu eta behar desbardinak daukiezan personak bizi diran lekua, eta, alkarregaz, gure nortasunari izaera eta nortasuna emoten deusaguz.

Kultura esaten dogunean, gaur garena izatea eragin daben jasotako herentzien emoitzak daukaguz gogoan. Gure kulturaz berba egiten dogunean, alkarbizitzaz, partekatzeaz, bilakaera historikoaz, sortzeaz, etenbako ikaskuntzarako edegitasunaz, mestizajeaz be berba egiten dogu.

Y si hablamos en euskera, los Socialistas Vascos estaremos siempre a favor de los derechos de la sociedad vasca a vivir en euskera. Hemos estado en todos los convenios y avances conseguidos. También estaremos siempre a favor de la libertad lingüística, es decir, del derecho de cada uno a decidir en qué lengua comunicarse.

Estamos de acuerdo en que son las Instituciones las que tienen que proteger las lenguas, y las que tienen que impulsar el uso del euskera, y entendemos que así lo están haciendo. Pero hace falta colaboración y consenso para lograr la normalización del euskera y para eso, tenemos que sacarlo del conflicto político.

Ez gatoz bat euskeraren egoerari buruz gaur azaldu dan ezkortasunagaz, kontrara baino. Gure ustez, eztabaidak ez dau izan behar euskerea alkarri jaurtitzeko, euskeraren liskarra eta erasoak atera egin behar dira, ezin da barriro euskera konfrontazinarako elementu bat izan.

Euskerak gaur egun daukazan erronkak ez dira ez ekitaldiak, ez nazinoarteko ekitaldi baten gitxiago edo gehiago agertzen dan. Euskeraren erronkak dira euskera dakigun, edo euskera dakigun guztiok kalera jatsi eta berba egiten dogun. Eta, horretarako, danok alkarregaz egon behar dogu, adostasun bat izan behar dogu, eta adin bat dogunok, eta oin dala 40 urte baino gehiago ulertu genduan oso garrantzitsua zala euskera berreskuratzea eta guztion kontua zala, eta dagoeneko bakotxa gure esparru ideologikotik egiten genduala. Ez genduan uste gaur egun euskera dagoen tokian egongo zanik.

Guretzat mugarri bat da eta lorpen bat da. Adostasun baten emoitza izan da, oreken emoitza, eta ez da bape erraza izan, aniztasuna ondo kudeatzearen eta bakotxak lan esparrutzat hartutako espazioak ondo kudeatzearen emoitza izan da. Nire ustez, nonork euskaldun ona nor dan, euskaldun txarra nor dan, nondik egin behar dan edo ez dan lana, iruditzen jat ekarpenik egiten ez dauen eta euskerari mesederik egiten ez deutson garaietara itzultzea dala.

Jakina, aurrera egin gura badogu, adostasunetik abiatu beharko da, bakotxak bere eremutik, orain arte egin dan lez eta euskera dagoan lekura iristea lortu dan lez.

Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Campo Prieto.

Para finalizar el debate, tiene la palabra la portavoz del grupo Euzko Abertzaleak, señora Landa Gaubeka.

La Sra. **LANDA GAUBEKA** andreak: Muchas gracias señora Presidenta.



Ahora, con todos los papeles, intentaré profundizar un poco en lo expuesto en mi primera intervención. La DFB siempre garantizará el uso de nuestra lengua y la difusión de nuestra cultura dentro de sus competencias, es decir, en todas aquellas iniciativas que se encuentren dentro de su ámbito competencial, adoptando medidas con respecto a las instituciones locales y externas para impulsar nuestra propia lengua, cultura e identidad.

Y sí, señora Goñi, sobre los actos que ha mencionado, con motivo de la UEFA Champions League Femenina, voy a citar algunos ejemplos del comportamiento de la Diputación Foral de Bizkaia.

La Federación Vizcaína de Fútbol, con la colaboración de la Diputación Foral, ha organizado tres actos con motivo de este partido. En los tres se ha garantizado el euskera, la cultura y la identidad.

Y señor. Vaquero, no sé si toros y peinetas. Nosotros hemos contado en ese festival del domingo con Julen Guerrero, Iraia Iturregi, Clara Pinedo, Sara Ortega, y un largo etcétera; ahí están nuestros símbolos.

Por otro lado, siguiendo con ejemplos, el día 25 habrá un dinamizador euskaldun antes del partido, y habrá un concierto. El concierto correrá a cargo de un grupo vasco compuesto por mujeres. Y, en concreto, o más concretamente, para reforzar la respuesta a la segunda pregunta de su moción, la DFB siempre, y no sólo porque está obligada por la ley, sino porque está convencida, y como se ha dicho, esto no debemos olvidarlo, siempre en el ámbito de sus competencias, impulsará y garantizará el tema que ha motivado esta moción.

Por otro lado, Euskadi y Bizkaia están bien posicionadas internacionalmente porque no es la primera vez que se organiza algo así. Y gracias al trabajo previo, los agentes externos conocen y respetan nuestros símbolos, lengua, cultura e identidad.

Para terminar, me alegro de que vean este tipo de acciones también con buenos ojos y de escuchar su valoración positiva, porque no siempre ha sido así. Y también ahora, la valoración positiva sí, pero como ocurre muchas veces, con contradicciones. Valoración positiva sí, pero como se ha visto en el punto primero de esta Junta, sin aceptar las condiciones que conllevan este tipo de actos.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Landa Gaubeka. Terminado el debate, sometemos a votación la moción. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido 50 votos en total, 17 favorables, 33 en contra, no ha habido abstenciones. Por lo tanto, no se ha aprobado la moción.

4 punto del orden del día.

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.12/E/2024/0000858](#))

Autor: González Diez-Andino, Raquel

4.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([12/E/2024/0000858SE](#))

Egilea: González Diez-Andino, Raquel



(GPV/BTP)

Asunto: Proceso de construcción del futuro puente móvil All-Iron.

Documento Principal:
(R.E.12/E/2024/0000858)

Boletines: Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas (21A)

Expediente: (12/B/20/0001025)

(GPV/BTP)

Gaia: All-Iron zubi mugikorra eregiteko prozesua

Dokumentu Nagusia: (12/E/2024/0000858SE)

Aldizkariak: Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea (21A)

Espediente: (12/B/20/0001025)

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Por tanto, tiene la palabra la portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, señora González Diez-Andino.

La Sra. **GONZÁLEZ DIEZ-ANDINO** andreak: Eskerrik asko barriro, mahaiburu andrea.

Hainbat aldiz eztabaidatu da gaur barriro Osoko Bilkura honetara ekarriko dogun gai hau. All-Iron zubiko obren eragina Erandioko herritarrek martiaren 11n jasandako uholde handietan. Gai hau barriro ateratzen da hemen.

Auzokoen eta Aldundiaren arteko jarrerak ez dabe bat egin oraindino be, eta gure erantzukizuna da atril hau eskaintzea, gure mozinoaren bitartez, All-Iron proiektua barriro aldatzeko eskatzeko, kuota handitzeko eta, holan, etorkizuneko uholdeak saihesteko, eta, ganera, udalerrria hurrengo marea bizietatik babesteko preminazko neurriak hartzeko.

Behin baino gehiagotan azaldu danez, zezeilaren 12an itsasadarrak gainezka egin eban, eta ez eban kalte handirik eragin Erandion. Martiaren 11n, barriro be gainezka egin eban, eta, oraingoan, kontrolau ezin diran uholde handiak eragin ebazan, ezin konta ahala kalte lonjetan, garajeetan, atarrietan, saltokietan, autoetan eta abarretan. Kasu bietan, mareak antzekoak izan ziran: 5,19 lehenengoan, 5,21 bigarreanean, baina bigarren horrek bakarrik eragin ebazan kalte handiak. Eta zein zan data bien arteko alde bakarra? Aldundia egiten dabilen All-Iron zubiaren eraikuntzan egindako aurrerapenak. Aurrerapen horreetan data batetik bestera Itsasadarraren pasealekuaren aurrekalde osoa desegin zan, ur-goraldirako parapeto gisa erabilten zana, eta kota 10 cm jatsi.

Halanda be, Alzaga jaunak, Azpiegituretako diputadua danak, Osoko Bilkura honetan bertan esan dauenez, zezeilaren 11n eta 12an, marea altuakaz, ez eban gainezka egin, Erandioko pasealekua desegiteko obrea hasita eta dana erretirauta egoan arren. Baina hori ez da zuzena, Alzaga jauna. Eraispén-lanak zezeilean hasi ziran, bai, baina hilaren 12an itsasadarraren aurrekaldeko harlosazko lineala eta lorategien eta zintarrien eta lurrezko gorauneen atzekaldeko lineal osoa mantenduten ziran ibilbidearen zatirik handiengan, eta, beraz, fisikoki ia dana jatorriko egoeran mantenduten zan, eta, beraz, oindino defentsak egozan gainezka ez egiteko. Zuk ziurtatu zenduan zezeilean be guztiz deseginda egoala, eta hori beste proba bat zala esateko martian ez egoala ezbardintasunik zubiaren obretan, eta, beraz, ez egoala errurik Aldundiaren aldetik.

Baina baieztapen hori, barriro dinot, ez da zuzena. Jakina, Aldundiak guztiz zilegi dau aldeko txostenak aurkeztea eta erantzukizunetatik aldentzea. Baina zilegi da be auzotarrek informazinoa batzea eta euren txostenak eukitea, kasu honetan hareen aldekoak diralako. Erandioko udal-arkitektoaren hasierako txostenak, egunean bertan in situ egon zan eta ondoren bere txostena idatzi eban txosten baten sinatzaile bakarra izan zanak, argi eta garbi dino obra horreek erabagarriak izan zirala eta izan ziran tamainako uholde handiagoak eragin



ebezala. Aldundiak berehala egiten deutso uko erantzukizun orori, eta ziurtau egiten dau uholde hori marea bizien, itsasgoren, iretargiaren eraginen gertakari historiko baten ondorioa dala. Hain zuzen be, fenomeno kaltegarri horreen ondorioz, martiaren 11n danak bat egin eban, zubiagaz edo zubi barik, Erandiok uholdeak jasateko, zezeilekoen moduko ohiko uriolen ordeztu.

Baina herritarrek dinoe, eta proba grafikoak dagoz, martiaren 10ean be uholdeak izan zirala Erandion. Eta ez bakarrik urak gainezka egitea. Eta gogoratu behar da martiaren 10ean jazo zirala uholde horreek, 11koak baino txikerragoak, bai, baina uholdeak, ekatx perfekturik bakoak, aparteko marearik bakoak, beste txosten batzuetan aitatutakoak eta Aldundiak All-Iron zubiaren obra-prozesuaren eraginaren ganeko erantzukizunetatik librau ahal izateko oinarri moduan erabilitakoak.

Beraz, Aldundiaren erantzukizunaren ustezko deuseztasunaren zati handi bat be zehetasun horregaz bakarrik, zeozelan deitzearren, hondatu da. Era berean, hemen esan behar da URAREN txostenak uraldien arriskuari eta obrak zubiaren lurreratze-eremuko, oraingo ur-laminak baino 400 m² gehiago hartzen dauena, urbanizazio barriko ur-laminaren okupazioan izan daikkeen eragin-arriskuari baino ez deusela erreferentzia egiten. Eta URAK eragin hori aztertzen dau 100 urtera begira balizko uraldi baten aurrean. Baina hori ezin da erabili obrak ez daukala eraginik ziurtatzeko, azterketak obra amaituta hartzen dauelako kontuan, itsasadarraren okupazioagaz. Ez dau baloretan obra urratsez urrats egiteak eta marea biziak sartzeak izan leikien eragina. Beraz, ez gabiz berbaz ez gauza berari buruz, ez garai berari buruz. Eta URAREN azterlanak ez dator bat herritarrek salatutako egoereagaz. Azterlanak ez dau kontuan hartzen eraikitzen dan bitartean, eraikuntza amaituta baino. Era berean, ez dau balio Aldundiak erantzukizunik ez izatearen behin betiko proba gisa.

Eta beste txosten batzuk be badagoz. Bizilagunek darabilen Amillena Meteorologiako Euskal Elkartearen profesinonak egindako txostenak, 2023ko irailetik 2024ko apirilera bitarteko aldiaren izandako uholde eta gainezkatzei buruzko ikerketan parte hartu dabenean eta, bizilagunek txosten eta datu ofizialak lanaren hainbat egoera eta marearen frogakaz konparatu ondoren, ondorio hau ateratu dabe: *“Aldundiaren lana, All-Iron pasabidea, erabagigarria izan dala eta guztiz beharrezkoa izan dala Ibaizabal-Nerbioi itsasadarrak Erandion-Altzagan gainezka egitearen ondorioz izandako uholde larriak gertatzeko”*.

Zelan interpretauko dogu hori? Aldundiak badauka erantzukizunik ala ez dauka? Eta holan heldu gara Saitec-en txostenera, eta odisea izan da hori lortu ahal izatea, apirilaren 24ko azken Osoko Bilkuran zuk zeuk tribuna honetan ondorioak daukazuzala esan zenduan arren. Halan be, ia hilebete publiko egiteko. Txosten horrek zera dino: *“Ikusi da 2024ko otsailaren 18an eta martiaren 10etik 12ra jazo zirala erregistrautako serie historikoko marea bizi handienak, besteak beste, 2024ko martiaren 11n beste ibai-ekarpen batzukaz komitantzian, Erandion marea biziek eragindako uholde handienak izan ziran, 3,03 inguruko mailan”*.

Zezeilaren 11n, domekan, Eusko Jaurlaritzak berak ohartarazo eban goizaldeko itsasgora historikoa izan eitekeala, barriro be historikoa zezeilean, eta barriro historikoa martian. Hilebete guztiak ezin dira historikoak izan, hori joan dan Osoko Bilkuran esan genduan.

Eta, denporarik barik geratu nazenez, gurago dot hurrengo txandan jarraitzea, erdian moztu barik. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora González Díez-Andino. Tiene la palabra el portavoz del grupo Euskal Sozialistak, señor Jerónimo Moreno.



El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Buenos días, señora presidenta, egun on batzarkide guztioi, sare sozialetatik jarraitzen gaituzuenoi, eta eskerrik asko erakundeko beharginei eta hedabideei, Pleno hau posible egiten eta zabaltzen dozuelako.

Gaur, 2024ko martiaren 10etik 12ra bitartean Erandion izandako gertakari baten ondorioz planteautako interpelazino baten ondoriozko mozino bat aztertuko dogu. Gertakari horrek uholdeak eragin ebazan itsasadarraren mugakide dan udalerrri horretako eremu baten, zehazki Obieta eta Urdaneta kaleen inguruan.

Lehenengo eta behin, nire alkartasuna eta Talde Sozialista osoarena adierazo gura deusiet eragindako herritarrei, gure Taldearentzat lehenengo lehentasuna diralako, eta adierazo gura dot interesa daukagula ahalik eta lasterren, gertatu ez bada, konpentsau eta erantzun deiezan jasan dituen kalte guztiak, eta, beraz, nire esku-hartzearen lehenengo zati honetan babesa adierazo gura deusiet auzotarrei, preminaz ordaindu deien aseguruak edo Konpentsazio Partzuergoak, kasua bada, kalteak eta eragozpenak ahalik eta arinen konpondu daitezkan.

Bizkaiko Foru Aldundia All-Iron zubia izenekoaren eraikuntzagaz amaituko diran obrak egiten hasi da, Barakaldo eta Erandio lotuko dituana oinezkoentzat eta bizikletentzat. Obrak aurtengo urtarrilean hasi ziran eta gauzatze-fasean dagoz. Bestalde, ez dot gogoeta teknikorik egingo; izan be, esku-hartze hau egiteko erabili dodazan txostenak irakurri ondoren, ondorioztatzen dot uholde hori ingurumen-faktore batzuek eragin ebela, eta faktore horreek nahiko azaltzeko konplejuak dirala, eta gehiago gai horretako teknikari izan barik. Eta, beste alde batetik, Alzaga Sagastasoloa diputadu jaunak joan dan Osoko Bilkuran egindako agerraldian eta taldeei bialdutako txostenetan azalpenak emon diralako, eta ez dot uste barriro errepiketeak ezer barririk ekarriko leukenik. Hemen ia tesi bat egitea marea biziei buruz, itsasadarraren mailei buruz, egun haretako klimatologiari buruz, atrebentzia bat izango litzateke niretzat, eta ez neuke konponduko edo argituko gaiari buruzko eztabaida.

Edozelan be, badira ondorio batzuk eztabaidaezinak dira: 2024ko zezeilaren 10etik 12ra eta martiaren 10etik 12ra jazo ziran erregistratutako serie historikoko marea bizirik handienak, eta, beste ibai-ekarpen batzukaz batera, batez be euriagaz, 2024ko martiaren 11n jazo ziran moduko uholdeak jazo ziran eta egiaztauta dagoz. Eta, azkenik, uholde horreek Altzagako parkearen egoera mantenu arren jazo ziran, aitatutako zubia eraikitzeke obren aurrekoa.

Gai honen oinarrian dagoena da egiten dabilzan obrek eraginik izan ete daben joan dan hilean Erandioko hainbat gunetan izan ziran uholdeetan. Bakotxaren sinismenetatik harago, txosten horreek irakurrita ateraten diran ebidentzia zientifiko eta tekniko batzuk dagoz, eta horreek dira, nire ustez, kontuan hartu beharrekoak. Bai Saitec-en kanpo-auditoriak, bai Ur Partzuergoaren, Euskalmeten, Portu Agintaritzaren, URaren eta abarren txostenek adierazo deuskuenez, obrak ez dau eraginik izan jazotakoan.

Horregaitik guztiagaitik, ez gatoz bat gaur Alderdi Popularrak aurkeztu dauen mozinoan proponiduten dauenagaz. Baina, dana dala, gauza baten bat gatoz; garrantzitsuena bizilagunak artatzea da. Eta, horregaitik, zuzenketa bat planteau dogu zubia eregiten jarraitzeko, Udalagaz batera joateko, inguruko uholde-arriskuari buruz egindako azterlan guztiei buruz dagoan informazino guztia batu eta aztertzeke. Eta, barriro dinot, garrantzitsuena iruditzen jakuna, Bizkaiko Batzar Nagusi honeek Foru Aldundiari eskatzen deusie herritarren eskaerei erantzuten jarraitzeke epean eta aplikau beharreke araudiak ezartzen dituan baliabideak erabiliz.

Beraz, proposamena egin dauen Taldeari eskatzen deusagu planteautako zuzenketea onartu daiala, uste dogulako herritarrentzat erabilgarriagoa izango dala.



Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Jerónimo Moreno.

Tiene la palabra la portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, señora Buruaga Barcena.

La Sra. **BURUAGA BARCENA** andreak: Han pasado cerca de 2 meses y medio desde el desbordamiento de la ría y de la inundación de las calles de Erandio. No es la primera vez que la ría se desborda, sabemos que es habitual el desbordamiento, pero lo del 11 de marzo fue especial. Y los acontecimientos excepcionales necesitan respuestas excepcionales.

Yo no voy a hablar de mareas, fenómenos meteorológicos ni de cotas. Una cosa está clara: el 11 de marzo la ría se desbordó y esto causó daños importantes.

¿Y ante esto qué ha hecho la diputación además de justificarse y externalizar responsabilidades?

Ez gara sartuko zer neurri hartu behar diran barriro gertatu ez daiten, edo, gitxienez, kalteak ahalik eta txikienak izan daitezkan, baina uste dogu Aldundiak egin dauena baino zeozer gehiago egin behar dauela. Identifikatu beharko leuke zergaitik ez dan orain arte ezer jazo, nahi-ta azken 40 urteetan eguraldiaren egoera bardina egon, eta orain, kasualdidez, obren hasieragaz holako uholde bat jazo bada. Izan be, Aldundiaren txosten baten arabera, obrek ez dabe ezelango eraginik uholdeetan, eta meteorologia-alkarte batek beste txosten bat egin dau esanez uholde horreek eragin dituala.

Pero como he dicho al principio, no voy a entrar en discusiones acerca de si es culpa de la obra o no. Fue un hecho inusual, y queremos expresar la actitud que debieran tener las instituciones ante una situación así. En estos casos, las instituciones deben analizar los hechos ocurridos, identificar las causas, tomar las medidas necesarias para evitar que se repitan o minimizar los daños en caso de que se produzcan, y por último pero no por ello menos importante, deben acompañar a las personas afectadas. Y hasta el día de hoy, desgraciadamente no se ha dado nada de eso.

Esan dodanez, salbuespenezko egoerek ezohiko erantzunak behar ditue, ez dau balio obrak uholde horren arrazoia ez dirala justifiketan daben txostenak kontratetea eta kitu. Bide batez, txostena aitatu dogunez, joan dan hilean diputadu jaunak esan eban, berehala, laster, txosten hori esku artean izango genduala. Hilebete igaro da, ofizialki eskatu dogu, eta, gaur egun, oposizinoko legebiltzar-taldeok oraindino ez daukagu txosten hori eskura, ez dago gure esku. Badakigu hedabide batzuek eskura euki dabela txosten hori. Badakigu Erandioko Udalak badaukala txosten hori, eta Erandioko Udalak oposizinoko taldeen esku jarri dauela txostena. Baina gaur gai hori eztabaidatzen gabilz hemen, eta hilebete baten ostean, talde parlamentariook oraindino ez daukagu gure txostena eskura. Eta hor ikusten da. Barriro be, agirian geratu da gobernu honek daukan jarrera eta gardentasun falta.

Era berean, esan eban Bizkaiko Foru Aldundia, jarrera pasiboari eutsi beharrean, agente aktiboa izan zala gertakariaren ikerketan, eta bizilagunen aldeko ebazpenean, eragindako personei ebaluazinoa eta ordainketak egiten hasteari buruzkoan. Baina, egia esan, obrak uholdea eragin ez dauela justifiketeaz gan, ezer gitxi gehiago egin dau. Orain dala aste bi jakin genduan aste bi lehenago, gaur egun ezin dot esan, oin dala aste bi kalte guztien %14,5 baino ez zala ordaindu.



Auzotarrak arduratuta dagoz, bildur dira barrero gertatuko ete dan, eta oraindino Aldundiak ez dau informazino-bilera bakar bat be egin jazotakoa azaltzeko. Bizilagunei ez jake iragarri zergaitik jazo dan, ezta epe laburrean hartuko diran neurriak be, agian, ez dagoalako inolako neurririk hartzeko asmorik.

Sé de primera mano lo que es vivir una desgracia, tener la necesidad de conocer la causa de lo ocurrido y sentir miedo de que vuelva a ocurrir.

Y creo que los afectados merecen un respeto. Y que ante un hecho extraordinario, la Diputación debería dar una respuesta extraordinaria.

Quizá si pusieran en práctica un modelo de gobernanza diferente, los daños producidos no hubieran sido tales. Si previamente se compartiera el proyecto con los vecinos, tal vez se identificarían otras cosas.

Sí, es cierto, cumplen lo que dice la ley, hacen información pública, cumplen los plazos, pero ¿cuándo ha compartido Azpiegiturak un proyecto suyo con la ciudadanía?, ¿cuándo se ha acercado a los pueblos a plantearlo? En el caso de All-Iron, ¿se han acercado a Barakaldo o Erandio para plantear el proyecto y compartirlo con la ciudadanía? Porque son los ciudadanos los que viven allí y los que tienen conocimiento de la realidad del día a día. Y seguramente, de hacerlo así, se habrían identificado muchas cosas.

No digo que esto pasara, pero al menos, se habrían evitado muchas cosas. Pero ha pasado lo que ha pasado y la cuestión es que seguimos igual. Los afectados han solicitado una reunión a la Diputación y al Ayuntamiento para que se acerquen con los técnicos. ¿Se ha convocado esa reunión? No se ha convocado esa reunión. Llamar, explicar, resolver dudas y miedos. Acompañar, al fin y al cabo, pero hoy, todo sigue igual.

Empatía, escucha activa, no sé, venden cercanía, caras amables, pero luego, realmente su modelo de gobierno no es ni transparente ni participativo. Y es imprescindible que hoy el representante político tenga empatía, haga una escucha activa, escuche a la gente, baina ez entzun erantzuteko, ezpada entzun ulertzeko. Hori oinarrizkoa da, eta uste dot Parlamentu honetan horretatik asko falta dala; entzun ulertzeko, eta ez entzun erantzuteko.

Y como vuelvo a quedarme sin tiempo, en cuanto a la moción del Partido Popular, aunque no es lo que más nos gusta, estamos de acuerdo con la línea general, hemos presentado enmiendas con la intención de enriquecerla, pero no ha sido posible. Hemos planteado dos enmiendas. Por un lado, hemos planteado realizar una adaptación en el primer punto porque lo creíamos oportuno, y por otro lado, lo que proponíamos era añadir un punto indicando que el afectado no ha recibido aún ninguna indemnización y que la Diputación, por favor, sea parte activa en ello. Pero eso tampoco ha sido posible aprobarlo.

De todas formas, aunque tenemos grandes diferencias con el Partido Popular, creemos que en este caso tenemos que avanzar y votaremos a favor.

Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Buruaga Bárcena. Tiene la palabra el portavoz del grupo Euzko Abertzaleak, señor Karrion Lamikiz.

El Sr. **KARRION LAMIKIZ** jaunak: Gracias señora Presidenta, señora Diputada General, diputados y diputadas. junteros y junteras, buenos días.



Vamos a debatir acerca de la moción presentada por el PP, relativa al puente ALL IRON. Interpelaziotik eratorritako mozinoa, etorkizuneko zubi mobikorra eraikitzeko prozesuari buruz eztabaidatu eta Osoko Bilkuran onartzeko.

Para empezar, en la última comisión de Institucional, el señor Diputado Izagirre fue claro y expuso lo que sucedió en Erandio en términos técnicos, y el señor Diputado Alzaga profundizó más durante el pasado Pleno.

En primer lugar, hay que señalar que la Diputación Foral de Bizkaia está ejecutando las obras del puente giratorio All-Iron entre Barakaldo y Erandio, ejecutando trabajos de diversa índole en ambas laderas del arroyo, de acuerdo con el propio proyecto.

Yo hoy mismo no voy a empezar a explicar técnicamente lo que pasó, porque los diputados Izagirre y Alzaga explicaron técnicamente lo que pasó y lo que pasó en los días de las inundaciones.

Un pequeño resumen para contextualizar. Como ya saben, los días 10, 11, 12 y 13 de marzo tuvimos mareas astronómicas vivas en nuestras costas y en la ría de Bilbao. Además, las mareas fueron especialmente altas el 11 y el 12 de marzo. El Gobierno Vasco las calificó como mareas históricas porque no se ha registrado algo parecido durante décadas.

En concreto, el 11 de marzo, las mareas vivas coincidieron con presiones muy bajas, precipitaciones del noroeste y lluvias. Vino todo junto. Como dijo el diputado Alzaga, fue una “tormenta perfecta” para que hubiera inundaciones.

Es por ello que la ría se desbordó en Erandio, no por las obras del puente ALL IRON. Zientziak gaintik egiten deutso siniskerari, Díez-Andino andrea.

Con carácter previo a la elaboración del proyecto se elaboraron y solicitaron diversos informes técnicos para, entre otros muchos aspectos técnicos, analizar la posible incidencia de las obras en la inundabilidad del entorno:

- Por una parte, el propio proyecto cuenta con un estudio hidráulico, y concluye que "el proyecto All Iron no supone alteración alguna de la inundabilidad del entorno".
- Por otra parte, cuenta con autorización de URA y además valida la finalización del estudio anterior. Es decir, analiza y comprueba la incidencia NULA de la obra en las condiciones de inundación del entorno.

Tras las inundaciones del mes de marzo, la Diputación ha seguido trabajando en la realización de estudios y solicitando informes para garantizar en mayor medida el posible efecto del puente y para aclarar todas las dudas que pudieran surgir. Y tenemos los siguientes informes:

- Informe técnico foral que desliga las obras del puente de las inundaciones del 11 de marzo.
- Y también un informe externo que aclare aún más lo ocurrido..
- Informe técnico externo de Saitec, que también desliga las obras del puente de las inundaciones del 11 de marzo.
- Además, el Consorcio de Compensación de Seguros informó que las inundaciones sólo están asociadas a unas mareas inhabituales con un periodo de



retorno superior a los 30 años y que las cotas de marea de ese día fueron excepcionales. Los peritos valoraron los daños originados, y se aprueba el pago de las cantidades económicas para el resarcimiento de dichos daños.

Por lo tanto, las obras del bidegorri y del puente que la Diputación Foral de Bizkaia está realizando entre Barakaldo y Erandio, nada tienen que ver con inundaciones.

En definitiva, queda claro que las posibles consecuencias de la ejecución de las obras fueron tenidas en cuenta en la redacción del proyecto, incluidas las mareas vivas, ya que queda claramente justificado que la ejecución del puente no altera la inundabilidad de la zona.

Además, todos los informes técnicos, tanto internos como externos, posteriores a las inundaciones señalan que el impacto de las obras del puente All Iron en las inundaciones es NULO.

Y más aún: el órgano que debe proceder al pago, el Consorcio de Compensación de Seguros, confirma esta afirmación y exonera a la Diputación Foral de Bizkaia de los daños.

Es decir: independientemente de que hubiera o no obras en el puente ALL IRON, las inundaciones se habrían producido de la misma manera.

Por lo tanto, la Diputación Foral de Bizkaia no tiene ninguna responsabilidad directa sobre este hecho, ya que las inundaciones se produjeron como consecuencia de mareas vivas extraordinarias.

Una vez aclarado esto, la Diputación Foral de Bizkaia no se ha quedado al margen: ha buscado la mejor respuesta posible a los vecinos afectados y sigue en ello.

Yendo más allá, con la intención de colaborar con el Ayuntamiento de Erandio y ayudar a los vecinos afectados, la Diputación se puso en contacto con el propio Ayuntamiento de Erandio y con el Consorcio de Compensación de Seguros para investigar las inundaciones pero, sobre todo, en el caso del Consorcio de Compensación de Seguros, para que se hicieran cargo y pagaran la indemnización económica por los daños causados a las personas y negocios afectados, y en ello continúa la Diputación, en contacto con el Consorcio de Seguros, para agilizar los trámites y poder indemnizar lo antes posible a las personas afectadas. Y no tenemos duda de que seguirá siendo así.

Es decir, señora Barcena Buruaga, lejos de una actitud pasiva, la Diputación Foral de Bizkaia ha sido un agente muy activo a la hora de investigar los hechos y dar soluciones a los vecinos. Y sigue en ello.

Además, la Diputación Foral de Bizkaia sigue trabajando en el compromiso para con los vecinos y en la colaboración e implicación entre otras administraciones más allá de sus competencias, como expondré en el segundo turno.

Por todo ello, no apoyaremos la moción presentada por el PP, y hemos presentado una enmienda junto con los socialista, tal como ha explicado el señora Jerónimo Morena.

Nada más. Hasta el segundo turno. Muchas gracias.



La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Karrion Lamikiz. Tiene la palabra el portavoz del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señor Vaquero Moreno.

El Sr. **VAQUERO MORENO** jaunak: Muchas gracias.

Uholdeakaz bueltaka, benetan, gure Taldetik ez dogu inor erruduntzat jo gura. Álvarez Castrejón jaunak esan dau hori, susmoak botatea baino gauza okerragorik ez dagoala esan dauenean, baina apur bat anbigua da jasoten goazen edo oraindino jaso ez dogun informazino guztia. Apirilaren 24an, Talde Popularraren itaunaren ostean, zuk, Alzaga andreak, datu teknikoakaz justifikau zenduan Aldundiak ez eukala erantzukizunik Erandioko uholdeei jagokenez. Lehen azalpena amaitzean, esan deuskunez, egun hatan bertan, kasualidadez edo ez, Saitec ingeniariartzaren txostena jaso eban, eta azken ondorioak argi ixten eban uholdeak modu berean jazo zirala, zubian obrak eginda edo egin barik. Kasualidadea edo ez, hori izan zan maiatzaren 15ean, eguaztena, *El Correo*-ren titularra, hau da, Osoko Bilkuratik 21 egunera: *obragaz edo barik, Erandio bardin urez beteko zan*.

Kontua da Talde Popularrak eta Euskal Herria Bilduk txosten hori erregistretea eskatu dabela. Buruaga andreak esan dau, egun horretan bertan, 24an, ez zala heltzen ikusita, guk gauza bera egin dogu, eta maiatzaren 6an bat egin genduan eskaeragaz. Gaur 22 da eta oraindino ez dogu Saitec-en txosten horren barririk, tira, badirudi EAJko kideak badaukala, berak esan dau badaukala txosten hori. Hau da, azkenean, komunikabide horreek badaukie txostena, Correoko artikuluan irakurritakoagaitik, eta Erandioko Udalean oposizinoko taldeek baino ez dabe erabilten. Buruaga andreak esan dau danek daukiela, ez, oposizinoko taldeek baino ez dabe erabili behar.

Azken baten, txostena hain argigarria bada, zuek darabilzuezan datu guztiek Aldundia errubakotzen badabe jazoera horri jagokonez, obrek ez badaukie zerikusirik izan jazoerei jagokenez, eta Partzuergoak, uholdeak kausa naturalakaitik gertatu zirala esanez hasierako 72.870 € ordaintzeko baimena emon badau, zer dala eta hainbeste okultismo eta gaitzespen oposizinoko taldeok zuon informazino bera erabilteagaitik? Ez dakit, nik ez dot ulertzen.

Joan dan 24an, esan dodan moduan, zure agerraldia hasi zenduan parkamena eskatuz, mareak zergaitik igoten edo jasten diran azaltzeko terminologia tekniko bat erabilteagaitik. Hortik apur bat bai, baina, maila kognitiboan, egia parzializatu gura danean, terminologia konplejuetara jotzen da, argumentazino propio bategaz datuak ikusiezin bihurtzeko. Eta nik ez dot esaten hori izan danik kasua, ze ezagutzen dodan apurragaitik, iruditzen jat hori ez dala inola be zure asmoa. Baina uste dot mesede gitxi egin deusazula zure ahaleginari zure azalpenak sinistu daiguzan, are gehiago argumentario hori kaltetutako personengana heltzen bada.

Guri, esan dodan moduan, zalantzak geratzen jakuz oraindino, inculpazino-asmorik barik, hasieran esan dodanez, prozesu osoan zehar emon diran azalpenak argitu gura doguz. Esan dozue antzeko itsasaldirik ez dala jazo hamarkadetan. Halan be, zezeilaren 12an 5,19 cm-ko mareara heldu zan eta ez zan uholderik jazo. Martiaren 11n, 5,21egaz, urak Erandio urez bete eban, kaleren baten metro erdia gaudituz. Gertaera ezbardin BAKARRA izan zan, 2 cm horreez ganera, Erandioko kaiak kota jatsi ebala, zola, lorategia, zintarriak eta harmailak kendu zitualako. Alde horretatik, auzotarrak aztertzen dabilz lege-ekintzak gauzatzeko eta konsulta juridikoak egiteko aukera, ez dabelako ulertzen txostenak emoten dauen errubakotzea, kontuan hartuta hilaren 10ean, hau da, ikertu aurreko egunean, marea txiki batek urez bete ebala ingurua. Izan be, auzokide horreek beren argudioa proba grafiko ugarigaz babesten dabe, eta, seguruenik danok ikusi dogu, proba horreetan ikusten da ura nondik sartzen dan. Datu horrek, beraz, baztertu egiten dau uholdeak argudiatzeko mareen salbuespen-egoera, eta, dirudienez,



gertuago dago uri-altzaririk ez dagoenez, oso gitxi eusten jakola, eta gaur egun dagoan 60 metrotik gorako linealetik ura sartzea ahalbidetzen dauela, lehen 4 metrotik beherakoa zan eta.

Kasualidadea izango da edo ez, baina istorio honen hasieratik, Atutxa andreak, Natura Ingurune eta Nekazaritza Saileko diputatu andreak, hedabideen aurrean eta hainbeste txosten egin barik, esan eban uholdeak ez zirala obren erruz izan, berezko inguruabarragaitik baino, eta, beraz, ez egoala kausa-ondorio erlazinorik. Bitxia bada be, garai hatan ja marea historikoez berba egiten zan, eta egoeraren salbuespen-egoera egiaztetan eben datuak emoten ziran. Bitartean, udalerriko obra eta zerbitzuen arkitektoak esan eban sestrak murriztuta ura errazago sartzen zala gainezka egin eban puntua aldatzean.

Bitxia, era berean, denporeak aurrera egin ahala, Aldundi honek kontratautako txostenetan erabilitako argudioak hasierako adierazpenei egiazkotasuna emon baino ez dauela egin. Izan be, askotan, kasu hau beharbada ez dan arren, objektibotasunak zerikusi handia dauka ordaintzen dauanagaz ezeze, galdetzen dauenagaz be, begira. Hau da, Millena Euskal Meteorologia Elkartearen txostenak kontrakoa dino, hain zuzen be.

Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Vaquero Moreno. A continuación en el turno de réplica, tiene la palabra la portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, señora González Diez-Andino.

La Sra. **GONZÁLEZ DIEZ-ANDINO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Lehenago, Saitec txostenaren ondorioak irakurritz amaitudot. Nire kideek ondo azaldu dabenez, ia-ia estraperloan lortu dogu, eta hori ezin da ulertu. Erregistroen bidez modu ofizialean eskatzen ibili gara, eta hilebete geroago hondino ez dogu lortu. Horrekzer pentsatu emoten dau eta ezer onik ez dakar.

Baina esan deusuet konklusinoaren pantailakada hori irakurri dodala, eta errubakotu egiten ebala, baina ez, martiaren 11n itsasgora apartekoa, eta iretargia eta bestela pasautako gauza askoren marea aparta izan zala. Halanda be, zezeilaren 11n bertan, domekan, Eusko Jaurlaritzak berak, bere txostenean, aparteko beste marea baten barri iragarri eban, historikoa eta abar, eta halan izan zan, egun horretako goizaldeko 06:10ean, zezeilean, Itsasadarrak gainezka egin ebalako Erandion. Gainezka baino ez eban egin, baina uholdeak eragin ebazan beste eremu baten, Zorrozaurren adibidez, eta horrek atarrietan eta gainerakoetan eragin eutsen, ganezka egitea ohikoa dan ingurua, Erandio kasurako, baina otsailean uholdea egon zan. Hego Punta ingurua izan zan kaltetuena, baita erdikaldeko zati bat be zezeilean. Horrek esan gura dau marea hori uholdeak eragiteko modukoa zala. Baina Erandiora ez zan heldu.

Martian, Zorrozaurren uholdeak eta gainezkatzeak zezeilekoen antzekoak izan ziran. Hau da, marea zezeilekoa lakoa izan zan, ez 100 aldiz larriagoa, Erandion lez. Antza danez, itsasadarraren alde horretan, konkomitantzia handiak, marea bizi historikorik handienak eta gainerako ibai-ekarpenek ez daukie eraginik. Horrek pentsarazoten dau, beste behin be, zezeileko marea bizia martikoaren ia bardina izan zala, baina zezeilean Erandiok Itsasadarreko pasealekuko babeska eukala, eta horregaitik ez zala urez bete. Baina martian ja ez egoan Erandioko babes hori, eta izugarri urez bete zan, Zorrozzaurre, ez.

Halan be, ez dot hau txostenen gerra bihurtu gura, baina ezin dot onartu bizilagunek batutako datuak de facto balio barik ixtea, danok ezagutu genduan lehenengotik



hasita, udal arkitektoarena, ze danak diralako teknikoak, baina batzuk kontrakoak. Horregaitik, gaurko mozinoaren eskaeran jarri gura dogu arrete, ez dalako errudenez eta erantzukizunez berba egiten, ezpada obrea aldatzeaz eta kota igoteaz, etorkizuneko uholdeak eragozteko, hau da, ekintzez berba egiten dau. Gaur egun, auzotarrei segurtasuna emotea da helburua, Erandioko herria hurrengo marea bizietatik babestea, preminazko neurriak hartuz, eta, bide batez, aldian-aldian informazioa emotea, eurek dinoen moduan, eragiten deutesen informazioa eskatu behar ez izateko. Triste da batzarkideok egitea, baina bizilagunek...

Barrero dinot mozino hau Erandioko herritarren eta Aldundiaren artean egin gura dogun zubia dala, jarrerak topau daiezan eta obran egin beharreko erreformak egin daitezcan, Erandiok mareen bildurrik barik nasai lo egin ahal dauela ziurtatzeko. Ganera, mozino honek aitatu gura nebazan zuzenketa-eske bi zituan. Denporaz apur bat estu nabil, arin joango naz.

Lehenengoa EH Bildurena da, gure mozinoaren ia bardina dana, beharbada hipotetika gehituagogaz edo ez hain zuzena, holan interpretatu gura bada, baina helburu beragaz. Gure ustez jatorrizko mozinoagaz azaldutako guztia jasota dago, beraz, ez dogu zuzenketa hori onartu beharrik ikusten, eta mozinoari bere horretan eusten deusagu. Egia da azken puntu bat gehitu dozuela, aitatu barik amaitu gura ez nebana. Orain aste batzuk uholdeei buruzko erreklamazioen %14 baino ez dirala ordaindu ahaztu barik. Gaur egun, egia da beste erreklamazioen bat heldu dala, baina, jakina, horrek etsipenera eroaten ditu bizilagunak, baina heltzen hasi dira, eta badakit Aldundiak ahalegin handia egin dauela hori bizkortzeko. Hori be egia da, eta hori be esan egin behar da. Baina, tira, aparteko ahalegina eskatzen dogu, gehituago, kalte-ordain hori jasotea ezinbestekoa dan auzokide horreei nasaitasuna emoteko.

Eta beste zuzenketa bat dago, oraingoan Gobernu taldearen aldetik, eta islatzen dituan 3 puntuetatik, bakar bat be ez, bat esanda bera be ez dator bat aurkeztu dogun jatorrizko mozinoagaz. Aparteko mozino da, batek be ez dau aitatzan obra aldatzea, kontrakoa baino, dagoan moduan jarraitzea. Ez dau Erandioko herria babesteaz berba egiten, ez eta batzeaz be, analisiak batu eta herriari, Erandioko Udalarari, laguntzeaz baino. Eta zuzenketa azken puntu horretan komuniketeaz berba egiten dau, baina inondik bez eten barik alkarriketa egiteaz. Herritarren eskaerei epe barruan erantzutea baino ez dau aitatzan, aplikatu beharreko araudiak ezartzen dauzan bitartekoak erabiliz. Besterik ez dogu behar.

Esan dodan lez bizi izan dodalako interpretetan dot hori? Hau da, informazioa eskatzen badozu, nahi-ta informazioa eskuragarri izan, epea agortu egiten dozue informazioa emon aurretik. Zein da errazoa? Ba, hori ezin dot nik azaldu, hortik mozino hau, komunikazio arina eskatuz.

Beraz, amaituko dot, badakit gorrian nagoela. Barrero esango dot gobernu-taldearen zuzenketa be ez dogula onartuko, eta gaur nire berbaldia atril honetan Erandioko herritarrei ahotsa emoteko zala.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora González Díez-Andino. Tiene la palabra el portavoz de Euskal Sozialistak, señor Jerónimo Moreno.

El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Buenos días de nuevo.



Lehenengo eta behin, esan behar deutsuet nik badaukadala Saitec-en txostena, orain dala denpora gitxi, astelehenetik edo, eta nire informazioaren arabera, oposizinoako gainerako kideek be baeuken. Horra nik kontau daikedana.

González andreak egin dauen zuzenketeari jagokonez, egia esateko erantzukizuna eta larregi ez larritzeko erantzukizuna be bai. Uste dot, nire hitzaldiaren hasieran esan dodan lez, eztabaida honen gaiaren muinean dagoala joan dan hilean izandako uholdean zubia eraikitzen hasteak eraginik izan dauen ala ez. Eta, txosten teknikoan arabera, nik irakurri dodazanez behintzat, neurri handi baten ezetz esaten dabe. Herritarrak larregi larritzea, nire ustez, ardurabakokeria da, eta, gainera, uste dot erabilera ez dala ona, jakina. Halanda be, onartzen dot oposizinoak bere lana egin behar dauela eta hau bere lana dala. Edozein kasutan, kontrolarena eta gaiak egiten dirala bermatzearena.

Eta hori dinot, danok auzokideak lez gagozalako, gu be bai. Eta nik uste dot hori dala esan doguna nire adierazpenean, baita gure zuzenketaren azken puntuan be, udalagaz eta auzokoakaz batera joatea, eta garrantzitsuena, preminazkoena orain bertan, kalteren bat izan daben bizilagunei aseguruak edo Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak ordaina emotea dala, lehen esan dodan moduan. Nire ustez, hori da garrantzitsuena une honetan, ikuspegi teknikitik kausak identifikau, kausak aztertu eta kausa horreei ekin behar bajake be. Eta atzera egingo dot adibide bat jartzeko, batzuetan Metroan jazoten jakuna. Azkenean, Metroaren obra batzuk dagozanean, herritar guztientzako zerbitzuak hobetzeko azpiegitura bat eregiten danean, zaraten eragina egon daiteke, lur-mobimentuetan eta abarretan kalteak egon daitekez, eta auzotar batzuk horren inguruan kexetan dira. Uste dot, ez dot horregaz esan gura azpiegitura bat egiten danean danok jasan behar doguzanik deserosotasun batzuk, izan be, aurkeztu diran txosten teknikoek esaten badabe benetan gertatu ziran uholdeak obraren hasiereagaz edo barik gertatu zirala, eztabaida horretan sartuko litzateke, hau da, batzuetan, azpiegiturak egiten diranean deserosotasun batzuk jasan behar izatea. Baina, kasu honetan, txostenen arabera, bardin izango zala dinoe, eta, beraz, nik, sinistu egin dodazanez, hona nator eta jentaurrean esaten dot, ahaztu barik, ezelan be, udalerriko bizilagunei sortutako akatsen inguruabarrak arindu behar dirala, barriro dinot enegarrenez.

Halanda ze, uste dot gure jarrera argi dagoala, uste dot planteau dogun zuzenketan nire agerraldian esan dodana jasoten dala, eta herritarrontzat egokiena eta onena izango litzatekela zuzenketa hori adostu eta aldeko botoa emotea.

Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Jerónimo Moreno. Tiene la palabra la portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, señora Buruaga Barcena.

La Sra. **BURUAGA BARCENA** andreak: Hola. En primer lugar, dar la bienvenida al Movimiento de Pensionistas. Os habéis incorporado en el marco de este debate y bienvenidos a esta cámara parlamentaria de hoy.

Lehen harritzen baninduan eta kezkatzen baninduan hilabete baten ostean txosten hori ez eukiteak, orain gehiago kezkatzen nau txosten hori eskura daukien batzarkideak egoteak eta ganerakoak, edo beste batzuk, ez eukiteak. Ze guk ontxe ikusi dogu. Ikusi dogu (\$\$03:28:30) badaezpadan, ze erratuta egon geintekoz, eta beharbada atzo bialdu jakun txosten hori, baina eskatu ebanak ez dauka, eta (\$\$03:28:30) espedientean be ez dago. Orduan, horrek gehiago kezkatzen nau, eta gehiago jarten dau zalantzan, eta nabarmenago ixten dau gobernu-talde honek daukan izaera eta gardentasun faltea.



Eta bai, la Diputación tiene el pasivo, sí, está muy pasivo. Cuando los ciudadanos han solicitado una reunión, ¿por qué la Diputación no ha convocado esa reunión? En el Pleno de hace un mes se planteó la cuestión de la reunión. ¿Por qué no se convocó esa reunión? ¿Eso no es ser pasivo, no convocar todavía una reunión después de un mes y aclarar sus inquietudes y dudas?

Y sí, ha empezado a pagar las indemnizaciones, pero todavía quedan muchas, porque nosotros mismos hablamos con los afectados, y todavía hay muchos que están esperando para pagarlas. Por lo tanto, pasado lo que ha pasado, se ha dado por decir una cosa o por otra, o quizá por la suma de muchas cosas, ahora por responsabilidad lo que nos toca es hacer, ser compañeros de viaje, y una vez ocurrido, si en un futuro se produce, que los daños sean los menos posibles.

Ahí nos encontrarán de compañeros de viaje, tanto en el Ayuntamiento de Erandio como en las Juntas Generales con los representantes de Azpiegiturak. Estamos dispuestos a analizar, a ver, a realizar las acciones que se puedan realizar o lo que se pueda hacer para que, si se reproduce, los daños sean los menores posibles. Y mientras tanto, vayamos a ser compañeros de viaje de esos afectados de forma activa. Y ellos han pedido una sola cosa más allá de las indemnizaciones; reunirse, dar explicaciones, y despejar dudas. Y hoy, después de dos meses y medio todavía, nada de eso se ha hecho. Y siendo esto así, que usted diga que ha sido activa la Diputación, para mí es una tomadura de pelo.

No me extenderé más. Lo que he dicho antes, que escucha activa, escuchar a la gente, ponerse en su sitio. La próxima vez tendrán la oportunidad de ver qué hacemos con los pensionistas.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Buruaga Barcena. Tiene la palabra el portavoz de Euzko Abertzaleak, señor Karrion Lamikiz.

Yo también doy la bienvenida a los miembros del movimiento de Pensionistas en el siguiente punto. Y también tengo que pedirles que retiren los carteles que cuelgan en las barandillas, por favor. Gracias, y bienvenidos.

Dicho esto, tiene la palabra el señor Karrion Lamikiz.

El Sr. **KARRION LAMIKIZ** jaunak: Gracias señora Presidenta. Buenos días de nuevo.

Como he adelantado en la primera intervención, la Diputación Foral de Bizkaia sigue trabajando en el compromiso hacia los vecinos y en la colaboración e implicación entre otras administraciones, más allá de sus competencias.

En este sentido, el grupo Nacionalistas Vascos, junto con el Grupo Socialista, presenta la siguiente enmienda a la moción:

1- Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia que continúe con la ejecución del proyecto “All Iron” que tiene como objeto conectar peatonalmente y en bicicleta las dos márgenes de la ría.

2.- Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia a acompañar al Ayuntamiento de Erandio en la recopilación y análisis de toda la información



disponible hasta la fecha sobre los estudios de inundabilidad de las diferentes instituciones competentes.

3.- Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia a seguir respondiendo las solicitudes ciudadanas siempre en plazo y utilizando los medios que marca la normativa aplicable.

¿Y esto por qué?

Porque no todo sirve y debemos actuar con responsabilidad. Y porque tenemos que poner negro sobre blanco la situación, y más aún en las cosas que son tan sensibles.

En primer lugar, porque con los informes internos y externos realizados, queda descartado que las obras del puente móvil "All Iron" puedan ser las causantes de las inundaciones del 11 de marzo en Erandio, y el resultado final del proyecto del puente móvil no empeora en modo alguno el riesgo de inundación actual de Erandio.

La modificación ahora del proyecto podría suponer una infracción de la Ley 9/2017, de Contratos del Sector Público, ya que, en este momento, una modificación del proyecto cambiaría sustancialmente el objeto del proyecto (conexión peatonal y ciclista entre ambas márgenes de la ría), habida cuenta además de que la Diputación Foral de Bizkaia carece de competencias en materia de inundaciones.

En segundo lugar, como ya he señalado, la Diputación Foral de Bizkaia no es el organismo competente en la resolución de los riesgos de inundación de Erandio, ni es el titular del camino, pero continuando con su implicación y con su compromiso, puede ayudar al Ayuntamiento de Erandio a recoger y analizar toda la información disponible sobre el estudio de inundabilidad realizado por el organismo competente, para ver qué y quién debe llevar a cabo estas tareas.

En tercer lugar, y para finalizar, la Diputación Foral de Bizkaia siempre ha respondido a la demanda ciudadana en plazo y utilizando los medios que establece la normativa aplicable, y consideramos que lo más adecuado es seguir haciéndolo a través de los canales habilitados al efecto.

Con todo ello, nuestro equipo considera que debemos ser responsables, siempre, pero aún más, en este tipo de cuestiones complejas, promoviendo e impulsando la colaboración interadministrativa y la gobernanza compartida, teniendo en cuenta las competencias de cada una de ellas, de una manera adecuada, coordinada y segura para ofrecer a la ciudadanía las mejores soluciones de forma conjunta. Y no tengan ninguna duda de que en ese camino nos encontraremos.

Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Karrion Lamikiz. Tiene la palabra el portavoz del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señor Vaquero Moreno.

El Sr. **VAQUERO MORENO** jaunak: Gracias. Labur egiten ahaleginduko naz.



Jeronimo jauna, hori subertea. Espero dot ez dozula aurrekaririk ezarri. Hurrengoan, izapide ofizialetara jo beharrean, lehenik zuri eskatuko deusut, ea badaukazun, eta jarraituko dogu.

Gure taldeak mozinoaren aldeko botoa emongo dau, oso-osorik. Izan be, errua Aldundiarena ez bada be, bertan eskatzen danak aukera emoten dau etorkizun hurbilean gauza bera barrero ez jazoteko, eta, beraz, auzokideak babesten ditu, eta uste dot hori dala danon helburua.

Ados gagoz kota handitzeari buruzko proiektua aldatzeko eskaereari jagokonez, ez dogu uste hazkunde esanguratsurik ekarriko dauenik maila ekonomikoan, eta gehiago eusteko aukerea emoten dau. Era berean, ados gagoz udalerrria babesteko preminazko neurriak hartzeagaz, nahi-ta uholde-arriskua daukan eremua danez, mundu guztiak dakienez, edozein babes osogarrik segurtasun handiagoa ekarriko leuken eta, beraz, Erandioko bizilagunek martiaren 11 baino lehen egiten eben lez bizitzeko aukera izango leukien.

Eta, azkenik, ados gagoz bizilagunei informazioa emoteagaz, eskatzen diran dokumentuak eskuratzeaz ganera. Gure Taldeak alde horretatik erabateko gardentasuna jagoten dau, eta beharrezkoa dirudi. Are gehiago, zuzenketak egiteko zorian egon ginan, oposizionoko taldeak barne, garaiz informau gaiezan, baina tira, hori ez dogu egin.

Amaitzeko, esan gura neuke EAJk eta PSOEk aurkeztutako zuzenketak anbiguoak iruditzen jatazala. All-Iron proiektua dgoan dagoanean gauzatzen jarraitzeko eskatzen dozue. Erandioko Udalari informazioa batzen eta aztertzen laguntzeko eskatzen dozue. Horixe egiten edo egiten saiatzen dabilz; herritarrek eskatutakoari epe barruan erantzuten jarraitzeko eskatzen dozue, González Diez-Andino andreak esan dauen moduan.

Pentsetan dot zuzenketa horreek aurkeztuko zenduezala, “Saiatu gara behintzat, baina eurak izan dira gura izan ez dabenak” horretan oinarritzeko, eta horrek justifikau zaiezan konponbideak bilatzearen aldeko botoari uko egitean. Baina Talde honetatik, barrero dinot, akusazino-asmorik barik, eta hasieratik esan dodan moduan, mobimentu horrek, barrero be, lardaskeria bat beste bategaz estali gura izatea emoten deusku. Sentiduten dot, baina mozinoen alde bozkatuko dogu.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Vaquero Moreno. Finalizado el debate, sometemos a votación la moción. Podemos votar.

El resultado es el siguiente: 49 votos emitidos, 19 a favor, 30 en contra, no ha habido abstenciones. Por lo tanto, no se aprueba la moción. 5º punto del orden del día.

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

5.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:
Iniciativa Originaria: Proposición no de norma ([R.E.12/E/2024/0000364](#))
Autor: Vaquero Moreno, Ricardo - Lopez Vazquez, Aitor (EHB·GM/TB-EB)
Asunto: Pensiones minimas de 1080 euros
Documento Principal:
[\(R.E.12/E/2024/0000364\)](#)
Boletines: Admisión a trámite y apertura del

5.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:
Jatorrizko ekimena: Arauz besteko proposamena ([12/E/2024/0000364SE](#))
Egilea: Vaquero Moreno, Ricardo - Lopez Vazquez, Aitor (EHB·GM/TB-EB)
Gaia: 1080 euroko gutxienezko pentsioak
Dokumentu Nagusia: ([12/E/2024/0000364SE](#))
Aldizkariak: Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltea



plazo de enmiendas (9A), Enmiendas: No presentadas (9B)
Expediente: (12/B/26/0000829)

(9A), Zuzenketa-eskeak: Ez dagoz (9B)
Azkenengo 15 urteetan, langile autonomoen enpleoak galera handia izan dau Bizkaian. Ez da bakarrik covid aurreko kopuruak ez doguzala berreskuratu, ezpada 2008ko krisiaren aurreko autonomoen kopurua be ez dogu berreskuratu. Baina azken ekitaldira joan ezker, aurreko Osoko Bilkuran esan neban lez, 2023an Euskadi izan da langile autonomoen ehuneko handiena galdu dauen autonomia-erkidegoetako bat. Galera horreetako 9 gure lurraldean izan dira, Bizkaian, baina jardunean jarraitzen daben autonomoei jagokenez, datu kezkarriak dagoz, barriro be, neurriak hartu beharra erakusten dabenak, kasurako batez besteko adina, gero eta altuagoa dalako eta inoren kontura diharduen beharginena baino hainbat handiagoa. Datu kezkarriak daukaguz autonomoen arloan.

Baina beste errealidade bat be badago, hau da, podere publikoen aldetik, kasu honetan Bizkaiko Foru Aldundiak autonomoei emoten deusien tratua, eta beste lurralde batzuek konparatuta ez daukaguzan gauzakaitik nabarmentzen da, daukaguzan mekanismoak sobran egon arren. Errealidade horren aurrean, PNN hau aurkezten dogu. Bertan, gaur eguneko langile autonomoek beren jarduera ekonomikoan jarraitu ahal izateko baldintza egokiak izan daiezan neurriak proponiduten doguz. Baina, era berean, oindino pausua emon ez daben langile horreengan pentsautu.

Zentzun horretan, lehenengo eta behin, zero kuota edo zero tarifa izenez ezagutzen dan hoberia proponiduten dogu. Gizarte Segurantzaren araudiak lehenengo hilebeteetarako finkatzen dauen kuota-murrizketaz harago, azken honetan beste neurri batzuk be badagoz, zero kuota, hain zuzen be, une honetan estatu mailan 11 autonomia erkidegotan daukiezanak eta hemen ez daukaguzanak. Beharbada, holako kontuek azalduko dabe gure lurraldean autonomo barririk ez egotea, eta horregaitik proponiduten dogu egoera lehengoratzeta. Neurri hori hobari bat da, autonomo barri guztiei eragiten deusena, sarbide errazekoa eta burokrazia gitxikoa, beste proiektu batzuen edo beste laguntza-plan publiko batzuen aldean, beharbada baldintza handiagoak eta burokrazia handiagoa eskatzen dabenak.

Zero kuota proponiduten dogu autonomo barrientzat lehenengo 12 hilebeteetan, eta, era berean, proponiduten dogu lehenengo 24 hilera heltzea langile autonomo jakin batzuentzat, adibidez Gizarte Segurantzak kuota murriztua 24 hilera arte autortzen deusienak. Eta, era berean, proponiduten dogu jarduera hasteagaitik laguntza hau emon ezeze, bereziki batzea jarduera ekonomikoagaitik diru-sarrerak landa eremuan sorten dabezan autonomoak, gure ustez garrantzitsua dalako landa-munduan jarduten daben autonomoak finkatzea eta bertan geratzea.



Kuotakaz jazoten dan moduan, Bizkaian beste desabantaila batzuk dagoz, kasu honetan fiskalidateagaz, eta beste lurralde batzuen aldean desabantailan jartzen gaitue. PFEZren Foru Arauaren erregulazioak tratamendu fiskal okerragoa emoten deutse autonomoei pensino-planerako ekarpenen kenkarien zenbatekoari jagokonez, lurralde erkidean baino. Baina, era berean, autonomoei eragotzi egiten deitsie ekarpen horreekaitik besteren konturako langileen zenbateko berberak kentzea; lan-kontratuko langileen gehienekoa 12.000 €koa da, eta autonomoen kasuan, barriz, erdia baino gitxiagokoa, 5.000 €koa.

Horregaitik, pensino-planerarako ekarpenakaitik zerga-oinarri orokorraren murrizketea handitzea proponiduten dogu, esan dodana ikusita, gure lurralde historikoaren gehieneko zenbatekoa lurralde erkidean finkatutakoa baino txikiagoa dala, eta, batez be, besteren konturako beharginen aldean dagoan alde garrantzitsuaren arrakala. Neurri horrek autonomoei zerga arinduko leuskie, urteetan ibili diranak karga fiskala murrizteko eskatzen. Horrez gainera, aitatu dodazan desabantailak ezabatuko leukez, eta pensino- eta enpleo-planen bidez aurreztea sustatuko leuke. Era berean, uste dogu beharrezkoa dala zerga-erreformak egitea, kontratazino horren lehenengo urtean besteren konturako langile bat kontratatetan daben langile autonomoen karga murrizteko, bai eta jaiotzaigatik edo adinbakoak zaintzeagaitik baja-aldietan besteren konturako langile bat kontratau behar daben langile autonomoentzat be.

Lan autonomoa Bizkaian atzeraka doala ikusita, eta errealidade objektiboa danez, sustapen-neurriak hartu behar doguz, ez gara desabantailan geratu behar beste lurralde batzuen aldean, eta desbardintasunak murriztu behar doguz, langile autonomoen eta besteren konturako langileen artean dagoan arrakala hori.

Horregaitik, Arauz Besteko Proposamen hau babesteko eskatzen deusuet. Horrek, jakina, gaur eguneko langile autonomoen sarea sendotzen lagunduko dau, eta autonomo moduan edozein motatako proiektu bati ekitea edo abiarazotea pentsetan dabilen bizkaitar guztiei sarbidea erraztuko deutse.

Besterik ez. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor. Tiene la palabra la portavoz del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias señora Presidenta.

Elkarrekin Podemosek, Gómez-Guadalupe jauna, bat gatoz zure Taldearen kezkeagaz, euskal erakundeek, Foru Aldundiak be bai, behar diran neurri guztiak jarri behar dabezalako gure lurraldeko persona autonomoek ahalik eta baldintzarik onenak euki daiezan, euren jarduera ekonomikoa baldintza onenetan bete ahal izan daien. Gainera, uste dogu Bizkaian produkzio-sareari eustea lehentasuna izan behar dala, gure ustez oinarritzko elementu bat dalako, funtsezkoa eta zentrala Bizkaiko persona guztien ongizatea eragiteko.

Baina ekitea eta autonomoa izatea, bat nator zugaz, gaur egun arrisku kirola dala. Arrisku-kirola da hemen, eta Eustatek emondako azkenengo datuen arabera, biztanleriaren %84,4k nahiago dau soldatapeko persona izan, funtsean ez dauzalako bere gan hartu gura enpresa edo negozio txiki bat sortu beharrak dakarzan arriskuak. Nire ustez, egia da pausu asko dagozala egiteko gizarte-babesa hobetzeko, autonomoak soldatapekoakaz edo besteren kontura kontratautakoak eskubideakaz bardintzeko. Eta urrats horreek arlo askotan emon behar dira. Beharrezkoa da, nik uste dot gazteei, ekintzaileei eta emakume autonomoei laguntzea, pausuak emoten jarraitu behar da digitalaren arrakala murrizteko, langile autonomoen prestakuntzea eta garapen profesinonala hobetu behar dira. Baina beharrezkoagoa da, era berean, sustapen- eta



laguntza-politika publikoak beti koherenteak izatea, batez be, gaur egun gertatzen diran egoerakaz lotutako gaietan, adibidez, euren negozioen eraginkortasun energetikoa hobetzeko laguntzak izan daiezan, hurreko merkataritza hobetzeko edo kontratazino publikorako sarbidea errazteko, besteak beste.

Zure taldeak dakarzan proposamenak, gehienak langile autonomo horreek jasaten daben zama ekonomikoa murrizteko helburuagaz, a priori, oro har, ez jakuz txarrak iruditzen. Halanda be, ñabardura batzuk daukaguz bigarren esku-hartzean landuko dodazanak, ze lehenengo txanda honetan zuen proposamenaren hirugarren puntua beren-beregi aztertu gura dot, pensino planetarako ekarpenakaitik zerga-oinarri orokorraren murrizketea handitzea proponiduten dozuena. Zuk badakizu gu, alde horretatik, Gómez Guadalupe jauna, antipodetan gagozana. Pensinoei eta pensino publikoen defendeari buruzko eztabaidea euki barri dogu, eta zuk badakizu, gure ustez, finantza-produktu horreek ez dabela laguntzen pensino publiko duinak eukiten, eta ez dabela laguntzen beharginek soldata duinak eta kalidadekoak izan daiezan.

Eta horregaitik, uste dot bidezkoa dala, ganera, lehenengo esku-hartze honetan gai horri buruz berba egitea, badakizulako epe laburrean, ganera, Foru Aldundiak zerga-erreforma bat planteau gura dauela. Eta une honetan, Foru Aldundia azken urteetan enpleguko EPSVak orokortzeko beharra defendiduteaz ganera, oraintsu, Geroa barruan adibidez, kapital hori berreskuratzeko moduari buruz gertatu diran gatazka batzuk be ikusi doguz.

Alde horretatik, nik uste dot argitu beharra dagoala, administrazino publiko honentzat lehentasuna izan behar dana, ez dala enpleguko EPSV horreek orokortzen laguntzea, ezta zerga-arloan laguntzea be. Gobernu honen lehentasunak enpleoaren kalidadeagaz egon behar dau, eta politika publikoek soldatak eta lan-baldintzak duinak izan daitezcan lagundu behar dabe. Eta horretan asko dago egiteko, eta daukaguzan gatazkak ikusita, esku-hartze sozialaren sektoreak hitzarmen kolektiboa barritu barik jarraitzen dau, eta horrek eragin argia dauka pensinoetan. Bizkaibuseko emakidadunek lanpostuak amortizetan ditue, eta horrek eragin zuzena dauka lan baldintzetan. Egoitzetako langileek 10 minutu daukiez zuzeneko arretarako. Aldundiko azpikontratek be ez dabez gitxieneko baldintzak beteten. Beheranzko hitzarmena egiteko lizitazinoak egiteak bere ondorioak daukaz, eta hori EPSV batek be ez dau konpontzen.

Elkarrekin Podemosek ez dau babestuko EPSVei, soldatapekoei zein autonomoei, zerga arloan mesede egiteko proposamenik. Gure ustez, desbardintasuna eta haustura soziala sortu baino ez dabe egiten, eta finantza-produktu horrek, azken baten, gizartea banatzen dau, eta, batez be, ostrazismora kondenetan ditu langileen zati handi bat eta, batez be, ahulenak. Aurrezteko gaitasuna aitatu dozu. Egizu berba persona autonomoakaz aurrezteko gaitasunari buruz. Hemen aurreztu leike aurreztu leikenak. Beraz, EPSVak persona jakin batzuentzat dira, ez persona guztientzat.

Ahalegin guztiak egin behar doguz pertsonen soldata duinak izan daiezan, kotizazino duinak izan ahal izateko, etorkizun duina izan daien eta hilero bizitza duina izan daien eta hilaren amaierara heldu daitezcan. Ez dogu lagunduko diru publikoa finantza-erakunde pribaduen eta inbersino-funtsen esku jarri daiten, honezkero daukiezan neurribako etekinak handitzen jarraitzeko.

Beraz, Gómez-Guadalupe jauna, horregaz bakarrik, aurreratu gura deusut ez dogula babestuko gaur aurkeztu dozun proposamena.

Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora De Madariaga Martín.



Tiene la palabra el portavoz del grupo Euskal Sozialistak, señor Álvarez Castrejón.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Eskerrik asko mahaiburu andrea. Ia gaien sartzea lortzen dodan, ze autonomoakaz hasi gara, fiskalidateagaz segidu, etab.

Adinaren kontua izango da, zuena esan gura dot, aurreko parte-hartzaileena. Baina hau ez badogu elementu erabat definitzaile baten zentratzen, hau da, historian, ez dogu ezer egingo. Zuk orain dala 15 urte esan dozu, atzera egin dozu, oso ondo iruditzen jat, baina zelan gengoan orain dala 15 urte? Hau da, non gengoan?

2008an krisi ekonomikoa izan zan, eta aparteko aldatetarako eragin ebazan munduko egitura ekonomikoan. Eraikuntzaren beherakadak 3.649.000 lanbako itxi zituan Estaduan eraikuntzaren eta industriaren artean. Konbergentziari jagokonez, eta 2008ko krisia atzerakada itzela izan zan Espainiako ekonomian V 27 herrialdeen aldean. Maiatzean 64.000 enpresa egozan Euskadin, eta 2014ko urtarrilean, barriz, %11 murriztu ziran. Ez dot ezer esaten Alemania, Frantzia eta Italiagaz alderatzen bagara. Hain txarto egozan danak, eze Italia bera be okerrera joian. Gu herrialde honetan batez bestekoa baino %5 gehiagoz heldu ginan.

Gainera, atzeraldi guztiz ezohiko horren gogortasuna areagotu egin zan austeridade-politika aukeratu zalako, gastu publikoa nabarmen murriztea, eta horrek desbardintasunak eta atzerakada eragin zituan gizarte-kohezioari jagokonez, eta horrek min handiagoa gehitu eutsan egoera ekonomikoko dramatikoari. Ba, hortik, guztiagaz eta horregaz, ez dakit zelan egin genduan, baina 2020ra heldu ginan, ez zaituet kontau be egin gura. 2020ko martian, bake-garaian inoiz bizi izan ez diran konfinamentu-neurri zorrotzak hartu ziran. Ekonomiaren erabateko geldialdia, guztiz ezaguna maila guztietan. 2020ko bigarren hiruhilekoan izandako geldialdiak Espainiako Barne Produktu Gordinaren atzerakada handiena eragin eban bake garaian, 10,8. Horrek gizarte-ekintza bat zabaltzera behartzen gaitu eragile ekonomikoen, enpresen eta langileen eskura jarritako baliabide ikaragarriak gauzatu zana, eta, horri esker, enpleoan izandako ondorioak ez ziran uste bezain dramatikoak izan epe ertainean, eta susperraldia, zorionez, nahiko azkarra izan da.

Sarrera hori barik oso gatxa zan autonomoen gaia lantzea. Zergaitik? Izan be, krisi bat dagoan bakotxean, eta lan-merkatutik kanporatutako persona asko dagoan bakotxean, administrazioek batzuetan topetan daben konponbidea autoenplegurako sarbidea erraztea da. Zikloak goranzkoak diranean, eta besteren konturako lana dagoanean, orduan jasten da autonomoen kopurua. Adibidez, 2004an eta 2005ean jarri gaitzan. 2004. eta 2005. urteetan, higituezinen burbuila 90eko hamarkadan hasi zanetik, 1.300 autonomo gitxiago egozan Bizkaiko Lurralde Historikoan. Zergaitik? Izan be, enplegu arrunt gehiago egoalako, eta persona batzuek autoenplegua bilatu behar izaten dabe, eta, holan, aukerarik txikerrena daukienean, adorebakotu egiten dira eta beste bidetik jotzen dabe. Jarraitu daigun.

Gaur egun, zorionez, autonomoentzako tarifa finkoa daukagu, Espainiako Gobernuak autoenplegua bultzatu gura ebenen esku jarri eban neurria, hau da, zeuk be aitatu dozu, 80 €ko hileko kuota murriztua ordaintzea. Denpora batez, bai. Hobari horrek lehenengoz autonomo gisa alta emoteak dakarren kostua murrizten dau. Egia da, autonomo barri askori lagundu deutse lehenengo pausuak emoten, egia da. Baina, gainera, enpresa bati buruz berba egiten dogunean, eta izaki biziei buruz berba egiten dogunean, jaio, ilusinoaren bidez, ahaleginaren bidez, beren jakituria eta bitarteko guztiak, gehienetan, bertan jartzen dabezan personen konpromisoaren bidez hazten diranei buruz, bide hori ezin da bakarrik egin, ahal dala. Horregaitik, lurralde honetan, hemen, gure mugetatik kanpo imaginatu be ezinezko laguntza-programak daukaguz.



Azken 15 urteetan, agian gitxiago. 2015az geroztik, Teresa Laespada nire lankideak zuzentzen dauen Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasun Sailak ekimen ekintzaileetarako programetan 57.000.000 euro inbertidu dau. Aldundiak egiten dauen ahalegina ez da makala, esaten dot probintziala, Gobernu zentralarenaz eta Eusko Jaurlaritzarenaz ganera. Ekintzaileei laguntzeko programeagaz, oso programa garrantzitsua, magnitudeak apartekoak ez dirala ikusten dozuen arren, laguntza hori, babesa sentidutea, jarduera txikietan bada be, oso garrantzitsua da, izan be, abentura honetan ez nago bakarrik sentiduteko.

Beno, ez deustie itxiko jarraitzen, bestela beste txartel gorri bat aterako deustie, eta lau partida jausiko jataz.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Álvarez Castrejón.

Tiene la palabra el portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, señor Aranburu Agirre.

El Sr. **ARANBURU AGIRRE** jaunak: Señora Presidenta, muchas gracias. Miembros de la mesa, junteros y junteras, miembros de la Diputación, buenos días.

En mi primera concertación, atendiendo a la señora González, del Partido Popular, porque el euskera no es una imposición, y porque soy coherente, he decidido hacerlo en euskera.

Según lo expuesto por el apoderado **GÓMEZ-GUADALUPE GARCÍA-TEJEDOR**, y teniendo en cuenta la justificación de la proposición, parece que la aplicación de la Cuota cero supondría aumentar el número de autónomos y bajar la edad media de los mismos. Supuestamente el establecimiento de una bonificación para los autónomos obraría el milagro. Pero como hemos oído anteriormente, las pensiones de 1.080 €y la RGI no coinciden con ellas.

Es cierto, y coincidimos en ello, que la situación de los autónomos ha empeorado en los últimos años. Esta situación tiene algunos responsables, entre ellos el Gobierno Vasco que detenta (en cierta medida), la competencia de gestión, pero también, el Gobierno español, el Gobierno español que en su día estaba en manos del Partido Popular, no lo olvidemos. Así que ahora resulta sorprendente que el Partido Popular venga a este foro y enarbole la bandera de la defensa de los derechos de los autónomos.

Además, la proposición presentada no distingue entre el colectivo de autónomos en su conjunto, es decir, no compartimos que todos los autónomos entren en el mismo saco, ya que entre ellos los hay, con grandes dificultades, por ejemplo, para llegar a fin de mes, pero también los hay que están ganando fortunas. Beraz, kafea guztiontzat ez dau balio, ez dalako kontuan hartzen langile autonomo bakotxaren ahalmen ekonomikoa, ezta gizarteari egiten deustien ekarpena be. Horregaitik, hobari orokor batek ez dau aberastasunaren banaketa eta justizia soziala hobetzen laguntzen, ezta jardueraren lehenengo urtean be.

No hay más que observar que, los autónomos, según la legislación actual, pagan en función de sus ganancias. El nuevo sistema, en principio, tiene en cuenta los beneficios obtenidos a lo largo del año, en función de lo cual se determina la base de cotización, aunque los que más ganan, proporcionalmente no coticen más.



Por poner un ejemplo, un autónomo que gana menos de 600 euros al mes para cotizar mínimo pagaría 230 € y uno que ganara 6.000 euros al mes pagaría 542 € para tener esa cotización mínima. Por lo tanto, como se ve, no hay proporción y aplicando la bonificación a todos por igual, tampoco se tendrían en cuenta los beneficios obtenidos por los autónomos.

El señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor en su intervención ha tratado de mostrar los beneficios de la cuota cero, parecía la solución a todos los males, pero, ¿es realmente así? ¿No será una propaganda barata del PP es para que, ante los problemas que tienen los autónomos, paguen menos los que más tienen? Podría ser una medida adecuada si afrontara el problema real y los que realmente lo necesitan se beneficiaran; y no seremos nosotros quienes nos pongamos en contra de los autónomos, ni mucho menos, pero creemos que la Cuota Cero no resolverá los problemas estructurales reales:

- Por ejemplo, las medidas que propone el PP sólo afectarían al primer año de actividad de los nuevos autónomos, donde, entre otras cuestiones, no olvidemos, la propia Seguridad Social establece una cuota de 80 € (tarifa plana). Además, esta tarifa tampoco tiene en cuenta los beneficios.

- Si se estableciera estos 80 euros o la tarifa Cero no supondrían la solución a los problemas futuros de los autónomos. Los problemas aumentan a partir del segundo año en el que, según el ejemplo que he expuesto anteriormente, tienen que cotizar y no hay ningún tipo de subvención posible.

- También es verdad que lo que proponen para los trabajadores del sector primario no lo proponen sólo para el primer año, lo que podría estar bien, pero en ese caso ¿por qué sólo para los autónomos del sector primario? ¿Por qué no para todos/as los que tienen ingresos muy pequeños?

Por tanto, consideramos que la PNN tiene muchos aspectos oscuros y, si realmente queremos solucionar la situación de los autónomos, tenemos que tomar medidas reales.

Para ello, entre otras cosas, instamos al Partido Popular que deje de obstaculizar una competencia que detentamos en virtud del Estatuto de Gernika de 1979, y que se manifieste públicamente a favor de la transferencia a la CAV de la competencia de Seguridad Social que no ha querido para la CAV en 45 años. Desde aquí le hacemos llegar un requerimiento de que plantee una nueva Proposición No de Norma en términos similares a lo siguiente y digo en castellano para no tengan ningún problema de interpretación:

“Bizkaiko Batzar Nagusiek Gernikako Estatutuaren 18. artikulua beteteko eskatzen deutsie Espainiako Gobernuari. Holan, Gizarte Segurantzaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoari jagoko:

a) Estaduaren oinarrizko legeria lege bidez garatzea eta betearaztea, haren araubide ekonomikoa taiutzen daben arauak izan ezik.

b) Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketa”.

Cuando propongan una iniciativa de ese o similar tenor, contarán con nuestro apoyo, entre otras cosas porque defenderemos la soberanía y la independencia económica y social que necesita Euskal Herria, para avanzar en la defensa de todos los ciudadanos/as, incluidas las personas autónomas.

Para finalizar mi intervención no quisiera pasar por alto otra de las demandas que el Partido Popular plantea en su proposición, en la que pide que se modifique la



norma del IRPF y se amplíe la reducción en la base imponible general por las aportaciones a los fondos de pensiones. ¡Vaya! ¡Una propuesta muy curiosa y llamativa! Como alternativa a los supuestos problemas que tienen los autónomos, se propone establecer la Cuota Cero, al tiempo que se incrementa la reducción por las aportaciones a las EPSV. Vaya por dónde los autónomos parece que tienen problemas para hacer aportaciones a la Seguridad Social, pero no a las EPSV. Es decir, problemas para aportar a un sistema público universal sí, pero ningún problema para el sistema individual y privado. ¡No nos van a hacer ustedes cómplices de este fraude!

Para finalizar, las deducciones en el IRPF que se solicitan, por un lado, diríamos que ya existen y se aplican para la contratación de personal, aunque lo que plantea el Partido Popular, si se aceptara tal y como está, resultaría perjudicial para los autónomos. Porque la deducción existe no sólo para contratar al primer trabajador indefinido y no sólo durante el primer año, sino por cada contratación indefinida que se realice en cualquier año. Por otro lado, la deducción, la deducción para la contratación de una persona trabajadora para cubrir bajas de autónomos no está sujeta a IRPF y ésta sí podría ser una buena idea.

Nada más, luego seguiré en la segunda intervención.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Aranburu Agirre.

Tiene la palabra el portavoz del grupo Euzko Abertzaleak, señor Arregi Osoro.

El Sr. **ARREGI OSORO** jaunak: Gracias señora Presidenta. Buenos días. Señora Siputada General, diputados y diputadas, buenos días a todos.

Martiaren 20an, orain dala hile bi, Gómez-Guadalupe jaunak ekimen honen oso antzeko galdera zuzendu eutsan Aldundiari. Orduko haretan, Laespada diputaduak erantzun eban, eukazan 4 minutu eskasak ahalik eta gehien aprobetxauz.

Jakina, erantzun hori ez zan nahikoa izan zuretzat. Antza danez, beharrezkotzat jo zenduan gai hori zabaltzeko ekimen bat aurkeztea. Zure ekimena da, eta zeuk erabagiten dozu, baina, beharbada, eta errespetu osoz dinotsut, beste ekimen mota bat planteau ahal izango zenduan, adibidez, interpelazino bat, Foru Gobernuaren aldetik erantzun zabalagoa eta zehatzagoa lortzeko, diputaduak berak egin ezin izatearren penaz geratu zana. Eta, holan, informazino gehiago eta hobe eukiko zenduan norberaren konturako beharginen errealidadeari buruz eta Aldundiak horren inguruan egindako ekintzei buruz.

Edozelan be, eta gaur proponiduten dauenaren eduki zehatzean sartu aurretik, galdera haretan planteau eban eta gaur zure ekimenak ekarri deuskun egoeraren inguruan hausnartzea gustauko litxakit.

- Zergaitik dagoz persona gitxiago autonomoen erregimenean alta emonda?
- Zergaitik dau batez besteko adina gero eta handiagoa?
- Zerk eroaten dau persona bat "autonomo" gisa alta edo baja hartzera?

Gizarte Segurantzako kuotek eta tratamendu fiskalak eragiten daben kostu ekonomikoa aitatzeaz ganera, zure ekimenean/esku-hartzean ez dot gai horreen azterketarik



ikusten. Gaia aurkeztu dozu, baina ia ez dozuz zure ustez egoera horretara eroan gaituen errazoiak azaldu. Eta holan, beste azterketarik eta hausnarketarik egin barik, konponbideak zer liratekeen proponiduten dituzu. Egoera bati heltzeko modu bitxia.

Presenta el tema, sí, pero no explica qué nos ha llevado a esta situación. Creo que es necesario un estudio previo para ver si las medidas que usted plantea son viables.

La diputada Laespada, como ya hizo en el pleno de control de marzo, se me ocurren algunas razones para explicar que el número de autónomos va bajando poco a poco.

Lehenengo eta behin, ados jarri beharko ginatke diagnostikoan, ondoren tratamentuari heldu ahal izateko. Ze errazoiak azaldu leikie autonomoen erregimenean alta emonda dagozan pertsonen kopurua pixkanaka jasten joatea?

Besteak beste sei errazoi bururatzen jataz:

- Bat - Aldaketa demografikoak: populazino-piramidea dan modukoa da. Biztanleria aktiboak gora egin dau, egia da, baina langileen batez besteko adinak be gora egin dau.

- Bi – Oparoaldi ekonomikoan, alta emondako pertsonen kopuruak behera egin dau. Argi dago hazkunde ekonomikoko une baten gagozala. Bizkaiak eta Euskadik enpleoa sortzen dabe. Besteren konturako enpleoa sortzen dan heinean, autoenplegua jatsi egiten da, eta krisi garaian areagotu egiten da lan-alternatiba gisa.

- Hiru – Kosta egiten da erosotasun-eremutik urtetea, edo, bestela esanda, arriskuak ez dau erakartzen. Negozio bat martxan jartzea eta autonomoa izatea aukeratzeak arriskuak hartzea dakar. Hori herrialde baten alderdi kulturalari lotuta dago, baina baita bigarren puntuari be, hau da, gaurko errealidade ekonomikoari. Objektiboki ona dala.

- Lau – Ikuskapenak frutuak emoten dauz. Autonomo faltsoen kasuak azaleratzen dira, benetan besteren kontura lan egiten dabenak.

- Bost – Autoenpleguari aurre egiteko beste forma juridiko batzuk goraka doazela esan lei. Adibidez, persona bakarreko soziedade mugatuek nabarmen egin dabe gora. Ondareari jagokionez, arrisku gitxiago eragin leikien figurak dira.

- Sei – Gizartean bertan ohiturak aldatzea. Orain dala hamarkada bi, zenbat negozio txikik euken autonomo bat buru? Gaur egun, zerbitzuak emoteko eta eskuratzeko, erosteko edo konsumiduteko dogun modua aldatu egin da. Eta asko aldatu da.

Eta horreek dira, besteak beste, RETAn alta emondako pertsonen kopuruan eragina euki leikien gaietako batzuk. Uste dot gai horreek eta beste batzuk kontuan hartuta bakarrik ekin ahal izango deutsegula seriotasun handiagoz bultzatu beharreko neurriei, honezkero bultzatzen ez badira.

Zuen proposamenei eta konponbide moduan proponiduten dituzuen neurriei jagokenez, gauza bat baieztuta geratzen da: zure taldearentzat, Alderdi Popularrarentzat, konponbidea zergak eta Gizarte Segurantzarako ekarpenak jaiste da. Hainbat formatutan, baina printzipio aktibo beragaz. Ondo badoa, zergak murriztea. Txarto badoa, edo ez badoa espero dogun lez, zergak murriztea. Botika miragarria, bardin balio dau gauza baterako edo kontrakorako.



Adibidez, kuota jakin batzuk hobaritzea planteetan dozu. Zero kuota kasurako. Kuota hori hobarituta dago lehenengo 12 edo 24 hileetan, eta 80 euroko tarifa lauari atxikitzeko aukera dago.

Kausa-efektu erlazinoa ezarri gura dala emoten dau: “0 kuota ezarriz gero, autonomoen kopurua igoko da”.

Eta proposamen hori babesteko argumentu bakarra beste batzuek egiten dabela da. Eta egia da, beste autonomia erkidego batzuek egiten dabe. Eta egia da: Aragoik, Gaztela Mantxak, Gaztela eta Leonek edo Errioxak badaukie neurri hori. Eta horreetako bakar baten be ez da igon autonomoen erregimeneko afiliatuen kopurua.

Hara, hurretik ezagutu izan dot autonomoen eta negozio txiker baten errealidadea. Nire familiak saltoki bat euki eban Bilbon, eta esan neizu inoiz ez jakula burutik pasau autonomoen kuotak negozioaren bideragarritasuna marketan ebanik. Kuota hori, bestalde, ezinbestekoa da gizarte-aurreikuspeneko sistema bat izateko.

Neurri posible guztietatik, etxean hori komentatzean, ez jaken inondik be iruditu disruptiboa izan eitekeanik.

Creo que su intención es buena, pero insisto, para establecer un tratamiento lo primero que tenemos que hacer es saber qué ha provocado el mal.

Por todo lo expuesto, el grupo juntero del PNV no puede apoyar su iniciativa.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Arregi Osoro.

Pasamos al turno de répoica. Tiene la palabra el portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

El Sr. **GÓMEZ-GUADALUPE GARCÍA-TEJEDOR** jaunak: Gracias.

Bigarren txanda honetan, erantzuten joateko, jakina, kausa asko dagoz, faktore desbardinak. Eztabaida luzea egin geinke horren inguruan, zergaitik daukaguzan autonomo gitxiago. Baina, era berean, badago egoera bat errealidadea dana, autonomo kopuru txikiagoa daukaguna, hau da, autonomoei eskaintzen deutseguzan baldintzek beste lurralde batzuen aldean desabantailan jartzen gaitue. Eta hirugarren zirkunstantzia bat, herritarrek autonomoen lanari segurtasunik eza esaten deusiela, arriskuko kiroltzat hartzen dabela, puntu honetan esku hartu daben beste parte-hartzaile batzuek aitatu daben moduan.

Eta, ganerako taldeek esan dabenari erantzuteko, eta hori Elkarrekin Podemosek eta Bilduk esan dabe, proposatzen dogun zerga-murrizketaren helburua langile autonomoen aurrezpena bultzatzea da, euren diru-sarrerak holako planetara modu librean ekartea erabagi daien. Guk ez dogu inor behartu gura, ezta diru publikoa inoren esku jarri be, baina bai bermatu gura dogu persona bakoetak bere diru-sarrerak gura dauen aurrezteko modura bideratzeko askatasuna eukitea eta beste lurralde batzuekaz bardintasuna izatea. Zuei ez jatzue gustetan, ez kezkatu, inork ez zaitue behartzen holako planetara ekarpenak egitera. Eta adibide bat ipiniko deusuet, autonomo bat, 5 urtegaz, diru-sarrera txikiak izanda, fakturazino-urte ona



daukana, eta holako planetan aurreztea eta inbertidutea erabagiten dauena. Zergaitik merezi dau Bizkaia beste lurralde batzuen aldean desabantailan egotea?

Alderdi Sozialistako Álvarez Castrejón jaunak esandakoa dala-ta, nik ez deusat esan Bizkaia, ezta Espainia osoa be 2008an baino okerrago dagoala. Besterik ez zan behar. Baina bai esaten deusut autonomoen arloan okerrago gagozala autonomo kopuruari eta autonomoei eskaintzen deuseguzan baldintzei jagokenez. Eta ezku sozialari jagokonez, lurralde moduan ez daukagu Espainiako beste leku batzuetan dagozan neurriak. Jakina, beste era bateko neurriak daukaguz, ez litzateke logikoa izango kontrakoa esatea, baina daukaguzan neurrietatik, zenbatek eragiten deusie langile autonomo guztiei? Zenbat burokrazia daukie?

Gaur proponiduten doguzanak gure lurraldeko langile autonomo guztiak hartzeko neurriak dira, eta erabat irisgarriak, beren ezaugarriakaitik eta burokraziagaitik, horrek ekarriko leuken burokrazia eskasagaitik. Eta Bilduko ordezkariak esandakoari helduz, esan dau ez dala proporzionala, eta ez dala bidezkoa, eta bere idea soziala ez dala lehen urte honeetan kuota txikia izatea. Baina gauza bat gogorarazo behar deusut, murrizketa bat badago Gizarte Segurantzaren araudian oinarrituta. Eta, bigarrenik, zuek justizia soziala egin gura badozue, horretarako dago PFEZ, eta horretarako dago gaur egungo Gizarte Segurantzako kuoten sistema. Ez dogu ulertzen zergaitik ezkutetan zarien horretan, autonomoen kolektibidade osoari laguntza hori emoten deusan neurri bat onartu gura ez izateko. Eta badago funtsezko zirkunstantzia bat, autonomo guztiak bat datozena: gatxena hastapenak dira. Beharbada, langile autonomo bat, hasten danean, hainbat modu bururatzen jataz, Zuzenbidean lizentziadu barri bat bururatzen jat, alkargoko kide egiten dana, online saltoki bat edegiten dauena bururatzen jat, edo pentsetan dot aholkuak emoten hasten dana. Hastapenek era guztietako kostuak eta burokrazia eragiten dabez. Hasiera-unea erabagigarria da administrazio publikoen laguntza jasotzeko.

Eta Euzko Alderdi Jeltzaleko ordezkariak inoanari erantzutearren, arriskuak ez dauela erakarten dinozu. Hain zuzen be, neurrien bidez, planen bidez, autoenplegua sustauz, Bizkaiko herritarren artean lortu behar dogun pentsamoldea da autonomia izatea aukera bat dala, ekin gura izateak onurak ekarri leikezala eta bizimodua izan daitekela, inori bere helburuak garatzea ez eragozteko.

Besterik ez. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

Tiene la palabra el portavoz del grupo Euskal Sozialistak, señor Álvarez Castrejón.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Gómez-Guadalupe jauna, estimu eta maitasun osoz, zuk ondo dakizunez, autonomoaz berba egin dogunez, nik ulertu deusut hemen autonomoentzat orokorrean daukagun apurraz zenbilzala. Ba, ez, hemendik autonomoentzat eta autonomoak ez diranentzat, hau da, nire ustez, prestazio batzuk daukaguz, benetan, eta badakit, zu bidaiaria zaranez, joan eta kontau egingo dituzula, eta han kontauko dozula hemen daukaguna. Ze han daukiena hemen kontetan dozunean, egia esan, ez, ezin dogu onartu eredu hori izatea eta eredu hori izatea, ez autonomoetan bakarrik, ezertan be ez. Sinistuidazue ia ezertan bez. Ezer gitxi esaten gabilz hezkuntzari, osasunari, menpekotasunari eta azpiegiturei buruz. Ezin doguz alderatu. Ez, han ez dabilz ondo. Hemen, ondo ez bada, gertu gabilz, eta perfektua ez, baina beste era batera.



Orduan, jakina, hurrengo pausua, eta hori bai kostauko jakun, eta niri asko gustauko litxakit orain dala urte batzuk, langile autonomoen erregimenean urte asko egon nazanean, 80 €ko edo 50eko tarifa lau horreek egon izan balira, 60koa izan zan, sartu eta berehala kostu bati aurre egin behar eutsalako, eta kostu hori ez zan oso altua, baina ulertzen neban, “jolín, ze irabazi gitxi aterako deutsudan”. Akats handia da. Akats hori, azkenean, infrakotizazinetik infrakotazinora ordaintzen da, sinistu eidazu, infrakotizazinoa ordaintzen dogu azkenean, baina enpresak eta langileak ordainduta.

Diru-sarrera errealen araberako kotizazino-sistema barria indarrean jartzeagaz batera, lortu da behar dauenak, benetakoak, behar dauzan diru-sarrera urrien arabera ordaintzea, eta salbuetsita egotea, ez kuota arruntetik salbuetsita; 12 hilebetetz, 80 euro ordaintzen dauz, eta beste 12 hilebetetz, 80 euro. Uste dot garrantzi handiko elementua dala, baina 2015etik hona 57.000.000 euro inbertidu dira, kopuru handia da, ze erkidego batzutan 57.000.000 euro agian ez dira inberditu Erkidegoaren Konstituzinetik be. Ekintzaileei 5 eta 15.000 € bitarteko akzinoakaz laguntzea, eta lehenetasuna emotea besteren konturako lana lortzeko zailtasun handienak dabezanei, edo inpaktu handiagoko enpleoak. Ez dakit, oso interesgarria iruditzen jat. 2015az geroztik urtero 1.100 negozio barri sortzea, ez dakit. Beharbada ez dira startupak izango, batek euki, tiketak saldu eta gero 100.000.000 irabaziko dituana. Izan leiteke okindegi bat, ule-apaindegi bat edo holango gauza xumeagoren bat. Horregaitik, esan dan moduan, lehenago galdetuko neutsun ia autonomo guztientzat balio ete eban salbuespenak, hau da, 1.000koa eta 5.000koa bardinak ete ziran. Ulertzen dot ezetz, ezta? Badakit zuk ez zenduala “guztiontzako kafea” egiteko asmo hori, baina ez dakit, baina horregaitik esan dot holan.

Azkenik, negozioaren puentinga egitera ausartzen zaranean, ez dot esango gitxien espero dozuna dirua irabaztea danik, ez, ez da egia, irauteko behar dalako. Baina horretan jartzen dan ahalegina da egunetik egunera zailtasunak gainditzen laguntzen deutsuna, eta urte batzuk lehenagotik hona, ez dozu imajinetan zenbat aingeru jagole jarri diran ekintzaile txikerraren inguruan, benetan. Lehen benetako odisea zan.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Álvarez Castrejón.

Tiene la palabra el portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, señor Aramburu Agirre.

El Sr. **ARANBURU AGIRRE** jaunak:

Ha quedado claro que la proposición que ha planteado el Partido Popular tiene muchos aspectos oscuros. Y es que en la propuesta, aunque aparenta ayudar a los autónomos con problemas, al fin y al cabo prima el interés privado e individual utilizando el dinero de todos/as. Tampoco solucionaremos los problemas que tienen los autónomos incrementando las deducciones de las aportaciones a las EPSV, o concediéndoles subvenciones puntuales de un año.

Así, debemos avanzar en la soberanía económica y para su consecución, entre otras cuestiones, sería necesaria la transferencia de la competencia de la Seguridad Social, así como de su régimen económico, que nos compete. Además, como ya dijimos en la campaña electoral, consideramos urgente la constitución de una mesa de autónomos, ya que este instrumento institucional ayudará realmente a identificar y resolver el problema estructural de



los autónomos. Por tanto, por todo esto y por lo anteriormente expresado, nos abstendremos a la proposición presentada por el Partido Popular. Gracias. Gracias.

Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Aranburu Agirre. Para finalizar el debate, tiene la palabra el portavoz del grupo Euzko Abertzaleak, señor Arregi Osoro.

El Sr. **ARREGI OSORO** jaunak: Gracias de nuevo, señora Presidenta.

Gómez-Guadalupe jauna, lehenengo agerraldian fiskalidateagaz lotutako zure ekimeneko proposamenei heldu barik geratu naz, eta, egia esan, ez naz larregi geldituko gai horretan. Dakizunez, barrikuspen fiskala abian da, eta astelehen honetan bertan argitaratu da aurretiazko kontsulta publikoa. Ogasuneko diputadu andreak berak talde guztiak deitu gaitu horren inguruan egin doguzan ekarpenak ezagutzeko. Ondoren, izapidetze-fasea izango dogu Batzar honeetan. Edozelan be, barriro dinot, badakit aprobetxetako aukerea daukazula daborduko, aurretiazko kontsulta publikotik, berba egiteko eta ekarpenak egiteko. Uste dot, eta benetan dinot, hobe dala sustatu gura diran zerga-aldaketa guztiak zeregin horreen barruan lantzea, eta ez ekimen sakabanatuetan.

En cualquier caso, a la hora de decidir qué medidas hay que tomar, primero tendremos que ponernos de acuerdo en el análisis de la realidad. Como ya he señalado, he echado de menos ese análisis en su iniciativa. Creo que hay que analizar no sólo las razones que nos llevan a la realidad actual de las personas autónomas, sino también qué están haciendo las instituciones.

Abiapuntu dogun errealidadearen ikuspegi zintzo batek, kauzakaz batera, erakundeetatik zer egiten dan aztertzea eskatzen dau. Bizkaiko Foru Aldundiak, Enplegu, Gizarte Kohesio eta Bardintasun Sailak eta Demak ehundaka persona eta proiekturi emoten deutsee zerbitzua urtero, autoenplegua bultzatuz. Zelan? Ba oraintxe hemen eskatu dozuzan moduko neurriakaz:

Autoenplegu-proiektua abian jartzeko prozesuan prestakuntza izatea.

Autoenplegu digitaleko proiektuetarako gaitasun digitalei buruzko prestakuntzagaz.

Ekintzailtza-prozesu osoan aholkularitza-zerbitzua eskainiz.

Edo enpresa-proiektua sendotzeko zerbitzu bategaz.

Eta horrek guztiak 57.000.000 euro baino gehiago hartzen ditu, lehen be esan da, 2015etik ekimen ekintzaileen programetan inbertidu diranak. Neurri honeek iraupen-lasterketetarako dira, ez esprint baterako. Eta, era berean, hori autonomoek eskatu dabe batez be, enpresa-eskualdaketerako programa (\$\$05:15:40), negozioa transferidu gura dabenen eta eskuratu gura dabenen arteko bitartekaritza-zerbitzua, 20.000 arteko laguntza ekonomikoak barne.

Beste gauza batzuk egin daitezke? Jakina, beti dago hobetzeko tartea, baina kontua ez da soilik RETAK afiliazio-oinarria handitzea, edo gaiari heltzea fiskalidatetik eta Gizarte Segurantzako kuotetatik harago joan barik. Autoenplegua sustatu behar dogu, kalidadeko enplegua dalako, jarduera ekonomiko bideragarria dalako eta aberastasuna eta



ongizatea sortzen ditualako. Ekintzailletza bultzatu behar dogu, barrikuntza, digitalizazioa, prestakuntza eta abar sustatu behar doguz.

Barrero dinot, uste dot gure zeregina Bizkaian bizi diran personen bizimodua hobetzea dala. Taldeen artean akordioak lortzea da gizarteak egin deuskun agindua. Eta bai, gaur zure proposamenaren kontra bozkatuko dogu, baina benetan espero dot beste baten, laster, akordioak lortu ahal izatea zure taldeagaz eta generako taldeakaz.

Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Arregi Osoro.

Finalizado el debate, sometemos a votación la Proposición no de Norma. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido 48 votos en total, 2 a favor, 31 en contra y 15 abstenciones. Por lo tanto, no se aprueba la Proposición no de Norma.

Y agotado el orden del día, se da por finalizada la Junta General. Buenos días a todos y todas.

Batzarra 14:18an amaitu da.

Se levanta la sesión a las 14:18 horas.

